# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia — Iruña, 2009ko otsailaren 19a — 10. ZK.


**A U R K I B I D E A**


I SAILA:
**Planak, komunikazioak eta programak:**
—Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa. Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordeak onetsia (2. or.).

I saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

# Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa.

*FAMILIA, GAZTERIA, KIROL ETA GIZARTE GAIETARAKO BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordeak, 2008ko abenduaren 17an eginiko bilkuran, Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa onetsi zuen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu plana argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa

### AURKIBIDEA

**I.** Sarrera (4. or.).

**II.** Abiapuntuko egoeraren azterketa (5. or.).

II.1. Populazioa. Populazioaren bilakaera eta adierazle nagusiak (5. or.).

II.2. Populazioaren hazkundea, gizarte zerbitzuen barrutien arabera (7. or.).

II.3. Etxe mota (8. or.).

II.4. Nafarroan mendekotasuna duten biztanleen proiekzioa (12. or.).

II.5. Gizarte zerbitzuen antolaketa, lurraldekoa eta funtzionala (14. or.).

Lurralde antolaketa: oinarrizko eskualdeak eta barrutiak (14. or.).

Gizarte zerbitzuen antolaketa funtzionala: Oinarrizko Arreta eta Arreta Espezializatua (16. or.).

II.6. Gizarte zerbitzuen erantzuna (16. or.).

Oinarrizko arretako gizarte zerbitzuen erantzuna (17. or.).

Gizarte zerbitzu espezializatuen erantzuna (21. or.).

II.7. Gizarte Zerbitzuen sistema publikoaren eredu berria: Gizarte zerbitzuei buruzko martxoaren 30eko 14/1983 Foru Legea. Gizarte zerbitzu orokorren zorroa (46. or.).

**III.** Balizko eskaeraren azterketa (47. or.).

III.1. Balizko eskaera (47. or.).

Mendekotasuna (47. or.).

Adineko pertsonak (48. or.).

Mendekotasuna duten pertsonak (48. or.).

Buru-nahaste larria (49. or.).

Gizarte Bazterketa (50. or.).

Adingabeak (51. or.).

Genero indarkeriaren biktimak (51. or.).

**IV.** Eskaera errealaren azterketa (52. or.).

IV.1. Mendekotasuna duten adineko pertsonak (52. or.).

IV.2. Ezgaitasuna (54. or.).

Adimeneko ezgaitasuna eta jokabidearen nahastea (55. or.).

IV.3. Buru-nahaste larria (56. or.).

IV.4. Gizarte bazterketa (57. or.).

IV.5. Adingabeak (57. or.).

IV.6. Genero indarkeriaren biktimak (57. or.).

**V.** Diagnostiko estrategikoa (58. or.).

V.1. Indarrak/aukerak, mehatxuak/ahultasunak (58. or.).

AMIA diagnostikoa (58. or.).

**VI.** Nafarroako Gizarte zerbitzuen Plan estrategikoa 2008-2012 (60. or.).

VI.1. Ikuspegia, Eginkizuna, Printzipioak eta Helburuak (60. or.).

Ikuspegia: (60. or.).

Eginkizuna: (60. or.).

Printzipioak: (60. or.).

Helburu orokorrak: (60. or.).

Ildo Estrategikoak: (61. or.).

VI.2. Jarduketak eta ebaluazio adierazleak ezartzeko kronograma (77. or.).

Eranskina: Gizarte zerbitzuen sistema publikoaren lurralde antolaketa (92. or.).

## I. SARRERA

Gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Lege aitzindaria, Espainian, estreinakoz, pertsonek gizarte zerbitzuak jasotzeko eskubidea dutela ezartzen duena, eta, eskubide hori garatzeko, ekainaren 17an emaniko 69/2008 Foru Dekretua, Gizarte zerbitzu orokorren zorroa ezarri zuena, onetsi ondoren, Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa (2008-2012) lehendabiziko urratsa da Nafarroako Foru Komunitatean gizarte zerbitzuak kudeatzeko modu berri baterantz daraman bidean; kudeaketa berri horren bidez, eraginkortasunez aurre eginen diegu aipatutako arauek gizarte zerbitzuen sistema publikora ekarri dituzten aldaketen erronkei, pertsonen beharrei erantzun egokia emanez eta emandako zerbitzuen kalitatea hobetuz.

Hortaz, Plan Estrategiko honen asmoa da, batetik, hurrengo urteetako gizarte zerbitzuen arloko politiken ildoak ezartzea, eta bestetik sektorea planifikatzeko esparrua izatea.

Plana egin aurretik Nafarroako gizarte zerbitzuen sistema publikoaren egungo egoeraren ezaugarriak aztertu ditugu, abiapuntua ongi ezagutzeko eta, hartara, ezarriko diren helburuak nafarren beharrekin bat etor daitezen eta, aldi berean, errealistak izan daitezen.

Plana egiteko partaidetzara bideratutako prozesu bat prestatu da, bost fase hauekin:

I. Agirien prestaketa.

II. Parte-hartzea

III. Ekarpenak bildu eta aztertzea

IV. Agirien zabalkundea

V. Tramitazioa eta onespena

Plan hau hiru kapitulu nagusitan egituraturik dago: lehenbizikoan abiapuntuko egoeraren azterketa jaso da, bigarrenean diagnostiko estrategikoa eta hirugarrenean plan estrategikoa bera.

Abiapuntuko egoeraren azterketak hiru norabide izan ditu: batetik, Nafarroako biztanleriaren ezaugarriak aztertzea, eta bestetik, egungo sistemak gizarte beharretarako eskaintzen duen erantzuna eta, azkenik, sistema garatzen den ingurunea.

AMIA diagnostikoan, berriz, partaide guztiek, zein bere esperientzian eta ikuspegian oinarrituz, Nafarroako Foru Komunitateko gizarte zerbitzuen egungo eta etorkizuneko egoeraz egindako balorazioak biltzen dira.

Plan Estrategikoari dagokionez, honako hauen berrikuspen partziala egiten du: sistemaren ikuspegiari buruzko alderdiak, kudeaketaz arduratzen den antolakundearen zeregina eta arreta sozialaren arloko lanean gidari izan behar duten printzipioak. Era berean, plan berri hau aplikatuz lortu nahi diren helburu orokorrak ezartzen ditu.

Helburu horiek lortzeko, ildo estrategiko hauek diseinatu dira:

1. ildo estrategikoa. Arau garapena.

2. ildo estrategikoa. Lehentasunezko arreta beharrak.

3. ildo estrategikoa. Gizarte zerbitzuen banaketa lurraldean eta eskualdeak.

4. ildo estrategikoa. Plangintza, kontrola eta ikuskapena.

5. ildo estrategikoa. Antolaketa eta kudeaketa.

6. ildo estrategikoa. Prestakuntza eta ikerketa.

7. ildo estrategikoa. Gizarte zerbitzuen kalitatea.

Ildo estrategiko horiek garatu eta zehazteko zenbait neurri eta jarduketa ezarri dira.

Amaitzeko, eta plan estrategiko hau egiazko ekintza plana izan dadin, informazio hau ere sartuta dago bertan: kronograma, neurri bakoitza gauzatzeak dakartzan jarduketak ezartzeko erritmoa zehazten duena; ebaluaziorako adierazleak; neurriak bultzatzeaz arduratuko direnak; horiek gauzatzean partaide direnak; eta neurriek kostu ekonomikoa dakarten ala ez, hala denean planak erantsirik duen memoria ekonomikoan islaturik ageri baita.

Horrela, Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategiko hau (2008-2012) sistema berri bat eraikitzeko tresna eraginkorra bilakatu behar da, nafarren ongizatea areagotzeko eta Ongizatearen Estatuaren laugarren zutabea sendotzeko, Gizarte Zerbitzuen Foru Legeak lehendabiziko harria jarri ondoren.

## II. ABIAPUNTUKO EGOERAREN AZTERKETA

Abiapuntuko egoeraren azterketaren atalean hauek jaso dira:

Lehenbiziko atala, Nafarroako biztanleei buruzko datu adierazgarrienak biltzen dituena.

Bigarren atala, gizarte zerbitzuen inguruko gaur egungo antolaketari buruzkoa, lurraldekoa nahiz funtzionala.

Hirugarren atala, gizarte zerbitzuen egungo sistema publikoak arreta sektore guztiei ematen dien erantzuna zehazten duena: mendekotasuna, ezgaitasuna, adineko pertsonak, buru-eritasuna, gizarte bazterketa, adingabeak eta genero indarkeria.

Azken atalean eskaeraren azterketa egiten da, bai baliabideak jasotzeko itxaron zerrendari dagokionez bai gizarte zerbitzu orokorren zorroak indarra hartzeak ekar dezakeen balizko eskaerari dagokionez.

### II.1. POPULAZIOA. POPULAZIOAREN BILAKAERA ETA ADIERAZLE NAGUSIAK

Plangintza estrategikoaren ezaugarri nagusiak kontuan harturik, Nafarroako Foru Komunitateko biztanleak eta haien beharrak hartu dira abiapuntutzat, hau da, zein dira gizarte zerbitzuen hartzaileak eta nola aldatu dira azken urteotan? Horretarako, Nafarroako populazioaren honako adierazle soziodemografiko hauek erabiltzen ditugu: adina, generoa, jaiotza eta heriotza tasa, bizi itxaropena, hazkunde begetatiboa, etxe kopurua eta mota, migrazioen saldoa eta lurralde banaketa.

2007ko urtarrilaren 1ean, udal erroldaren arabera, Nafarroako biztanleak 605.876 ziren. Horrek esan nahi du 2003-2007 urteetan populazioaren igoera 27.666 biztanlekoa izan dela. **Urte arteko hazkunde tasa**, batez bestekoa, %1,24koa da, baina azken urtean %0,66koa, 4.002 biztanle gehiago izan baitira.

**1. taula:** Nafarroako populazio osoa, 2002-2007

| | 2003 | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 |
|---|---|---|---|---|---|
| Biztanleak, osotara | 578.210 | 584.734 | 593.472 | 601.874 | 605.876 |

Iturria: NEI Oinarria. Erroldaren ustiaketa estatistikoa.

Estatistika Institutuak populazioaren mugimendu naturalari buruz egindako txostenaren arabera, 2006ko jaiotzen kopurua 6.551 izan zen. Azken 25 urteotako balio altuena da, eta lotura zuzena du **jaiotza tasa gordinaren** hazkundearekin, batez ere emakume etorkinen ugalkortasunak eraginda. Bestalde, epe horretan hildakoen kopuruak aldaketarik izan ez duenez, populazioaren hazkunde begetatibo absolutua oso positiboa da.

**2. taula:** Populazioaren hazkunde begetatiboa, 2002-2006 urteak

| | 2002 | 2003 | 2004 | 2005 | 2006 |
|---|---|---|---|---|---|
| Jaiotza tasa gordina (‰) | 10,2 | 10,7 | 10,9 | 10,5 | 10,9 |
| Jaiotza kop. | 5.802 | 6.180 | 6.293 | 6.149 | 6.551 |
| Heriotza tasa gordina (‰) | 8,7 | 9,1 | 8,6 | 8,9 | 8,4 |
| Heriotza kop. | 4.989 | 5.247 | 5.003 | 5.196 | 4.772 |
| Hazkunde begetatiboa | 813 | 933 | 1.290 | 953 | 1.779 |

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua. Populazioaren mugimendu naturala. 2006ko aurrerapena

Horrez gain, Nafarroako Foru Komunitatean goraka jarraitzen du bizi esperantzak (Espainiako altuena); egun, 82 urtekoa da batez bestekoa, 85,1 urtekoa emakumeentzat eta 79 urtekoa gizonezkoentzat.

2002az geroztik, Foru Komunitateak **migrazio saldo** positiboa izan du; 2006an 9.033 pertsona izan ziren, haietatik %52 (4.701) gizonak, eta %48 (4.332) emakumezkoak.

**3. taula:** Migrazio saldoa Nafarroan, sexuaren eta urtearen arabera

| | 2002 | 2003 | 2004 | 2005 | 2006 |
|---|---|---|---|---|---|
| Gizonezkoak | 411 | 706 | 3.146 | 3.641 | 4.701 |
| Emakumezkoak | 455 | 588 | 3.111 | 3.296 | 4.332 |
| Guztira | 866 | 1.294 | 6.257 | 6.937 | 9.033 |

Iturria: NEI Oinarria. Migrazio saldoen bilakaera.

NEIaren arabera, 2006an, etorkinak, osotara, 37.479 izan ziren, eta horietatik 9.873 (%26,34) atzerriko herrialdeetatik etorritakoak eta 27.606 (%76,66) Estatuko gainerako tokietakoak. Emigratutakoak, berriz, 28.446 izan ziren, osotara. Horietatik 1.536 (%5,40) atzerriko herrialdeetara joan ziren eta 26.910 (%94,60), berriz, Espainiako beste udalerri batzuetara.

2007ko Nafarroako Foru Komunitateko populazioaren egitura, sexuaren eta adinen araberakoa, ondoko piramidean ikus daiteke.

**1. grafikoa:** Populazioaren piramidea 2007-01-01




Iturria: NEI. Populazio piramideak.

Ikus daitekeenez, adinen araberako egiturari dagokionez, pixkanaka zahartzen ari da populazioa, jaiotza tasa heriotza tasaren gainetik dago, berezko hazkundea murritza da, helduen adin taldeak eta adinekoena handiak dira gazteen adin taldeekin alderaturik, eta 65 urtetik gorakoen kopurua ere nabarmena da. Piramidearen oinarrian populazio gazteagoaren hazkunderako joera ikusten da, azken urteotan jaiotza kopuruak izan duen gehikuntzaren ondorioz. 0tik 4 urtera bitarteko adin tartea, 2003an, populazio osoaren %4,69koa izatetik 2007an %,20koa izatera pasatu da. Sexuen arabera ikus daiteke 60 urte arte gizonak direla gehiengoa eta adin horretatik aurrera, berriz, emakumeak.

Egindako populazio proiekzioek %4,4ko gehikuntza adierazten dute 2012rako, 2007rekin alderatuta.

**4. taula:** Nafarroako populazioaren proiekzioa NEIaren arabera

| Urtea | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Populazioa | 597.022 | 602.907 | 608.425 | 613.560 | 618.468 | 623.272 |

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala. Populazioaren proiekzioak Oinarria 2001eko errolda

NEIk proiektatzen duen populazio hazkunde horretatik abiatuta, eta kontuan hartuta Nafarroak 2007ko urtarrilaren 1ean 605.876 biztanle zituela, 2012rako 632.515 izanen direla aurreikusten da, hau da, 26.639 biztanle gehiago.

II.2. POPULAZIOAREN HAZKUNDEA, GIZARTE ZERBITZUEN BARRUTIEN ARABERA

Nafarroako Foru Komunitatean azken hamar urteetan izandako hazkundea ez da homogeneoa izan lurralde osoan.

**5. taula:** Populazioa, osotara, 2003an eta 2007an, gizarte zerbitzuen barrutietan

| | Populazioa | | 2003-2007 urteetako aldea | |
|---|---|---|---|---|
| | 2003 | 2007 | Populazioa | Ehunekoa (%) |
| Ipar-mendebaldea | 52.690 | 53.600 | 910 | 1,73 |
| Ipar-ekialdea | 20.516 | 20.581 | 65 | 0,32 |
| Lizarra | 69.048 | 70.816 | 1.768 | 2,56 |
| Tafalla | 44.389 | 45.049 | 660 | 1,49 |
| Tutera | 88.201 | 91.838 | 3.637 | 4,12 |
| Iruña eta Iruñerria | 303.366 | 323.992 | 20.626 | 6,80 |
| Nafarroa | 578.210 | 605.876 | 27.666 | 4,78 |

Iturria: Udal erroldaren datuak, 2007ko urtarrilaren 1ean.

Taula honetan ikusten denez, gehikuntza handiena Iruñean eta Iruñerrian gertatu da (%6,80), eta ondoren Tuterako barrutian, %4,12koarekin.

Populazioaren egitura ere, adinen araberakoa, heterogeneoa da barrutietan, ondoko taulan ikusten denez.

**6. taula:** Populazioa adin-tarteen eta barrutien arabera 2007an. Kopuru absolutuak eta ehunekoak.

| Barrutiak | Guztira | <18 | | 18-64 | | >65 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Populazioa | % | Populazioa | | Populazioa | % |
| Ipar-mendebaldea | 53.600 | 8.543 | 15,94 | 34.536 | 64,43 | 10.521 | 19,71 |
| Ipar-ekialdea | 20.581 | 2.810 | 13,65 | 12.635 | 61,39 | 5.136 | 25,20 |
| Lizarra | 70.816 | 11.014 | 15,55 | 44.373 | 62,66 | 15.429 | 21,96 |
| Tafalla | 45.049 | 7.372 | 16,36 | 28.256 | 62,72 | 9.421 | 20,83 |
| Tutera | 91.838 | 15.541 | 16,92 | 59.126 | 64,38 | 17.171 | 18,67 |
| Iruña eta Iruñerria | 323.992 | 59.280 | 18,29 | 216.667 | 66,87 | 48.042 | 16,08 |
| Nafarroa | 605.876 | 109.560 | 17,26 | 395.596 | 65,29 | 105.720 | 17,45 |

Iturria: Plangintza eta Azpiegituren Zerbitzuak egina.

Ikusten denez, 65 urtetik gorako pertsonen proportzioa eta 18 urtetik beherakoena ez da berdina lurralde osoan. Iruñean eta Iruñerrian dago adineko herritarren kopuru txikiena (%14,82) eta populazio gaztearen kopuru handiena (%18,29). Beste muturrean Nafarroako ipar-ekialdea dago, adineko pertsonen kopuru handiena (%24,96) eta gazteen kopuru txikiena (%13,65) bertan baitaude.

II.3. ETXE MOTA

Bizi-baldintzei buruzko Inkestaren arabera, 2007. urtean 210.702 etxe zeuden Nafarroan (2001ean baino 21.930 gehiago eta 1991n baino 55.258 gehiago)

**7. taula:** Populazio osoa eta etxeen kopurua Nafarroan, urtez urte

| | 1991 | 2001 | 2007 |
|---|---|---|---|
| Biztanleak, osotara | 512.259 | 556.263 | 605.876 |
| Etxe kop. | 155.444 | 188.772 | 210.702 |
| Pertsonak/etxeko | 3,30 | 2,95 | 2,88 |

Iturria: NEI. 1991ko eta 2001eko populazio eta etxebizitza errolda. Bizi-baldintzei buruzko inkesta. 2007.

Nafarroako etxeetan batez besteko pertsona kopurua murriztuz joan da, eta 1991n 3,30ekoa izatetik 2,88koa izatera pasatu da 2007an. Azken sei urteetan populazioak %8,92 egin du gora, eta etxeen kopuruak, berriz, %11,62.

**8. taula:** Etxeen proportzioa kide kopuruaren eta urtearen arabera

| | 1991 | | 2001 | | 2007 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | K | % | K | % | K | % |
| **Etxe kop. guztira** | **155.444** | | **188.772** | | **210.702** | |
| Pertsona 1 | 21.140 | 13,60 | 37.761 | 20,00 | 38.405 | 18,23 |
| 2 pertsona | 34.096 | 21,93 | 45.576 | 24,14 | 57.038 | 27,07 |
| 3 pertsona | 31.481 | 20,25 | 40.370 | 21,39 | 46.906 | 22,26 |
| 4 pertsona | 36.942 | 23,77 | 42.081 | 22,29 | 46.212 | 21,93 |
| 5 pertsona edo gehiago | 31.785 | 20,45 | 22.984 | 12,18 | 22.141 | 10,51 |

Iturria: NEI. 1991ko eta 2001eko populazio eta etxebizitza errolda. Bizi-baldintzei buruzko inkesta. 2007.

Aurreko taulan islatutako datuen azterketa eginik, hauxe nabarmendu daiteke:

• Pertsona bakarreko etxeen kopuruaren jaitsiera, 2001eko kopuruarekiko.

• Bi edo hiru pertsonak osatutako etxeen kopurua goraka joan dela.

• Lau, bost pertsonak edo gehiagok osatutako etxeen kopurua goraka joan dela.

Ondoko taulan ikusten denez, **etxeetako kide kopurua**, gizarte zerbitzuen barrutien arabera azterturik, ez da oso desberdina batetik bestera.

**9. taula:** Nafarroako etxeetako kide kopuruari buruzko adierazleak, 2001ean eta gizarte zerbitzuen barrutien arabera

| | Etxeak | Batez besteko kide kop. | Bakarrik bizi diren pertsonen proportzioa |
|---|---|---|---|
| Ipar-mendebaldea | 16.551 | 3,1 | 19,6 |
| Ipar-ekialdea | 7.001 | 2,8 | 25,1 |
| Lizarra | 23.466 | 2,8 | 19,7 |
| Tafalla | 14.824 | 2,9 | 20,4 |
| Tutera | 28.525 | 2,9 | 18,8 |
| Iruña | 64.537 | 2,8 | 21,6 |
| Iruñerria | 33.868 | 3,1 | 15,6 |
| Nafarroa | 188.772 | 2,9 | 20,0 |

Iturria: 2001eko biztanle eta etxe erroldan oinarrituta egindako gizarte zerbitzuen maparen zirriborrotik hartua.

Ondotik etxeen ezaugarri batzuk ematen dira, Nafarroako Estatistika Institutuak egindako Bizi-baldintzei buruzko 2007ko Inkestatik ateratakoak:

• 65 urtetik gorako pertsonen %32 bakarrik bizi da.

• Bakarrik bizi diren pertsonen %47,23 65 urtetik gorakoak dira.

• Nafarroako etxeen %8,90ean ezgaitasuna duen pertsona bat dago. Portzentajea apalagoa da pertsona bakarreko etxeen kasuan, %3,30ekoa zehazki.

• Etxeen %74,85ean gizon bat da familia-burua.

• Familia-burua emakumezkoa den etxeen %38,66 pertsona bakarrekoak dira. Portzentajea apalagoa da gizonezkoen kasuan, %11,36koa baita.

• Familia-burua emakumezkoa duten etxeen %15,40 guraso bakarreko etxeak dira. Familia-burua gizonezkoa duten etxeen kasuan, berriz, portzentaje hori %1,6koa da.

PENTSIODUNAK

Ondotik Nafarroako pentsiodunei buruzko datuak ageri dira, bai kotizaziokoak bai kotizazio gabekoak. Gizarte Segurantzaren datuen arabera, 2007ko abenduaren 31n Nafarroako Foru Komunitatean 114.297 pertsonak jasotzen zituzten kotizazioko pentsioak, eta 3.812 pertsonak, aldiz, kotizazio gabekoak.

**10. taula:** Nafarroako Foru Komunitateko kotizazioko pentsioak. 2003., 2004., 2005., 2006. eta 2007. urteak

| | 2003 | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 |
|---|---|---|---|---|---|
| Ezgaitasun iraunkorra | 10.185 | 10.369 | 10.558 | 10.793 | 10.913 |
| Erretiroa | 63.619 | 64.726 | 67.615 | 69.510 | 71.123 |
| Alarguntasuna | 27.103 | 27.539 | 27.863 | 28.209 | 28.572 |
| Zurztasuna | 3.260 | 3.189 | 3.191 | 3.149 | 3.172 |
| Familiakoen aldekoak | 624 | 591 | 555 | 541 | 517 |
| **Guztira** | **104.791** | **106.414** | **109.782** | **112.202** | **114.297** |

Iturria: Gizarte Segurantzaren Estatu Idazkaritzaren urteko estatistika txostenak.

**11. taula:** Nafarroako Foru Komunitateko kotizazio gabeko pentsioak. 2003., 2004., 2005., 2006. eta 2007. urteak

| | **2003** | **2004** | **2005** | **2006** | **2007** |
|---|---|---|---|---|---|
| **3. adinekoak** | **2.957** | **2.707** | **2.569** | **2.345** | **2.235** |
| Erretiroa | 2.650 | 2.462 | 2.390 | 2.253 | 2.170 |
| Asistentzia pentsioak | 307 | 245 | 179 | 92 | 65 |
| **Ezgaitasuna** | **1.824** | **1.718** | **1.650** | **1.551** | **1.464** |
| ELBARRIAK GIZARTERATZEKO LEGEA | 687 | 618 | 531 | 467 | 390 |
| Elbarritasuna | 1.137 | 1.100 | 1.119 | 1.084 | 1.074 |
| **Guztira** | **4.781** | **4.425** | **4.219** | **3.896** | **3.699** |

Iturria Gizarte Gaietako Departamentua.

MENDEKOTASUNA DUTEN BIZTANLEAK

Nafarroako Mendekotasun Agentziak datu hauek eman ditu, Nafarroan mendekotasuna duten pertsonak baloratzeko prozesuari ekin zitzaionetik urtebetetik gora iragan delarik:

**12. taula:** Nafarroan mendekotasuna duten pertsonak, baloratu direnak, adinaren eta generoaren arabera, 2007ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarte

| Mendekotasun maila | Adina | <18 | | >=18 eta <65 | | >=65 eta <80 | | >=80 | | Guztira | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Sexua** | **Gizonezkoak** | **Emakumezkoak** | **Gizonezkoak** | **Emakumezkoak** | **Gizonezkoak** | **Emakumezkoak** | **Gizonezkoak** | **Emakumezkoak** | **Gizonezkoak** | **Emakumezkoak** | **Guztira** |
| **Mendekotasun handia(III. gradua)** | **1. maila** | 13 | 15 | 37 | 42 | 99 | 122 | 197 | 547 | 346 | 726 | 1072 |
| | **2. maila** | 56 | 31 | 214 | 169 | 223 | 300 | 433 | 1472 | 926 | 1972 | 2898 |
| | **Guztira** | 69 | 46 | 251 | 211 | 322 | 422 | 630 | 2019 | 1272 | 2698 | 3970 |
| **Mendekotasun larria II. gradua** | **1. maila** | 21 | 16 | 99 | 93 | 135 | 160 | 204 | 526 | 459 | 795 | 1254 |
| | **2. maila** | 14 | 16 | 154 | 128 | 125 | 187 | 179 | 643 | 472 | 974 | 1446 |
| | **Guztira** | 35 | 32 | 253 | 221 | 260 | 347 | 383 | 1169 | 931 | 1769 | 2700 |
| **Mendekotasun moderatua (I. gradua)** | **1. maila** | 6 | 3 | 59 | 70 | 80 | 144 | 139 | 338 | 284 | 555 | 839 |
| | **2. maila** | 11 | 7 | 104 | 105 | 94 | 150 | 172 | 440 | 381 | 702 | 1083 |
| | **Guztira** | 17 | 10 | 163 | 175 | 294 | 312 | 311 | 778 | 665 | 1257 | 1922 |
| **GUZTIRA** | | 116 | 84 | 665 | 607 | 756 | 1063 | | 1324 | 2868 | 5724 | 8592 |

Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia

**2. grafikoa:** Portzentajea, mendekotasun graduaren arabera




**3. grafikoa:** Mendekotasun handia dutenen %, adinaren arabera




**4. grafikoa:** Mendekotasun handia dutenen %, sexuaren arabera



**13. taula:** Nafarroan mendekotasuna duten pertsonak, baloratu direnak, eskualdeen arabera, 2007ko urtarrilaren 1etik apirilaren 1era bitarte

| Eskualdea | Mendekotasun handia | | Mendekotasun larria dutenak | | Mendekotasun moderatua dutenak | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1. maila | 2. maila | 1. maila | 2. maila | 1. maila | 2. maila | |
| **Ipar-mendebaldea** | 141 | 276 | 138 | 130 | 80 | 87 | **852** |
| **Ipar-ekialdea** | 63 | 127 | 72 | 58 | 38 | 44 | **402** |
| **Lizarra** | 156 | 468 | 208 | 243 | 126 | 163 | **1.364** |
| **Tafalla** | 74 | 215 | 137 | 143 | 90 | 101 | **760** |
| **Tutera** | 188 | 428 | 234 | 189 | 177 | 146 | **1.362** |
| **Iruña eta Iruñerria** | 450 | 1384 | 465 | 683 | 328 | 542 | **3.852** |
| **Guztira** | **1.072** | **2.898** | **1.254** | **1.446** | **839** | **1.083** | **8.592** |

Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia.

**5. grafikoa:** Mendekotasuna duten pertsonak, baloratu direnak, Gizarte Zerbitzuen barrutien arabera




Aurreko datu horietan jasota daude Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legea onetsi ondoren irekitako prozesua hasi zenetik Nafarroan mendekotasunaren balorazioa jaso duten pertsona guztiak. Denbora horretan horietatik 1.048 pertsona hil dira; %74,62k mendekotasun handiaren balorazioa zuten, eta %19,75ek mendekotasun larriarena.

2007ko abenduan 8.592 pertsonak zuten egina mendekotasunaren balorazioa, gradu desberdinetan. Egun, populazio horren ezaugarri aipagarrienak hauek dira: adin handiko pertsonak, mendekotasuna duten gehienak emakumeak izatea, eta gehiengoa mendekotasun handia (%41,44) eta larria (%28,18). Halere, azken ezaugarri hori ez da nolanahi hartu behar, kontuan hartuta iragandako denbora eta, logikoa denez, mendekotasuna duen populazioak graduen arabera piramide egitura izan behar duela, Mendekotasun Legearen pixkanakako aplikazioak (mendekotasun moderatua dutenen eskubideak ez dira 2012ra arte finkatuko) eraginen zuen, beharbada, sistemaren babesean jartzen lehenak arazo handienak dituztenak izatea.

II.4. NAFARROAN MENDEKOTASUNA DUTEN BIZTANLEEN PROIEKZIOA.

Mendekotasunaren Liburu Zuriaren I. kapituluan, “Oinarri demografikoak: mendekotasuna duten pertsonen kalkulua, ezaugarriak eta profilak” izenekoan, urte horretan mendekotasuna duten pertsonak zenbat diren kalkulatzen du EDDES-99 inkestaren bidez lortutako datuekin, bai eta hiru proiekzio egin ere 2005., 2010. eta 2015. urteetarako. Datu horiek, 2005eko erroldaren datuak eta

NEIak eginiko populazio proiekzioak izan dira Plangintza eta Azpiegituren Zerbitzuak erabili dituen informazio iturriak Nafarroako Foru Komunitatean 2005., 2010. eta 2015. urteetarako mendekotasuna duten pertsonei dagokienez aurreikusten diren portzentajeei buruzko hurbilketa egiteko.

Garrantzitsua da ohartaraztea Liburu Zurian mendekotasun handirako eta larrirako jasotako aurreikuspenak (guztira 8.000 pertsona) gainditu egin direla Nafarroan, azterketa honen aurreko atalean ikusi dugunez.

Populazioaren adinen araberako egitura ikusirik, ondorioa da, eta hala dio Liburu Zuriak, 2011ra arte mendekotasuna duten pertsonen kopurua 75 urtetik gorako pertsonen artean gertatuko dela batez ere: “Horren ondorioa izanen da XXI. mende honen hasierako hamar urteetan asko handituko dela epe luzeko zainketen eskaera”. (Mendekotasunaren Liburu Zuria. I. kapitulua, 7.4 puntua). 2011. urtetik aurrera egoera aldatuko litzateke. 65etik 75 urtera bitarteko pertsonen kopuruen gehikuntza 75 urtetik gorakoen multzoak izanen duena baino handiagoa izanen da, erretiroko multzoetan sartuko diren adin-taldeetan aurrekoetan baino kide gehiago izanen direlako.

Aurreikuspenen arabera, mendekotasuna (hiru graduetan, handia, larria eta moderatua) duten nafarren kopuruak %17,60ko igoera izanen du 2005etik 2015era. Mendekotasuna duten pertsonen tasak ere gora eginen du populazio osoarekiko (2005ean mendekotasuna zuten pertsonen tasa populazio osoaren %6,31koa zen, eta 2015ean %6,55ekoa).

Ondoko grafikoetan adierazten denez, mendekotasun handia 80 urtetik gorako pertsonekin lotuta egonen da, geroz eta gehiago, eta mendekotasun larria eta moderatua, berriz, pertsona gazteagoekin.

**6. grafikoa:** Mendekotasuna duten pertsonen portzentajea, adinaren eta mendekotasun mailaren arabera, 2006an




**7. grafikoa:** Mendekotasuna izango duten pertsonen portzentajea, adinaren eta mendekotasun mailaren arabera, 2010ean



**8. grafikoa:** Mendekotasuna izango duten pertsonen portzentajea, adinaren eta mendekotasun mailaren arabera, 2016an




Iturria: Egileek prestatua Mendekotasunaren Liburu Zuriaren eta NEIaren datuetan oinarriturik.

Azterketa horrek berak aipatzen du mendekotasuna duten pertsonen %63,93 emakumeak direla eta %36,07 gizonezkoak. Mendekotasun maila zenbat eta handiagoa izan, alde hori ere orduan eta handiagoa: mendekotasun handia dutenen artean %66,47 emakumeak dira eta %33,53, berriz, gizonak. Eta mendekotasun larria dutenetatik %61,16 emakumeak dira.

**9. grafikoa:** Mendekotasuna duten pertsonen proiekzioa 2015erako, adinaren eta mendekotasun mailaren arabera




II.5. GIZARTE ZERBITZUEN ANTOLAKETA, LURRALDEKOA ETA FUNTZIONALA.

Gizarte Zerbitzuei buruzko martxoaren 30eko 14/1983 Foru Legeak Foru Gobernuaren eta udalen (toki entitateak) esku utzi zuen Nafarroako gizarte zerbitzuen eskumena.

Arau horrek jarduketarako bost sektore ezarri zituen, haietako bat zeharkakoa eta batez ere oinarrizko gizarte zerbitzuekin lotua, “familia eta komunitatea”, eta beste lauak bi modutara bereizita: adinaren araberako populazio taldeak, hau da, “haurrak eta gazteak” eta “hirugarren adinekoak”, eta arreta eman beharreko arazo mota, “elbarritasunak” eta “gizarteratzea” alegia.

LURRALDE ANTOLAKETA: OINARRIZKO ESKUALDEAK ETA BARRUTIAK.

Urtarrilaren 16ko 11/1987 Foru Dekretuak, Oinarrizko gizarte zerbitzuak arautu zituenak, haien mugaketa geografikoa oinarrizko osasun eskualdea izanen zela ezarri zuen.

Oinarrizko osasun eskualdea osasun-etxeen eta oinarrizko osasun laguntzako taldeen esparrua da.

Nafarroako Gizarte Zerbitzuen sistemak horrela funtzionatu du Gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legea berriki onetsi arte, lurralde banaketa berri hauek ezarri baititu:

**Gizarte zerbitzuen oinarrizko eskualdeak.**

Orain arte, gizarte zerbitzuen oinarrizko eskualdeak, arreta sozialaren hastapeneko maila, arestian aipatutako arauei jarraikiz ezarri izan dira. Zerbitzuak udalek, udalen batasunek eta gizarte zerbitzuen mankomunitateek kudeatu dituzte. Iruñeko kasuan, oinarrizko arreta auzo unitatetan antolaturik dago. Maila hau ongi ezarria dago Nafarroako gizarte zerbitzuen sisteman: legez aitortua dago (Gizarte zerbitzuei buruzko Foru Legea) eta bi hamarkadatan bildutako esperientzia du. Garai hartan erabili zen irizpidea oinarrizko osasun eskualdeekin bat egitea izan zen, zerbitzuen arteko koordinazioa eta herritarrentzat lurralde banaketa ulergarria izan dadin errazteko.

Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Lege berriak, 41. eta 42. artikuluetan adierazten du oinarrizko eskualdeen eta jarduketa bereziko oinarrizko eskualdeen arteko lurralde mugaketa Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan ezarri eta erregelamenduz onetsiko dela.

**Gizarte zerbitzuen barrutiak**

Izatez, oinarrizko zenbait eskualderen elkarteak dira, gaur arte zerbitzu mota zehatzen esparrua izan ez direnak, ez eta inolako legeren xede ere, Gizarte Zerbitzuen Foru Lege berria onetsi arte. Aitzitik, Nafarroako I. Plan Gerontologikoak (1997-2000) barrutiak ezarri zituen adinekoen eskura zeuden baliabideak aztertzeko, baita zerbitzu jakin batzuetan lortu beharreko estaldura batzuk adierazi ere. Hauek ziren barrutik horiek: Tutera, Tafalla, Lizarra, Ipar-ekialdea, Ipar-mendebaldea eta Iruña eta Iruñerria.

2004tik aurrera, zenbait barrutitan gizarteratzeko taldeak (Lizarra, Tafalla eta Tutera) eta haur eta nerabeei arreta emateko taldeak (Lizarra) ezarri ziren, oinarrizko gizarte zerbitzuei eta, zehazki, gizarteratze eta haur eta familientzako arreta programei laguntzeko.

Gizarte zerbitzuen barrutietarako zerbitzuak ezarriak dituzten bi adibide bakarrak, oraingoz, hauek dira: buru-nahaste larria duten pertsonen arretarako programa, batetik, eta oinarrizko gizarte zerbitzuei laguntzeko aipatutako taldeak bestetik.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legeak lurralde antolaketa aurreikusten du, barrutien araberakoa, barrutia izanik oinarrizko eskualdeen elkartea, gizarte zerbitzuetako zentroen esparru gisa. Barruti horiek eta atxikiak dituzten zerbitzuak Plan Estrategikoan ezarri behar dira.

1. mapa: Gizarte zerbitzuen barrutiak eta oinarrizko eskualdeak barrutien arabera



1. Ipar-mendebaldea: Oinarrizko eskualde hauek hartzen zituen: Altsasu, Elizondo, Doneztebe, Etxarri Aranatz, Irurtzun, Leitza, Lesaka, Ultzama

2. Ipar-ekialdea: Oinarrizko eskualde hauek hartzen zituen: Agoitz, Auritz, Izaba, Zaraitzu, Zangoza.

3. Iruña eta Iruñerriko barrutia: Hauek hartzen zituen: Iruña (11 auzo-unitaterekin), Barañain, Burlata, Berriozar-Antsoain, Zizur, Uharte, Noain, Orkoien, Atarrabia.

4. Lizarrako barrutia. Oinarrizko eskualde hauek hartzen zituen: Allo, Antzin-Ameskoa, Los Arcos, Lizarra, Lodosa, Gares, San Adrián, Viana, Villatuerta.

5. Tafallako barrutia. Oinarrizko eskualde hauek hartzen zituen: Artaxoa, Zarrakaztelu, Erriberri eta Azkoien, Tafalla.

6. Tuterako barrutia. Oinarrizko eskualde hauek hartzen zituen: Buñuel, Cascante, Cintruénigo, Corella, Valtierra, Tutera.

GIZARTE ZERBITZUEN ANTOLAKETA FUNTZIONALA: OINARRIZKO ARRETA ETA ARRETA ESPEZIALIZATUA

Azken urteetan, gure gizarte zerbitzuen sistemak erantzun ugari eman ditu, zuzenekoak nahiz zeharkakoak, herritarren behar, asmo eta eskaeren aurrean.

Erantzun hori agerikoa da, administrazio publikoek eta arlo honekin zerikusia duten beste batzuek gizarte zerbitzuen arloko tresnak eta jarduerak gehitzeko egindako ahaleginak nabarmenak izan baitira.

Gizarte Zerbitzuei buruzko 14/1983 Foru Legeak esku-hartze sektoreen lehendabiziko sailkapena egin zuen, gaur egun arte erabili dena sistemaren zerbitzuak eta prestazioak antolatzeko.

Gizarte Zerbitzuei buruzko 15/2006 Foru Legeak ez du sektore edo barrutien araberako banaketarik egiten, eta irekita uzten du. Bereizketa ezartzen du, ordea, Oinarrizko Arreta Zerbitzuen edo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Zerbitzu Espezializatuen artean.

Gizarte zerbitzu orokorren zorroan, berriz, jarduketa arloetako bereizketa hori ezarri da, sailkapenerako bi irizpide erabiliz, bata zerbitzu motei dagokiena eta bestea esku-hartze sektoreei. Hiru zerbitzu mota bereizten ditu:

• Arreta anbulatorioa: oinarrizko laguntzako edo/eta laguntza espezializatuko gizarte zerbitzuetan edo etxean bertan herritarrei ematen zaizkien zerbitzuak, arreta programatuarekin eta langile kualifikatua eta erabiltzailea zuzenean harremanetan jarriz.

• Egoitzako arreta: zentroetan edo, kasua bada, familietan ematen den zerbitzua (pertsonaren benetako egoitza bihurtzen dira), bai aldi baterako bai epe luzera, ostatua, mantenua eta habilitazio edo errehabilitazioko jarduera espezializatuak emateko, pertsona bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta.

• Eguneroko arreta (egunekoa nahiz gauekoa): egoitzetan edo jarduera zentroetan (okupazionala, habilitaziokoa, errehabilitaziokoa eta esku-hartze berariazkoak ematekoa) ematen den zerbitzua, ordutegi jarraituan, egunaren zati handienean eta egoitzan ingresatzea ekarri gabe.

Esku-hartzeen araberako sailkapenari dagokionez, hauxe ezartzen du: Arreta ematea hauei: mendekotasuna dutenei, adinekoei, ezgaitasuna duten pertsonei, buru-eritasuna duten pertsonei, gizartean bazterturik edo baztertuak izateko arriskuan daudenei, adingabeei eta genero indarkeriaren biktimei.

II.6. GIZARTE ZERBITZUEN ERANTZUNA

Ondotik ematen da gizarte zerbitzuen sistema publikoak gaur arte eskaini duen erantzuna, barne hartzen dituena oinarrizko arreta, esku hartzeko zeharkako maila, eta arreta espezializatua, adinaren araberako populazioa tarteak alde batetik eta arazo mota, bestetik, bereiziz.

Gizarte zerbitzuen sistemak esku hartzeko arlo bakoitzaren arretarako ematen dion erantzuna honakoetara bideratzen da:

1. Diru-sarrerak bermatzea: Kotizaziorik gabeko aldizkako prestazio ekonomikoak, gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko.

2. Prebentzioa eta sustapena: zenbait egoera, alegia, adingabeak gizartean bazterturik, babesik gabe edo gatazka sozialean egotea eragiten duten arrazoiak, edo bizimodu autonomoa izatea mugatzen dutenak, sortu edo okerragotzeari aurrea hartzeko xedea duten jarduketak, horrez gain, gizarteratzea, autonomia, edo/eta adingabeen eta haien familien babesa, garapen eta ongizatea ziurtatzea sustatzen dutenak.

3. Etxean edo/eta ingurunean gelditzea: pertsona horiei, ahal denean, etxean edo ohiko ingurunean gelditzeko aukera emateko jarduketak, arretarako eredu integral eta profesionalizatua erabiliz, haien behar sozialak, osasunekoak, errehabilitaziokoak, akonpainamendukoak, asistentzialak, kul-

turalak eta aisiakoak asetzeko, laguntzarako berezko sareei eustea sustatuz.

4. Egoitzako arreta: zentroetan edo, kasua bada, familietan ematen diren zerbitzuak (pertsonaren benetako egoitza bihurtzen dira), bai aldi baterako bai epe luzera, ostatua, mantenua eta habilitazio edo errehabilitazioko jarduera espezializatuak emateko, pertsona bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta.

Ondotik azaltzen da zein den egungo sistemak horietako bakoitzari ematen dion erantzuna.

OINARRIZKO ARRETAKO GIZARTE ZERBITZUEN ERANTZUNA

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eta, Iruñeko kasuan, auzo-unitateak, toki entitateen eskumenekoak, gizarte zerbitzuen sistema publikoaren oinarrizko unitateen muina dira, eta sisteman sartzeko berezko ataria. Herritarrengandik eta familiatik eta gizartetik hurbilen dagoen maila dira. Nafarroak 45 toki entitate daude oinarrizko gizarte zerbitzuen titular direnak eta oinarrizko gizarte zerbitzuak 56 dira, horietatik 12 Iruñeko auzo-unitateak.

Zerbitzu sare hau Foru Komunitate osoan dago zabalduta, eta profesional kualifikatuen kopurua handia da bertan; arreta behar duten herri askotara iristen da. Era berean, sistemaren prestazioetarako sarbidea da.

Ondotik azaltzen da oinarrizko gizarte zerbitzuen jarduera eta haien erantzuna.

**14. taula:** Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen jarduera.

| **2007** | |
|---|---|
| Arreta jaso duten pertsonen kopurua | 63.102 |
| Esku-hartzeen kopurua | 75.540 |
| Balorazio sozialen kopurua | 91.344 |
| Jarduneko espedienteen kopurua. | 43.096 |
| Profesionalen kopurua | 721 |

Iturriak: Toki Entitateentzako Koordinazio eta Lankidetza Zerbitzua.

**15. taula**: Gizarte zerbitzuen jardunaren bilakaera

| **Prestazio mota** | **2005** | **2006** | **2007** |
|---|---|---|---|
| Espedienteak, guztira | 30.858 | 34.697 | 43.096 |
| Erabiltzaileak, guztira (errepikatu gabe) | 46.022 | 51.542 | 63.102 |
| Hasitako esku-hartzeen kopurua | 26.228 | 27.784 | 37.305 |
| Esku-hartzeak, guztira: | 50.718 | 58.575 | 75.540 |
| Balorazio kopurua | 60.550 | 71.200 | 91.344 |
| Eskaera kopurua | 57.815 | 67.061 | 86.258 |
| Erabilitako baliabide kopurua | 59.118 | 68.341 | 87.755 |

Iturria: SIUSS 2007 Memoria. Oinarrizko Laguntzaren Atalak egina

**Mendekotasuna duten pertsonentzako arreta.**

*Prebentzioa eta sustapena:*

Harrera eta Orientazio Sozialeko Programa: mendekotasuna duten edo izateko arriskuan dauden pertsonen behar sozialak atzematea, haien gabeziak, gaitasunak, ahalmenak eta lehentasunak kontuan hartuta, behar horiei hasierako erantzuna eman edo beste gizarte zerbitzu espezializatuetara bideratzeko.

*Etxean edo/eta ingurunean gelditzea*

Etxeko Arreta Zerbitzua: mendekotasuna dutela aitortua duten pertsonek aukera izan dezaten ohiko ingurunean gelditzeko, laguntza pertsonala, etxekoa, psikosoziala, soziokomunitarioa eta teknikoa emanez.

**16. taula:** Mendekotasun handia eta larria bi mailetan eduki eta Etxeko Arreta Zerbitzuaren arreta jasotzen duten pertsonen kopurua, guztira

| GZen BARRUTIA | MEND. HANDIA 1 | % | MEND. HANDIA 2 | % | LARRIA 1 | % | LARRIA 2 | % | GUZTIRA | % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| IRUÑA | 27 | 21,43 | 60 | 23,90 | 20 | 16,81 | 31 | 28,44 | 138 | 22,81 |
| TUTERAKO BARRUTIA | 19 | 15,08 | 38 | 15,14 | 34 | 28,57 | 18 | 16,51 | 109 | 18,02 |
| LIZARRAKO BARRUTIA | 13 | 10,32 | 44 | 17,53 | 18 | 15,13 | 21 | 19,27 | 96 | 15,87 |
| IRUÑERRIKO BARRUTIA | 23 | 18,25 | 32 | 12,75 | 16 | 13,45 | 11 | 10,09 | 82 | 13,55 |
| TAFALLAKO BARRUTIA | 4 | 3,17 | 13 | 5,18 | 9 | 7,56 | 13 | 11,93 | 39 | 6,45 |
| IPAR-MENDEBALDEKO BARRUTIA | 29 | 23,02 | 45 | 17,93 | 15 | 12,61 | 9 | 8,26 | 98 | 16,20 |
| IPAR-EKIALDEKO BARRUTIA | 11 | 8,73 | 19 | 7,57 | 7 | 5,88 | 6 | 5,50 | 43 | 7,11 |
| **GUZTIRA** | **126** | **100,00** | **251** | **100,00** | **119** | **100,00** | **109** | **100,00** | **605** | **100,00** |

Iturria: Toki Entitateentzako Koordinazio eta Lankidetza Zerbitzua.

**17. taula:** Etxeko Arreta Zerbitzuak mendekotasun handia eta larria dutenei emandako arreta orduak, Gizarte Zerbitzuen Barrutien arabera

| GZen BARRUTIAK | HANDIA 1 | % | HANDIA 2 | % | LARRIA 1 | % | LARRIA 2 | % | URTEKO ORDU KOPURUA | % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| IRUÑA | 884,00 | 33,06 | 1.775,00 | 32,69 | 551,00 | 25,76 | 892,00 | 40,20 | 4.102,00 | 32,92 |
| TUTERAKO BARRUTIA | 400,50 | 14,98 | 745,50 | 13,73 | 453,00 | 21,18 | 302,25 | 13,62 | 1.901,25 | 15,26 |
| LIZARRAKO BARRUTIA | 170,25 | 6,37 | 823,51 | 15,17 | 251,40 | 11,75 | 385,83 | 17,39 | 1.630,99 | 13,09 |
| IRUÑERRIKO BARRUTIA | 464,98 | 17,39 | 742,32 | 13,67 | 261,66 | 12,23 | 164,16 | 7,40 | 1.633,12 | 13,11 |
| TAFALLAKO BARRUTIA | 78,00 | 2,92 | 189,00 | 3,48 | 173,00 | 8,09 | 243,00 | 10,95 | 683,00 | 5,48 |
| IPAR-MENDEBALDEKO BARRUTIA | 499,48 | 18,68 | 762,91 | 14,05 | 288,35 | 13,48 | 114,56 | 5,16 | 1.665,30 | 13,36 |
| IPAR-EKIALDEKO BARRUTIA | 177,00 | 6,62 | 391,00 | 7,20 | 160,50 | 7,50 | 117,00 | 5,27 | 845,50 | 6,79 |
| **GUZTIRA** | **2.674,21** | **100,00** | **5.429,24** | **100,00** | **2.138,91** | **100,00** | **2.218,80** | **100,00** | **12.461,16** | **100,00** |

Iturria: Toki Entitateentzako Koordinazio eta Lankidetza Zerbitzua.

**18. taula:** Etxeko Arreta Zerbitzuak mendekotasuna duten pertsonei emandako arretaren ordu intentsitatea

| GZen BARRUTIA | MENDEKOTASUNA DUTEN ERABILTZAILEAK | ORDUAK |
|---|---|---|
| IRUÑA | 138 | 4.102,00 |
| TUTERAKO BARRUTIA | 109 | 1.901,25 |
| LIZARRAKO BARRUTIA | 96 | 1.630,99 |
| IRUÑERRIKO BARRUTIA | 82 | 1.633,12 |
| TAFALLAKO BARRUTIA | 39 | 683,00 |
| IPAR-MENDEBALDEKO BARRUTIA | 98 | 1.665,30 |
| IPAR-EKIALDEKO BARRUTIA | 43 | 845,50 |
| **GUZTIRA** | **605** | **12.461,16** |

Iturria: Toki Entitateentzako Koordinazio eta Lankidetza Zerbitzua.

**Adinekoentzako arreta**

*Prebentzioa eta Sustapena*

Harrera eta Orientazio Sozialeko Programa: 65 urtetik gorako pertsonen behar sozialak atzematea, haien gabeziak, gaitasunak, ahalmenak eta lehentasunak kontuan hartuta, behar horiei hasierako erantzuna eman edo beste gizarte zerbitzu espezializatuetara bideratzeko.

*Etxean edo/eta ingurunean gelditzea*

Etxeko Arreta Zerbitzua: berez baliatzeko zailtasunak dituzten adineko pertsonek aukera izan dezaten ohiko ingurunean gelditzeko, laguntza pertsonala, etxekoa, psikosoziala, soziokomunitarioa eta teknikoa emanez.

**19. taula:** 2003-2007 urteetan Etxeko Arreta Zerbitzuan arreta jaso duten 65 urtetik gorako erabiltzaileen banaketa

| Urtea | Erabiltzaileen kopurua Zuzeneko arreta | Estaldura % Zuzeneko arreta |
|---|---|---|
| 2003 | 3.675 | %3,56 |
| 2004 | 4.211 | %3,62 |
| 2005 | 3.776 | %3,64 |
| 2006 | 3.637 | %3,46 |
| 2007 | 3.660 | %3,46 |

Iturria: Toki Entitateentzako Koordinazio eta Lankidetza Zerbitzua.

**Mendekotasuna duten pertsonentzako arreta**

Atal honetan ezgaitasuna duten pertsona guztiak sarturik daude, Gizarte Zerbitzuen Erabiltzaileen Informazio Sisteman datuak ez baitaude jasota ezgaitasun motaren arabera bereizirik.

*Prebentzioa eta Sustapena*

Harrera eta Orientazio Sozialeko Programa, 65 urtetik gorako pertsonen behar sozialak atzemateko xedea duena, haien gabeziak, gaitasunak, ahalmenak eta lehentasunak kontuan hartuta, behar horiei hasierako erantzuna eman edo beste gizarte zerbitzu espezializatuetara bideratzeko.

*Etxean edo/eta ingurunean gelditzea*

Etxeko Arreta Zerbitzua: ezgaitasuna duten pertsonei ohiko ingurunean gelditzeko aukera ematea, laguntza pertsonala, etxekoa, psikosoziala, soziokomunitarioa eta laguntza teknikoa emanez, haien gabeziak, gaitasunak, ahalmenak eta lehentasunak kontuan hartuta, behar horiei hasierako erantzuna eman edo beste gizarte zerbitzu espezializatuetara bideratzeko.

**20. taula:** 2007an arreta emandako pertsona kopurua

| Arreta jaso dutenen kopurua | Estaldura % |
|---|---|
| 575 | 3,18 |

Iturriak: Toki Entitateentzako Koordinazio eta Lankidetza Zerbitzua.

**Gizartean bazterturik edo horrela gertatzeko arriskuan dauden pertsonak.**

*Prebentzioa eta Sustapena*

Harrera eta Orientazio Sozialeko Programa, gizartean bazterturik edo horrela gertatzeko arriskuan dauden pertsonen behar sozialak atzemateko xedea duena, haien gabeziak, gaitasunak, ahalmenak eta lehentasunak kontuan hartuta, behar horiei hasierako erantzuna eman edo beste gizarte zerbitzu espezializatuetara bideratzeko.

Gizarteratze Programa, gizartean bazterturik edo horrela gertatzeko arriskuan daudenak gizarteratzen laguntzeko xedea duena; jarduera nagusietako bat akonpainamendu soziala da.

Programa hori oinarrizko gizarte zerbitzu hauetan dago ezarririk: Altsasu, Barañain, Berriozar, Burlata, Zarrakaztelu, Lizarra, Etxarri Aranatz, Noain, Orkoien, Iruña, San Adrián eta Viana eta Iruñeko auzo-unitateak.

*Egoitzako laguntza.*

Pasadizokoentzako aterpetxeak: Zerbitzu honen xedea da gauerako ostatu ematea eta harrera egitea etxerik ez duten edo hura erabiltzerik ez duten pertsonei, Nafarroan bizi ez direnei, oinarrizko behar hori asetzeko adina baliabiderik ez dutenean.

**21. taula:** Tuterako Aterpetxearen erabilera datuak

| | 2005 | 2006 | 2007 |
|---|---|---|---|
| Ostatu-gauen kopurua | 1.703 | 1.554 | 1.782 |
| Aterpetxea erabili dutenen kopurua | 1.028 | 889 | 870 |

Iturriak: Toki Entitateentzako Koordinazio eta Lankidetza Zerbitzua.

**22. taula:** Altsasuko Aterpetxearen erabilera datuak

| | 2005 | 2006 | 2007 |
|---|---|---|---|
| Ostatu-gauen kopurua | 508 | 377 | 424 |

Iturriak: Toki Entitateentzako Koordinazio eta Lankidetza Zerbitzua.

**23. taula**: Iruñeko “Estalpean“ zerbitzuaren erabilera datuak

| | 2005 | 2006 | 2007 |
|---|---|---|---|
| Ostatu-gauen kopurua | 3.637 | 4.835 | 4.176 |

Iturria: “Ostatu alternatiboa” gaiari buruzko memoriak. Oinarrizko Laguntzaren Atalak egina.

**Babes gabeziako edo gatazka sozialeko egoeran edo horrela gertatzeko arriskuan dauden adingabeentzako arreta.**

Oinarrizko Arretako Gizarte Zerbitzuek edo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek eskumen hauek dituzte: haurren babes gabeziaren egoerak ikertu eta baloratzea, prebentzioko esku-hartzea babes gabeziaren arrisku egoeretan, adingabea familiarengandik bereiztea ez dakarten babes gabezia arin eta moderatuko kasuetako esku-hartzea, ikerketa eta balorazioa.

2007an, oinarrizko gizarte zerbitzuen 34 oinarrizko barrutitan zegoen ezarririk Haur eta Familien Arretarako Programa.

*Prebentzioa eta Sustapena*

Harrera eta Orientazio Sozialeko Programa, babes gabezia pairatzen duten edo horrela gertatzeko arriskuan dauden adingabeen eta haien familien behar sozialak atzemateko xedea duena, haien gabeziak, gaitasunak, ahalmenak eta lehentasunak kontuan hartuta, behar horiei hasierako erantzuna eman edo beste gizarte zerbitzu espezializatuetara bideratzeko.

Haur eta Familien Arretarako Programa, adingabekoei haien garapen pertsonalerako bide emanen dien ingurunea ziurtatzeko, babesa eta laguntza pertsonala, familiakoa eta soziala emateko tresnen bidez.

**24. taula:** Arreta emandako kasuen kopuruaren bilakaera.

| Kasu kopurua | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 |
|---|---|---|---|---|
| Aurrekoak | 803 | 784 | 1.035 | 1.440 |
| Berriak | 361 | 557 | 836 | 749 |
| **Kasuak, guztira** | **1.164** | **1.341** | **1.871** | **2.088** |
| BAJAK | 223 | 357 | 425 | 583 |
| Gelditzen diren kasuak abenduaren 31n | 941 | 984 | 1.446 | 1.244 |
| Gehikuntza (altak – bajak) | 138 | 200 | 411 | 166 |
| Gehikuntzaren % | %17,18 | %25,51 | %39,71 | %11.52 |

Iturria: Haur eta Familien Arretarako Programaren Memoriak. Oinarrizko Laguntzaren Atalak egina.

* Behin-behineko datuak, behin-behineko memoriaren zirriborroaren arabera

**Genero indarkeriaren biktima direnentzako arreta.**

Gaur egun, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen ekintzak gizartea sentsibilizatzera eta prebentziora bideraturik daude.

*Prebentzioa eta Sustapena*

Emakumeari Laguntzeko udal zerbitzuak: Udaletako gizarte zerbitzuak edo oinarrizkoak prebentzio, diagnostiko, informazio eta bideratze neurriak eta Foru Komunitatean ezartzen diren beste batzuk gauzatzeko laguntza ematen duen sarea dira. Horrez gain, zenbait udalek Emakumeari Laguntzeko Zerbitzua dute, lehentasunezko xedea, bakarra ez bada ere, sexu erasoak edo tratu txarrak jasandako emakumeei arreta berezia ematea dutenak.

GIZARTE ZERBITZU ESPEZIALIZATUEN ERANTZUNA

Lehen esan dugunez, gizarte zerbitzu espezializatuen hartzaileak populazioaren sektore jakin batzuk edo premia egoerak dira, espezializazio teknikoa edo esku hartzean zerbitzu batzuk eskura izatea eskatzen dutenak.

**Mendekotasuna duten pertsonentzako arreta.**

2006ko abenduaren 14an, adinekoei eta ezgaitasuna duten pertsonei arreta emateko funtsezkoak diren bi lege onetsi ziren. Lehendabizikoak, 39/2006 Legea, Autonomia Pertsonala sustatu eta mendekotasuna duten pertsonei arreta emateari buruzkoak, gizatalde horri Espainia osoan arreta emateko gutxieneko esparru bateratua ezarri zuen.

Arlo honetako eskumena autonomia erkidegoena denez, bigarrenak, Gizarte Zerbitzuei buruzko 15/2006 Foru Legeak, Nafarroako Foru Komunitatean mendekotasuna duten pertsonentzako arreta hartzen du bere esparruan; hortik aurrera, beraz, pertsona horiek, gizarte zerbitzuen hartzaile diren gainerako gizataldeek bezala, eskubide subjektibo perfektua izan dute, auzitegietan eska daitekeena alegia.

Kontuan hartuta muntako ekintzak jarri behar zirela abian, legegintzaldi honen hasieran betetako lehenengo jarduketetako bat Nafarroako Mendekotasun Agentzia sortzea izan zen, 2007ko irailean. Erakunde honek, Gizarte Gaien eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusiaren mende, arlo honetako kudeaketa eskumenak hartu ditu bere gain gizarte zerbitzu espezializatuei dagokienez.

Azken hogeita bost urteotan, Nafarroako Gizarte Zerbitzuen sistema publikoak plan eta programa sektorialen bidez eman die arreta mendekotasuna duten pertsonei, batez ere adinekoei eta ezgaitasuna duten pertsonei.

Gaur egun, Nafarroako Mendekotasun Agentziak III. eta I. graduko mendekotasuna duten pertsonek jasotzen duten arretaren inguruan ematen dituen datuak honela laburbil daitezke:

**Mendekotasun handia**ren balorazioa 2007ko urtarrilaren 1etik 2008ko abenduaren 31ra bitarte jaso dutenei zerbitzu hauen bidez eman zaie arreta: Etxeko Arreta Zerbitzua (%9,5), mendekotasuna duten pertsonak etxean gelditzeko eta haien zaintzaileei sostengua emateko laguntzak (%48), eguneko zentroetako zerbitzua, diru-laguntzekin osatua (%2,69) eta egoitzako zerbitzuarekin lotutako prestazio ekonomikoa; %16k baizik ez du jasotzen arreta egoitzetan, laguntza behar dutenentzako plazetan.

**Mendekotasun larria**ren balorazioa jaso dutenen kasuan, berriz, lehen aipatutako zerbitzu eta prestazioen eredu bera errepikatzen da, baina aldaketa nabarmenak daude arreta zentroetan jasotzen duten pertsonen portzentajeetan.

Ondoko bi grafikoetan ageri dira arreta portzentaje horiek, salbu eta Larrialdiko Telefono Zerbitzuarena, oso zabaldua eta prestazio guztiekin bateragarria dena, egoitzakoekin salbu.

**10. grafikoa:** Mendekotasun handiaren balorazioa jaso dutenei emandako arreta.




**11. grafikoa:** Mendekotasun larriaren balorazioa jaso dutenei emandako arreta.




Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia

Aztertutako epean, etxean gelditzeko laguntzarako 9.334 eskaera aurkeztu dira, Nafarroan 2007ko urtarrilean egin zen deialdiaren babesean. Eskaera horien %94,94 ebatzi da, eta 4.243 onetsi, hau da, %45,46. Gutxieneko laguntzetara 135 bideratu ziren (%1,4).

3.178 eskaera ukatu ziren. Horietatik %81, mendekotasun larria edo handia duen pertsona izatea deklaratzeko behar adina punturik ez izateagatik, laguntza horiek jasotzeko nahitaezko baldintzak.

**25. taula:** Gizarte zerbitzuen barrutietan arreta jaso duten pertsonen kopurua eta laguntza mota, 2007ko abenduan.

| Laguntza mota | Eremu geografikoa | Arreta jaso duten pertsonen kopurua |
|---|---|---|
| Familian zainketak jasotzeko prestazio ekonomikoa | Nafarroako ipar-mendebaldea | 427 |
| | Nafarroako ipar-ekialdea | 211 |
| | Lizarra | 679 |
| | Tafalla | 383 |
| | Tutera | 713 |
| | Iruña eta Iruñerria | 1.602 |
| | | |
| **GUZTIRA** | | **4.015** |
| Lehengo etxeko laguntza | Nafarroako ipar-mendebaldea | 155 |
| | Nafarroako ipar-ekialdea | 73 |
| | Lizarra | 331 |
| | Tafalla | 286 |
| | Tutera | 514 |
| | Iruña eta Iruñerria | 505 |
| **GUZTIRA** | | **1.864** |

Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia

**Adinekoentzako arreta**

Nafarroako Foru Komunitatean, 65 urtetik gorako pertsonen kopurua 105.720 da, hots, populazioaren %17,45; horietatik %30,52 adin handikoak dira (80 urte edo gehiago), hau da, Nafarroako populazio osoaren %5,32.

**26. taula:** Adineko pertsonak Gizarte Zerbitzuen barrutien arabera

| | **Populazio osoa** | **65 urtetik gorakoak** | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Gizarte Zerbitzuen barrutia | **(Nafarroa)** | **Kop.** | | **Kop.** | **% (populazio osoa)** | **% (65 urtetik gorako populazioa)** |
| Ipar-mendebaldea | 53.600 | 10.521 | %19,63 | 3.083 | %5,75 | %29,30 |
| Ipar-ekialdea | 20.581 | 5.136 | %24,96 | 1.866 | %9,07 | %36,33 |
| Lizarra | 70.768 | 15.415 | %21,78 | 5.075 | %7,17 | %32,92 |
| Tafalla | 45.127 | 9.438 | %20,91 | 3.050 | %6,76 | %32,32 |
| Tutera | 91.838 | 17.171 | %18,70 | 5.418 | %5,90 | %31,55 |
| IRUÑA ETA IRUÑERRIA | 323.962 | 48.039 | %14,83 | 13.769 | %4,25 | %28,66 |
| **NAFARROA** | **605.876** | **105.720** | **%17,45** | **32261** | **%5,32** | **%30,52** |

Iturria: Plangintza eta Azpiegituren Zerbitzua.

**2. mapa:** Adinekoen eta adin handikoen tasak Nafarroako eremu geografikoen arabera. 2007. urtea




### Adinekoen ezaugarriak

• Adineko populazioaren banaketa: Adinekoen tasarik handiena ipar-ekialdean dago (%24,96), eta txikiena Iruñean eta Iruñerrian (%14,83), baina azken honetan dago adinekoen kopuru handiena (48.039 adineko), erkidegoko 65 urtetik gorako bizilagunen %45.

• Bizikidetza egoera: adinekoak, gehienbat, beren seme-alabekin bizi dira (%42,61) edo bikotekidearekin (%27,11). Pixkanaka gora doa Nafarroan bakarrik bizi diren adinekoen portzentajea (%17,13 2001ean).

• Prekarietate ekonomikoa: Pertsona hauetako gehienen diru-sarrerak oso txikiak dira, batez ere jasotzen duten pentsio bakarra kotizaziorik gabekoa denean; aitzitik, egoera hobetu da alargun pentsioak jasotzen dituzten emakumeen kasuan, Nafarroako Gobernuaren osagarria jasotzen baitute Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren parekoa egiteko.

• Goi mailako prestakuntza dutenak gizatalde honetako gazteenak dira eta, beraz, haien beharrak, diru-sarrerak, eroste ahalmena, ondasun eta zerbitzuen eskaera, kalitate mailen eskakizuna etab. ez datoz beti bat eskaintzarekin.

• Eginkizun aktiboa gizartean: batez ere erretiratuen klubek eta elkarteek bultzatua, hainbat jarduera betetzeko: beste pertsona batzuk zaintzea, boluntario lana, aisialdia, turismoa, harreman sozialak, kirola etab.

**Diru-sarrerak bermatzea**

**27. taula:** Diru-sarrerak bermatzeko prestazioen bilakaera

| Prestazio mota | 2003 | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 |
|---|---|---|---|---|---|
| Kotizaziorik gabeko pentsioa | 2.650 | 2.462 | 2.390 | 2.253 | 2.170 |
| Pentsio asistentziala | 307 | 245 | 179 | 92 | 65 |
| Alargun pentsioaren osagarria | | | | 8.605 | 8.537 |

Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia. 2007.

*Prebentzioa eta Sustapena*

Larrialdietarako telefono zerbitzua: Prebentzio zerbitzua, pertsonei segurtasuna emateko, gerta daitezkeen larrialdiei behar diren baliabideak erabiliz erantzuteko.

2007an 6.303 pertsonari eman zien arreta (ezgaitasuna duten pertsonak barne), eta eskaera gora doala ikusten da.

Erretiratuen elkarte eta klubentzako diru-laguntzak: diru-laguntza hauen xedea da hirugarren adinekoen artean autonomia pertsonala sustatu eta mendekotasunari aurrea hartzeko programak gara daitezen bultzatzea, bai eta horiek betetzen dituzten entitateak elkartetan biltzea eta boluntarioen lan soziala sustatzea ere.

2007an, departamentuak 93.706 erretiratu eta pentsiodun ordezkatzen dituzten 240 klub eta elkarteri eman zien diru-laguntza.

**28. taula:** Onuradunen eta entitateen kopurua

| Hirugarren adinekoentzako diru-laguntzak | Arreta jaso duten pertsonen kopurua | Entitate kopurua | Gastua |
|---|---|---|---|
| Hirugarren adinekoen entitateak | 5.070 (*) | 8 | 396.660,85 |
| Klubak eta elkarteak | 93.706(*) | 240 | 1.206.009,87 |
| Boluntario lana | 34.426 (*) | 32 | 220.391,20 |
| Mendekotasunaren Prebentziorako tailerrak | 186 | 3 | |
| Zibergelak | 468 | 3 | |
| Gurutze Gorriaren baliabide zentroa | 1.273 | 1 | 30.000 |
| Esperientziaren Ikasgela | 50 | 1 | 42.640 |
| **GUZTIRA** | | **285** | **1.868.701,92** |

(*) Elkarteetako kide diren pertsonak. Iturria: Gizarte Gaietako Departamentuaren memoria. 2007

*Etxean edo/eta ingurunean gelditzea*

Mendekotasuna duten pertsonak etxean gelditu eta haien familia zaintzaileei sostengua emateko diru-laguntzak:

• 1.730 pertsonak jaso zuten laguntza hau 2007an.

Eguneko Arreta Zerbitzua:

**29. taula:** Eguneko arreta ematen duten zentro eta plaza kopurua eta estaldura

| 2007 | Eguneko zentroak | | Eguneko egonaldiak | | Plazak, guztira /Estaldura | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Barrutiak** | **Zentroak** | **Plazak** | **Zentroak** | **Plazak** | **Plazak** | **Estaldura** |
| Nafarroako ipar-mendebaldea | 1 | 22 | 1 | 10 | 32 | %0,30 |
| Nafarroako ipar-ekialdea | 0 | 0 | 2 | 20 | 20 | %0,38 |
| Lizarrako Barrutia | 1 | 15 | 4 | 41 | 56 | %0,36 |
| Tafallako Barrutia | 0 | 0 | 7 | 86 | 86 | %0,91 |
| Tuterako Barrutia | 1 | 18 | 7 | 77 | 95 | %0,55 |
| Iruña eta Iruñerria | 8 | 250 | 3 | 75 | 325 | %0,67 |
| **GUZTIRA** | **11** | **305** | **24** | **309** | **614** | **%0,58** |

Iturria: Iturria. Plangintza eta Azpiegituren Zerbitzua. 2008ko ekaina
(*) 2007ko biztanleen erroldako datuekin.

**30. taula:** Eguneko zentroetako plaza itunduen kopurua, gizarte zerbitzuen barrutien arabera.

| 2007 | Zentro kopurua | Plaza kopurua |
|---|---|---|
| Iruña eta Iruñerria | 3 | 76 |
| Tutera | 1 | 15 |
| GUZTIRA | 4 | 91 |

Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia. 2007.

Aldi baterako egonaldien zerbitzua egoitzetan:

**31. taula:** Aldi baterako egonaldietako pertsona kopuruaren bilakaera

| | 2003 | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 |
|---|---|---|---|---|---|
| Arreta jaso duten pertsonen kopurua | 190 | 179 | 175 | 170 | 194 |
| Egonaldiaren iraupena (egunak, batez beste) | 40,77 | 50,31 | 29,15 | | 41,76 |

Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia. 2007.

Laguntzarekiko garraio egokituaren zerbitzua:

2007. urtera arte zerbitzu hau 65 urtetik gorako pertsonek eta ezgaitasuna dutenek erabiltzen zuten; beraz, erabilera datuak bienak direnez eta ezgaitasuna duten pertsonentzako arretari buruzko atalean jaso direnez, ez ditugu berriz hona ekarriko.

Jantoki zerbitzurako laguntza ekonomikoa: osagarri ekonomikoa, adinekoek menu orekatua izan dezaten, prezio onean.

- 75 pertsonak jaso zuten laguntza hau 2007an.

Etxebizitzarako eta mugitzeko laguntza bereziak: adinekoa bere ohiko ingurunetik mugitu beharrik ez izateko, etxebizitzako irisgarritasuna eta mugimenduak erraztuz edo haren egoera fisiko-sanitarioa hobetuz.

• 664 pertsonak jaso zuten laguntza hau 2007an.

*Egoitzako arreta*

Egoitzako arreta zerbitzua eta egoitzako arreta zerbitzua zentro psikogeriatrikoan.

**32. taula:** Egoitzetako plazak, barrutien arabera, eta estaldura

| | Laguntza behar dutenentzako plazak | Baliatzen direnentzako plazak | Plaza mistoak | Plaza psikogeria-trikoak | Guztira plazak | Estaldura |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Nafarroako ipar-mendebaldea | | | 376 | 80 | 456 | %4,33 |
| Nafarroako ipar-ekialdea | | 18 | 330 | 30 | 378 | %7,35 |
| Lizarrako Barrutia | 299 | | 639 | | 938 | %6,07 |
| Tafallako Barrutia | | | 695 | | 695 | %7,37 |
| Tuterako Barrutia | | | 839 | | 839 | %4,88 |
| Iruña eta Iruñerria | 877 | 50 | 1.147 | 230 | 2.304 | %4,79 |
| **GUZTIRA** | **1.176** | **68** | **4.026** | **340** | **5.610** | **%5,30** |

Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia. 2007.

**33. taula:** Egoitzetako plaza itunduen kopurua, gizarte zerbitzuen barrutien arabera.

| 2007 | Zentro kopurua | Plaza kopurua |
|---|---|---|
| Nafarroako ipar-mendebaldea | 2 | 80 |
| Nafarroako ipar-ekialdea | 1 | 20 |
| Lizarrako Barrutia | 2 | 210 |
| Tafallako Barrutia | 3 | 85 |
| Tuterako Barrutia | 2 | 129 |
| Iruña eta Iruñerria | 6 | 359 |
| **GUZTIRA** | **16** | **883** |

Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia. 2007.

Egoitzako zerbitzuarekin lotutako prestazioa:

• 872 pertsonak jaso zituzten laguntza hauek 2007an; horietatik 548 mendekotasuna zuten pertsonak ziren eta 324 mendekotasunik ez zutenak.

**Ezgaitasuna duten pertsonentzako arreta**

Diziplina anitzeko talde batek balorazioa eginda, %33ko elbarritasunaren edo handiagoaren kalifikazioa eskuratzen duten pertsonen kopurua jakiteko tresna bakarra elbarritasun gradua aitortzeko erregistroa dugu. Horren arabera, 2007an 31.878 pertsonak zuten ezgaitasuna, hau da, Nafarroako populazioaren %5,26k. Baloratutakoen artean, 18.066 65 urtetik beherakoak ziren. Hauek dira horien ezaugarri nagusietako batzuk:

• 65 urtetik beherako pertsonen %3,61ek ezgaitasunen bat du.

• Ezgaitasuna duten pertsonen %67,33k %33tik %64ra bitarteko elbarritasuna du.

• Elbarritasunaren ziurtagiria duten pertsonen %16,52k gradu larriena du, %75ekoa edo handiagoa alegia.

• Ezgaitasun fisikoa besteen gainetik dago (%59,32). Erreferentziako populazioaren %15,09k zentzumeneko ezgaitasuna du, %11,02k adimeneko ezgaitasuna eta %14,57k buru-eritasunak eragindako ezgaitasuna.

*Diru-sarrerak bermatzea:*

**34. taula:** %33ko elbarritasuna edo hortik gorakoa aitortua duten pertsonak, adinaren arabera

| Adina: | Kopurua | % |
|---|---|---|
| 0-18 | 1.219 | 3,82 |
| 19-30 | 1.748 | 5,48 |
| 31-45 | 4.787 | 15,01 |
| 46-65 | 10.312 | 32,34 |
| 66-75 | 6.225 | 19,52 |
| 75etik gora | 7.587 | 23,80 |
| **Guztira** | **31.878** | **%100** |

Iturria. Gizarte Gaietako Departamentuaren memoria. 2007

**35. taula:** Elbarritasuna aitortua duten pertsonak, elbarritasun graduaren arabera

| Elbarritasun gradua | Pertsona kopurua | % |
|---|---|---|
| %33tik %45era bitarteko elbarritasun-kalifikazioa | 12..734 | 39,94 |
| %46tik %65era bitarteko elbarritasun-kalifikazioa | 8.734 | 27,39 |
| %46tik %75era bitarteko elbarritasun-kalifikazioa | 4.965 | 15,57 |
| %75etik gorako elbarritasun-kalifikazioa | 5.268 | 16,52 |
| Epai irmoaren bidez | 177 | %0,58 |
| **Guztira** | **31.878** | **%100** |

Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia. 2007.

**36. taula:** %33ko elbarritasuna edo hortik gorakoa duten pertsonak, elbarritasun motaren arabera

| Elbarritasun mota | Pertsona kopurua | % |
|---|---|---|
| Zentzumenetakoa | 4.813 | 15,09 |
| Psikikoa, adimen-atzerapenagatik | 3.513 | 11,02 |
| Psikikoa, buru-eritasunagatik | 4.643 | 14,57 |
| Fisikoa | 18.909 | 59,32 |
| **Guztira** | **31.878** | **100%** |

Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia. 2007.

Atal honetan sartutako prestazio ekonomikoak aldizkakoak dira eta haien xedea da ezgaitasuna duten pertsonei gutxieneko diru-sarrerak bermatzea oinarrizko beharrei erantzuten laguntzeko.

**37. taula:** Ezgaitasuna duten eta prestazioak jasotzen dituzten pertsonen kopuruaren bilakaera

| Prestazio mota | 2003 | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 |
|---|---|---|---|---|---|
| Kotizaziorik gabeko pentsioa | 1.137 | 1.100 | 1.119 | 1.084 | 1.074 |
| Elbarriak Gizarteratzeko Legea | 687 | 618 | 531 | 467 | 390 |
| Pentsio asistentzialak | | | | | 30 |
| Aldizkako laguntza ekonomikoa | 154 | 162 | 122 | 122 | 113 |
| **Guztira** | **1.978** | **1.880** | **1.772** | **1.673** | **1.607** |

Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia

*Prebentzioa eta sustapena:*

Laguntza Goiztiarraren Zerbitzua: Estimulazio eta errehabilitazio integraleko programak ematen dituen zerbitzua, mugimendu, zentzumen, ezagutza eta komunikazio garapeneko arazoak dituzten edo edukitzeko arriskua duten 0tik 3 urtera bitarteko haurrek dituzten beharrei, aldi baterako izan nahiz iraunkorrak izan, haien familiei eta hurbileko inguruneari erantzuna emateko.

Zerbitzu hau Iruña, Tutera, Lizarra, Tafalla, Zangoza, Doneztebe eta Altsasun ematen da.

**38. taula.** Arreta Goiztiarreko Programa Nafarroan.

| | 2005 | 2006 | 2007 |
|---|---|---|---|
| Arreta jaso duten pertsonen kopurua | 205 | 207 | 268 |

Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia. 2007.

Zentro okupazionalak: Zerbitzu honen bitartez, ezgaitasuna eta nolabaiteko autonomia duten pertsonei, merkatuko lan jarduera batean, dela enplegu zentro berezia dela ohiko enpresa bat, hasterik ez dutenei, jarduera okupazionaleko eta egokitze pertsonal eta sozialeko programak eskaintzen zaizkie, ahal den garapen pertsonal eta sozial handiena lortzeko, manipulaziorako trebetasunak eta lanerako habilitaziokoak eta gaitzekoak bereganatzeko, bai eta, beharrezkoa bada, laneratzekoak ere.

Ondoko taulan zentro okupazionaleko plaza kopurua, unitate okupazional berezietako plaza kopurua eta horiek kudeatzen dituzten entitateak ageri dira. Plaza gehienak (536) adimeneko ezgaitasuna duten pertsonentzat dira.

**39. taula:** Plaza kopurua Nafarroako zentro okupazionaletan

| Entitatea | Ezgaitasun mota | Zentro kopurua | Plaza kopurua |
|---|---|---|---|
| Tasubinsa | Adimenekoa | 14 | 490 |
| Fundación Ciganda Ferrer | Adimenekoa | 1 | 40 |
| Okile | Adimenekoa | 1 | 6 |
| Uxane | Fisiko-neurologikoa | 1 | 20 |
| **Guztira** | | **18** | **556** |

Iturria. Ikuskapen eta Kalitate Zerbitzua. 2008ko ekaina

*Diru-laguntzak:*

Diru-laguntzetan honakoak bereizi behar dira:

Prestazio ekonomikoak, ezgaitasuna duten pertsonei Gizarte Gaietako Departamentuarekin itunik ez duten zentro okupazional eta asistentzialetan arreta ematen dieten irabazi asmorik gabeko entitateentzat.

**40. taula:** Zentro okupazionalentzako diru-laguntza

| Zentro okupazionalak | Diru-laguntza osotara |
|---|---|
| Fundación Ciganda Ferrer | 66.360,00 |
| Okile | 6.500,00 |
| Tasubinsa | 3.191.712,00 |
| Elkarkide | 822.099,00 |
| Tasubinsa Elkarkide AEE | 135.000,00 |
| Uxane | 115.627,00 |
| **Guztira** | **4.337.297,00** |

Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia. 2007.

**41. taula:** Egoitzako arretarako eta arreta asistentzialerako diru-laguntza

| Zentro asistentzialen entitateak | Diru-laguntza osotara |
|---|---|
| Adacen | 107.021,00 |
| Residencia Javier | 792.000,00 |
| Anfas | 611.017,00 |
| **Guztira** | **1.510.038,00** |

Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia. 2007.

Ezgaitasuna duten pertsonek gizartean parte hartzea bultzatzeko jarduera sozialak (jostetakoak, nork bere buruari laguntzekoak, prestakuntzakoak, aisiakoak, denbora librekoak eta informaziokoak) betetzen dituzten irabazi asmorik gabeko entitateentzako prestazio ekonomikoak.

**42. taula:** Departamentuak 2007an finantzatutako entitateak edo elkarteak

| | Entitate kopurua | Diru-laguntza osotara |
|---|---|---|
| Sustapena eta elkartetan biltzea | 19 | 965.105,43 |
| Programak gauzatzea | 26 | 862.064,70 |
| Ekipamendu txikiak | 18 | 25.000,00 |
| Oporretako programa | 7 | 214.060,96 |
| Lankidetza hitzarmenak (zentro okupazionalak eta egoitzako arretarako zentroak kenduta) | 4 | 569.564,50 |
| Inbertsioak | 12 | 80.000,00 |
| **Guztira** | **38** | **2.715.795,60** |

Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia. 2007.

*Etxean edo/eta ingurunean gelditzea:*

Ezgaitasuna duten pertsonak etxean edo/eta ingurunean gelditzen laguntzeko baliabideak hauek dira:

Etxean edo/eta ingurunean gelditzeko diru-laguntza: eguneroko bizitzaren oinarrizko jarduerak etxean betetzeko behar diren zainketak eskuratzeko.

• 134 pertsonak jaso zuten laguntza hau 2007an.

Eguneko Arreta Zentroak (eguneko zentroak eta eguneko egonaldiak): Gure erkidegoan, ezgaitasuna duten pertsonentzako eguneko arreta zentro guztiak itunduak dira.

**43. taula:** Ezgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroetako plazak Nafarroan.

| Zentroak | Herria | Ezgaitasun mota | Plaza kopurua |
|---|---|---|---|
| Ramon y Cajal | Zizur Txikia | Fisiko-neurologikoa | 90 |
| Infanta Elena | Iruña | Fisiko-neurologikoa | 12 |
| Adacen | Mutiloabeiti | Fisiko-neurologikoa | 40 |
| Monjardin | Iruña | Adimenekoa | 35 |
| Oncineda | Lizarra | Adimenekoa | 5 |
| Santa María | Burlata | Adimenekoa | 10 |
| Erronkari ibarra | Iruña | Adimenekoa | 10 |
| La Atalaya | Tutera | Adimenekoa | 16 |
| **Guztira** | | | **218** |

Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia. 2007

Egoitzetako aldi baterako egonaldiak: aldi mugatu baterako emandako zerbitzua, behar pertsonal oinarrizkoak, terapeutikoak, errehabilitaziokoak eta soziokulturalak asetzeko arreta integrala emateko, eta ohiko ingurunetik ez mugitzeko erraztasunak eman eta zaintzaileei laguntzeko.

• 42 pertsonak egin zituzten aldi baterako egonaldiak 2007an.

Laguntzarekiko garraio egokituaren zerbitzua: Garraio egokitua eta/edo laguntza pertsonalekikoa eskaintzen duen zerbitzua, zerbitzu eta programa bermatuetara joatea errazteko, egoitza zerbitzuetara kenduta.

• 308 pertsonak erabili zuten zerbitzu hau 2007an.

Ezgaitasuna duten pertsonentzako laguntza bereziak: Laguntza ekonomikoa, mugimenduak eta irisgarritasuna errazteko eta komunikazio oztopoak kentzen laguntzeko, ezgaitasunak eraginda-koak badira.

• 174 pertsonak jaso zituzten laguntza hauek 2007an.

**44. taula:** 2007. urtean ordaindutako laguntza berezien kontzeptua eta kopurua

| Kontzeptua | 2006 | 2007 |
|---|---|---|
| Laguntza teknikoak | 194 | 144 |
| Ibilgailua erosi eta/edo egokitzeko laguntzak | 23 | 30 |
| **Guztira** | 217 | 174 |

Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia. 2007

*Egoitzako arreta:*

Egoitzak

**45. taula:** Egoitzetako plazak ezgaitasuna duten pertsonentzat, Nafarroan.

| Zentroak | Herria | Ezgaitasun mota | Plaza kopurua |
|---|---|---|---|
| San Jose | Iruña | Adimenekoa | 80 |
| Oncineda | Lizarra | Adimenekoa | 61 |
| Santa María | Iruña | Adimenekoa | 29 |
| Erronkari ibarra | Iruña | Adimenekoa | 120 |
| La Atalaya | Tutera | Adimenekoa | 26 |
| HH Esclavas de la Virgen Dolorosa. Residencia S. Fco. Javier[1] | Elkano | Adimenekoa | 65 |
| Infanta Elena | Iruña | Fisiko-neurologikoa | 70 |
| Ramon y Cajal | Iruña | Fisiko-neurologikoa | 30 |
| Carmen Aldave | Iruña | Fisiko-neurologikoa | 40 |
| Adacen[2] | Mutiloa | Fisiko-neurologikoa | 17 |
| **Guztira** | | | **538** |

Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia. 2007

*(1) Diruz lagundua.*
*(2) Diruz lagundua.*

Kanpoko zentroetako egonaldietarako laguntzak (zerbitzuarekin lotutako prestazio ekonomikoa)

• 83 pertsonak jaso zuten laguntza hau 2007an.

Etxebizitza funtzionalak edo/eta tutoretzapekoak

**46. taula:** Etxebizitza funtzionaletako plaza kopurua Nafarroan

| Etxebizitza funtzionalak | Herria | Ezgaitasun mota | Plaza kopurua |
|---|---|---|---|
| Lur Gorri | Barañain | Adimenekoa | 11 |
| Las Torchas | Lizarra | Adimenekoa | 12 |
| Mendebaldea | Iruña | Adimenekoa | 14 |
| Vencerol | Tutera | Adimenekoa | 18 |
| Anfas tutoretzapeko etxebizitza | Tafalla | Adimenekoa | 11 |
| Anfas etxebizitza funtzionala | Barañain | Adimenekoa | 4 |
| Anfas etxebizitza funtzionala | Zangoza | Adimenekoa | 12 |
| Maddi tutoretzapeko etxebizitza | Bera | Fisikoa | 16 |
| **Guztira** | | | **98** |

Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia. 2007

Ondotik ematen dira ezgaitasuna duten pertsonentzako zerbitzu nagusien estaldura indizeak, kontuan hartuta elbarritasuna aitortua duten pertsonak, 65 urtetik beherakoak, 18.066 direla.

**47. taula:** Nafarroan erdietsi diren estaldurak Gizarte Zerbitzuen sistemak ezgaitasuna duten pertsonen beharrei emandako erantzunean, 2007an

| Zentroak eta zerbitzuak | Plaza kopurua (*) | Estaldura |
|---|---|---|
| Zentro okupazionalak | 566 | %3,13 |
| Eguneroko eguneko arreta zentroak | 228 | %1,26 |
| Etxebizitza funtzionalak | 106 | %0,58 |
| Egoitzetako plazak | 542 | %3,02 |

Ez dira kontuan hartzen Buru-Nahaste Larriko Programari atxikitako plazak
Iturria: Plangintza eta Azpiegituren Zerbitzua.

**Buru-eritasuna duten pertsonentzako arreta.**

Gizarte Zerbitzuetan Buru-nahaste larria duten pertsonen arretarako programa 2005eko urtarrilaren 24an onetsi zuen Nafarroako Gobernuak.

Programa honen xedea da Buru-nahaste Larria (aurrerantzean BL) diagnostikatua duten pertsonei arreta ematea, honakoei alegia: "nahaste psikiatriko larriak jasaten dituzten pertsona heterogeneoen multzoa; iraupen luzeko buru-alterazioak dituzte, ezgaitasun eta disfuntzio sozial maila desberdinekin batera, eta arreta jaso behar izaten dute arreta psikiatriko eta sozialeko zenbait baliabidetan, osasun arlokoetan nahiz sozialekoetan" (3).

*(3) Buru-nahaste Larria (BL) programaren definizioa.*

*Prebentzioa eta sustapena:*

Errehabilitazio psikosozialeko zerbitzua: zerbitzu anbulatorioa, errehabilitazio psikosozialeko zentro batean emana, egunez arreta ematen duena behar terapeutikoak, errehabilitaziokoak eta sostengukoak asetzeko, gizarteratzen lagundu eta funtzionamendu psikosoziala hobetzeko ahalik eta baldintza normalizatuenetan.

**48. taula.** Erabiltzaileen kopuruaren bilakaera

| | 2006 | 2007 |
|---|---|---|
| Erabiltzaile kopurua | 121 | 90 |

Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia. 2007

Gure erkidegoan zerbitzu hauek itunduak dira.

Zentro okupazionalaren zerbitzua:

**49. taula:** Buru-nahaste larrietarako zentro okupazionalen eta haietan dauden plazen kopurua

| Zentro okupazionalak | Herria | Plaza kopurua |
|---|---|---|
| Aranzadi | Iruña | 50 |
| Lizardi | Iruña | 80 |
| **Guztira** | | **130** |

Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia. 2007.

Gure erkidegoan zerbitzu hauek Nafarroako Mendekotasun Agentziak diruz lagunduak dira.

Esku-hartze soziokomunitarioaren zerbitzua: arreta komunitatean ematen duen zerbitzua, akonpainamendu sozialaz baliatuz familia eta gizarte ingurunean lan egiten duten lanbide anitzeko taldeen bitartez, gaixoek eritasunaren ondorioz murriztu edo galduak dituzten gaitasunetan trebatzeko, baita integrazio soziokomunitarioa erraztu eta zaintzaileei laguntza emateko ere.

Gure erkidegoan zerbitzu honek Nafarroako Mendekotasun Agentziaren diru-laguntza jasotzen du.

**50. taula:** Esku-hartze soziokomunitarioko zerbitzuan arreta jaso duten erabiltzaileak, Gizarte Zerbitzuen Barrutien arabera.

| Herria | Arreta jaso duten pertsonen kopurua |
|---|---|
| Iruña | 75 |
| Tutera | 25 |
| Doneztebe | 11 |
| Tafalla | 4 |
| Lizarra | 12 |
| **Guztira** | **127** |

Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia. 2007

*Etxean edo/eta ingurunean gelditzea*

Eguneko Arreta Zerbitzua (eguneko zentroak eta eguneko egonaldiak)

**51. taula.** Erabiltzaileen kopuruaren bilakaera

| | 2006 | 2007 |
|---|---|---|
| Erabiltzaile kopurua | 130 | 100 |

Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia. 2007

Ostatua apopilo edo pentsioetan hartzeko diru-laguntza: buru-nahaste larria izanik, autonomia ona eta bizimodu oso independentea duten pertsonei diru-laguntza ematea, ostatuaren kostua ordaindu eta oinarrizko beharrei erantzuteko.

**52. taula:** Erabiltzaileen kopuruaren bilakaera

| | 2006 | 2007 |
|---|---|---|
| Erabiltzaile kopurua | 56 | 73 |

Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia. 2007

*Egoitzako arreta*

Buru-eritasuna dutenentzako laguntzarekiko egoitza (BLE): egoitzan emandako zerbitzuak, buru-nahaste larria eta autonomia pertsonala eta soziala oso kaltetua duten pertsonei, familia-laguntza egokirik gabekoei, arreta integrala ematen diena oinarrizko beharretarako, behar terapeutikoetarako, errehabilitaziorako eta behar soziokulturaletarako, bai eta kontrol mediko eta farmakologikorako ere.

**53. taula:** Laguntzarekiko egoitzen eta haietako plazen kopurua

| Laguntzarekiko egoitza | Herria | Plaza kopurua |
|---|---|---|
| Benito Menni | Elizondo | 40 |
| Padre Menni | Iruña | 42 |
| San Frantzisko Xabierkoa zentro psikogeriatrikoa | Iruña | 18 |
| **Guztira** | | **100** |

Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia. 2007.

Buru-eritasuna duten pertsonentzako tutoretzapeko etxebizitza: zerbitzu hauen bitartez, buru-nahaste larria duten pertsonei, familia-laguntza egokirik gabekoei, etxebizitza ematen zaie, non harremanen eta bizikidetzaren dinamika familiakoaren antzekoa baita, bai eta arreta integrala ere, autonomia pertsonalari eutsi edo hobetzeko oinarrizko beharrei eta behar soziosanitarioei erantzuteko, eta gizarteratzea eta parte-hartze soziala errazteko.

**54. taula:** Buru-eritasuna dutenentzako tutoretzapeko etxebizitzak, herriak, entitate kudeatzaileak eta plaza kopurua zehaztuta

| Tutoretzapeko etxebizitza | Herria | Entitatea kudeatzailea | Plaza kopurua |
|---|---|---|---|
| Sarries | Iruña | Ahizpa Ospitalekoak | 4 |
| Pedro Ursúa. | Iruña | Ahizpa Ospitalekoak | 4 |
| Gipuzkoako etorbidea | Iruña | Ahizpa Ospitalekoak | 6 |
| **Guztira** | | | **14** |

Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia. 2007.

Buru-eritasuna duten pertsonentzako etxebizitza gainbegiratuak: zerbitzu hau buru-nahaste larria duten zenbait pertsona autonomo, familia-laguntza egokirik gabekoak, batera bizi diren etxebizitza normalizatuan ematen da, familiakoaren antzekoa den dinamikarekin harremanetan eta bizikidetzan.

**55. taula:** Etxebizitza gainbegiratuko plazen eskaintza

| Etxebizitza gainbegiratua | Herria | Entitatea kudeatzailea | Plaza kopurua |
|---|---|---|---|
| | Tutera | AVANVIDA | 4 |

Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia. 2007.

**56. taula:** Nafarroan buru-nahaste larriaren programak kudeatzen dituen zentroak eta plazak

| Zentro mota | Herria | Zentro kopurua | Plazak |
|---|---|---|---|
| Errehabilitazio psikosozialeko zentroak (*) | Iruña<br>Tutera<br>Lizarra<br>Elizondo | 4 | E.P.P. 125<br>E.Z. 105<br><br>230 |
| BLE egoitzak | Elizondo<br>Iruña | 2 | 112 |
| Etxebizitza gainbegiratua | Tutera | 1 | 4 |
| Tutoretzapeko etxebizitza | Iruña | 3 | 14 |
| Zentro okupazionalak | Iruña<br>Tutera | 3 | 160 |

Iturria. Plangintza eta Azpiegituren Zerbitzua. 2008ko ekaina
(*) Eguneko zentroko plazak eta errehabilitazio psikosozialeko programetakoak barne.

**Tabla 57:** Buru-nahaste larria dutenentzako plazen okupazioaren bilakaera

| | | | 2005 (*) | 2006 | 2007 |
|---|---|---|---|---|---|
| 65 URTETIK BEHERAKOAK | EPP Programak | Arga (Iruña) | %57,14 | %97,14 | %100 |
| | | Queiles (Tutera) | %14,29 | %49,05 | %49 |
| | | Ordoiz (Lizarra) | %22,86 | %59,35 | %60 |
| | | Elizondo | 0 | %10 | %7 |
| | EPP Eguneko zentroa | Arga (Iruña) | %30 | %95,83 | %100 |
| | | Queiles (Tutera) | %23,33 | %67,92 | %84 |
| | | Ordoiz (Lizarra) | %16,67 | %37,50 | %54 |
| | | Elizondo | %26,67 | %43,33 | %38 |
| | Etxebizitza gainbegiratua | Tutera | | %75 | %79% |
| | Tutoretzapeko etxebizitzak | Sarriés (Gizonak) | %100 | %100 | %100 |
| | | Ursúa (Gizonak) | %100 | %100 | %100 |
| | | Gipuzkoa (Emakumeak) | %100 | %100 | %100 |
| | BLE | Padre Menni (Iruña) | %100 | %100 | %100 |
| | | Benito Menni (Elizondo) | %100 | %100 | %100 |
| | | San Frco. Javier | %100 | %100 | %100 |

Iturria. Plangintza eta Azpiegituren zerbitzua. 2008ko ekaina
(*) Programa 2005eko azaroan hasi zen.

Gaur egun, Buru-nahaste Larriaren Programan arreta hartu beharreko pertsonak 3.952 dira, Adimen Osasuneko Zuzendariordetzaren datuen arabera.

Populazio hori abiapuntutzat harturik, lortutako estaldura hau da:

**58. taula:** Buru-nahaste Larriaren Programako baliabideen estaldurak.

| Buru-nahaste Larriaren Programako zentroak eta zerbitzuak | Plaza kopurua | Estaldura |
|---|---|---|
| Errehabilitazio psikosozialeko zentroetako plazak | 125 | %3,16 |
| Zentro okupazionala | 160 | %4,04 |
| Eguneroko eguneko arreta zentroetako plazak | 105 | %2,65 |
| Buru-nahaste larriaren programari atxikitako etxebizitzetako plazak | 18 | %0,45 |
| Egoitzetako plazak | 112 | %2,83 |

Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia. 2007.

**Bazterturik edo horrela gertatzeko arriskuan dauden pertsonak.**

Bazterketa soziala alderdi anitzeko fenomenoa da, txirotasunaren ohiko kontzeptutik bereizi beharrekoa. Pobrezia baliabide ekonomikoen faltarekin loturik dago eta bazterketaren kontzeptuak, berriz, beste zenbait aldagai kontuan hartzea dakar, hala nola hezkuntza, lana, osasun zerbitzuak, etxebizitza izateko zailtasunak eta familia eta gizarte loturei eusteko arazoak. Zentzu horretan, bazterketa soziala aldagai horietan guztietan (edo ia guztietan) gabeziak pilatzea da, eta horrek familiako loturak eta lotura sozialak haustea eragiten du, eskubide sozialak galtzea eta, azken batean, berdintasun eza.

Sektore horren barruan ez dugu ahantzi behar azken 10 urteotan immigrazioaren fenomenoa zabaldu dela. Horren ondorioz, gizatalde horretako kide asko, ahulagoak baitira, prestazio sozialak jasotzen hasi dira, bai gainerako bizilagunekin erabiltzen diren irizpideekin bai salbuespenezko neurri gisa.

*Gutxieneko diru-sarrerak bermatzea*

Pobreziaren arriskua gizartean bazterturik gelditzeko faktore nagusietako bat da merkatuko gizarte batean. Gainera, gizarte zerbitzuen esparruko erantzukizuna da enplegutik edo diru-sarrerak bermatzeko kotizazio sistematik behar adina jasotzen ez dutenei errentak bermatzea.

*Oinarrizko errenta*: familia unitatearen diru-sarreren osagarria eta subsidiarioa den diru-laguntza, diru baliabiderik ez duten etxeetako oinarrizko beharrak ase eta bazterturik dauden pertsonak gizarteratzea sustatzeko.

**59. taula:** Oinarrizko Errentaren bilakaera

| | 2003 | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 |
|---|---|---|---|---|---|
| Onarturiko eskaerak | 3.164 | 3.695 | 2.905 | 2.938 | 3.285 |
| Ukatutako eskaerak | 428 | 414 | 486 | 592 | 896 |
| Prozesuan dauden eskaerak | | 74 | 191 | 183 | |
| **Guztira** | **3.592** | **4.183** | **3.582** | **3.713** | **4.181** |

Iturria: Gizarteratze Zerbitzua, 2007.

**60. taula:** Oinarrizko Errentarako erreferentziako adierazlearen bilakaera

| | 2003 | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Zerga-oinarria.** | **LGS*** | **LGS*** | **OAEAP*** | **OAEAP*** | **LGS*** |
| % | %80 | %80 | %80 | %80 | %80 |
| Pertsona baten oinarrizko errentaren zenbatekoa | 360,96 | 368,40 | 375,84 | 383,28 | 456,48 |
| Batez besteko zenbatekoa | | 364,62 | 366,42 | 377,48 | 441,81 |
| **Betetakoa, guztira** | **5.263.788,43** | **6.109.221,63** | **5.727.888,62** | **5.194.416,84** | **6.427.885,** |

Iturria: Gizarte Gaietako Departamentuaren memoria. 2007, egileek prestatua.

*Prebentzioa eta Sustapena*

Gizarteratze eta laneratze taldeak (GLT): oinarrizko gizarte zerbitzuei eta haietako gizarteratze programari laguntza emateko diziplina anitzeko taldeak, ingurunean esku hartzen dutenak, zeinaren xedea baita gizarteratu eta laneratzeko arazoak dituzten pertsonen lan aukerak hobetzea, enplegu normalizatua edo babestua lortzen laguntzeko, banakako ibilbideak eta akonpainamendu soziala eginez.

**61. taula:** Gizarteratze Taldeetan arreta jaso duten erabiltzaileak, barrutien arabera

| | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 |
|---|---|---|---|---|
| **LIZARRA** | | | | |
| Arreta jaso duten pertsonen kopurua | **32** | **83** | **87** | **97** |
| Gizonezkoak | 17 | 37 | 41 | 44 |
| Emakumezkoak | 15 | 46 | 46 | 53 |
| **TAFALLA** | | | | |
| Arreta jaso duten pertsonen kopurua | | | **13** | **69** |
| Gizonezkoak | | | 3 | 40 |
| Emakumezkoak | | | 10 | 29 |
| **TUTERA** | | | | |
| Erabiltzaileak | | | | **26** |
| Gizonezkoak | | | | 9 |
| Emakumezkoak | | | | 17 |
| **GUZTIRA** | **32** | **83** | **100** | **192** |

Iturria. Gizarte Gaietako Departamentuaren memoria. 2007, egileek prestatua.

Gizarte enplegu babestua: interes kolektiboko eta irabazi-asmorik gabeko proiektuak, gizartean bazterturik dauden pertsonak aldi baterako kontratatzeko, gizarteratzeko aukerak enplegu normalizatuaren bidez hobetzen dituzten ohitura eta trebetasunak ikas ditzaten laguntzeko xedearekin.

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak diru-laguntzak ematen dizkie toki entitateei edo gizarte ekimeneko eta irabazi asmorik gabeko entitateei gizarte enplegu babesturako.

**62. taula:** Gizarte Enplegu Babestuaren Programaren bilakaera

| **Gizarte enplegu babestua** | **2003** | **2004** | **2005** | **2006** | **2007** |
|---|---|---|---|---|---|
| Diruz lagundutako entitateen kopurua | 33 | 36 | 36 | 36 | 41 |
| Plaza kopurua | 367 | 372 | 368 | 381 | 339 |
| Enplegatutako pertsonen kopurua | 734 | 746 | 736 | 762 | 679 |

Iturria: Gizarte Gaietako Departamentuaren memoria. 2007, egileek prestatua

Enpresetan laneratzeko laguntza diru-laguntza, enpresa publikoek, pribatuek edo toki entitateek gizartean bazterturik dauden pertsonak kontrata ditzaten –lan-kontratuak, aldi baterakoak edo mugagabeak-, pertsona horiek lan munduan sartu eta gizarteratzen laguntzeko.

**63. taula:** Laneratzeko laguntzen bilakaera

| | 2003 | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 |
|---|---|---|---|---|---|
| Emandako laguntzen kopurua | 42 | 43 | 35 | 24 | 27 |
| Diru-laguntza berriak | | 38 | 32 | 8 | 14 |
| Pertsonak, guztira | 32 | 32 | 26 | 23 | 22 |
| Kontratuaren batez besteko iraupena | 9 hilabete | 9,47 hilabete | 9,56 hilabete | 8,30 hilabete | 8,46 hilabete |
| **Eskaeren kopurua, entitateen arabera** | | | | | |
| Publikoak | 7 | 11 | 19 | 17 | 8 |
| Pribatuak | 9 | 8 | 2 | 4 | 3 |
| **GUZTIRA** | 16 | 19 | 21 | 21 | 11 |

Iturria: Gizarte Gaietako Departamentuaren memoria. 2007, egileek prestatua.

Banakako lan-proiektuetarako laguntzak: diru-laguntza, gizartean bazterturik eta enplegu normalizatua eskuratzeko arazoak dituzten pertsonentzat, banakako lan-proiektuak, araubide autonomokoak, sortu eta sendotzen laguntzeko, lan munduan sartu eta gizarteratzea errazteko.

**64. taula:** Banakako lan-proiektuetarako laguntzen bilakaera.

| | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 |
|---|---|---|---|---|
| Eskaera kopurua | 3 | 1 | 3 | 0 |
| Emandako laguntzen kopurua | 1 | 0 | 2 | 0 |
| Ukatutako eskaeren kopurua | 0 | 1 | 1 | 0 |
| Ezetsitako eskaeren kopurua | 2 | 0 | 0 | 0 |

Iturria: Gizarte Gaietako Departamentuaren memoria. 2007, egileek prestatua.

Acceder Programa: Ijitoen komunitateak lan merkatuan sartzeko gaitasuna hobetu dezan, banakako ibilbideak ezarriz, zenbait etapatan banatuta, harreratik hasita laneratzera bitarte, aurreprestakuntza, prestakuntza eta akonpainamendu ekintzen bidez. Programa hau Fundación Secretariado Gitano izenekoak gauzatzen du eta batera finantzatzen dute Europako Gizarte Funtsak, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eta Iruñeko Udalak.

2001etik 2006ra 609 erabiltzailerekin lan egin zen eta 650 kontratu lortu ziren, 345 pertsonarentzat.

2007an beste 99 erabiltzailerekin egin da lan.

Zailtasun bereziak dituzten pertsonak laneratzea (Europako Gizarte Funtsa): Programa eragilea, 3. helburua, 7. ardatza “Zailtasun bereziak dituzten pertsonak laneratzea”: Europako Gizarte Funtsaren laguntzarekin gizarteratzearen eta laneratzearen arloan finantzatzen diren jarduketetarako, etorkinei eta ijitoen gutxiengo etnikoko kideei gizarteratze eta laneratzerako banakako ibilbideak eskainiz.

2007an 3 entitatek jaso zuten diru-laguntza, 250.000 eurokoa (Anafe, UGT eta Gurutze Gorria).

Gizarteratzearen arloan aritzen diren irabazi-asmorik gabeko gizarte ekimeneko entitateentzako diru-laguntzak: Honakoei laguntzeko: drogamenpekotasunaren arloan gizartean bazterturik edo/eta horrela gertatzeko arriskuan dauden pertsonak, etxebizitza arloko bazterketa jasaten dutenak, gizarteratzea sustatzen duten proiektuei, laneratze eta sentsibilizatze ekintzei, eta gizarte bazterketaren kontra eta gutxiengo etnikoen sustapen sozialaren alde egietn diren ekintzei, entitate laguntzaileen funtzionamenduari eta GE programari etab.i.

2007an, diru-laguntza eman zitzaien bazterturik dauden pertsonekin lan egiten duten gizarte ekimeneko 14 entitateri, ijitoen etniaren sustapenean lan egiten duten beste 14ri eta immigrazioaren arloan aritzen diren beste bosti.

Etxebizitzaren arloko gizarteratze taldea (EGT): etxebizitza eskuratzeko ingurune irekiko akonpainamendua eta bitartekaritza emateko zerbitzua, bizitokiaren arloko bazterketa larria pairatzen duten pertsonak gizarteratzen laguntzen duena.

Talde honek Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuaren diru-laguntza jasotzen du, eta 2007an 1.400 pertsonak jaso zituzten laguntzak.

*Etxean edo/eta ingurunean gelditzea*

Gizarteratzeko etxebizitza programa: Haren xedea da gizartean bazterturik dauden pertsonei etxebizitza bat eskuratzen laguntzea (jabetzan),

bertan kokatzea bultzatzeko, alde batetik bestera etengabe ez ibiltzeko eta errotzeko, familia ingurunean integratu dadin eta etxebizitzan bizi direnak inplikatu daitezen etxebizitza zaintzen eta ingurune sozialean.

Programa hau batera kudeatzen dute Etxebizitza eta Lurraldearen Antolamendu Departamentuak eta Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak. Etxebizitza eta Lurraldearen Antolamendu Departamentuak diru-laguntzak ematen ditu etxebizitza erosteko, eta Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak, berriz, funtzionamendu eta akonpainamendu sozialeko gastuetarako laguntzak ematen ditu, eta irabazi-asmorik gabeko entitateei, etxebizitzaren prezioaren %10erainokoak, hainbat gastutarako: eskriturak, erregistroa, hornidura kontratuak etab.

**65. taula:** GE programaren bilakaera

| GE Programa | 2003 | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 |
|---|---|---|---|---|---|
| Diruz lagundutako entitateak | 7 | 7 | 6 | 5 | 5 |
| Erositako etxebizitzen kopurua | 89 | 74 | 62 | 55 | 46 |

Iturria: Gizarte Gaietako Departamentuaren memoria. 2007, egileek prestatua.

Gizarteratzeko laguntza bereziak: behin bakarrik jaso beharreko diru-laguntza, gizartean bazterturik dauden eta behar besteko baliabiderik ez duten familia unitateek larrialdiko edo bazterketa sozialeko egoerak saihestu edo arintzeko beharrezkoak diren berariazko gastuei, apartekoei, aurre egin ahal izateko.

**66. taula:** Aparteko laguntzen bilakaera

| | 2003 | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 |
|---|---|---|---|---|---|
| Emandako laguntza kopurua | 426 | 428 | 399 | 481 | 631 |
| Arreta jaso duten familia unitateak, guztira | 413 | 345 | 336 | 377 | 446 |

Iturria: Gizarte Gaietako Departamentuaren memoria. 2007, egileek prestatua.

Familian eta gizartean integratzeko laguntzak: ingurune irekiko mantenu eta ostatu gastuak ordaintzeko diru-laguntza, gizartearekiko loturei eutsi eta zentro batean sartzea saihesteko.

**67. taula:** Familian eta gizartean integratzeko laguntzen bilakaera.

| | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 |
|---|---|---|---|---|
| Onuradunak | 47 | 39 | 39 | 31 |
| Emakumezkoak | | | 25 | 18 |
| Gizonezkoak | | | 14 | 13 |

Iturria: Gizarte Gaietako Departamentuaren memoria. 2007, egileek prestatua.

Zentro okupazionalaren zerbitzua gizartean bazterturik dauden pertsonentzat: establezimendu berariazko batean emandako zerbitzua, gizartean bazterturik egon eta lan eta gizarte arloko dispositibo normalizatuetan integratzerik ez duten pertsonei terapia okupazionaleko jarduerak, prestakuntzakoak eta egokitze pertsonal eta sozialekoak emateko.

Navarra sin Fronteras elkarteak kudeatzen duen zentro okupazionalak Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuaren diru-laguntza jasotzen du. Caritasek kudeatzen dituen zentro okupazionalek ez dute inolako finantzaketa publikorik.

**68. taula:** Zentro okupazionalak kudeatzen dituzten entitateak eta plaza kopurua

| Zentro okupazionalak kudeatzen dituzten entitateak | Zentro kopurua | Plazak |
|---|---|---|
| Cáritas | 3 | 120 |
| Navarra sin Fronteras elkartea | 1 | 16 |
| **Guztira** | **4** | **136** |

Iturria: Gizarte Gaietako Departamentuaren memoria. 2007, egileek prestatua.

Diru-laguntzak eta akonpainamendu soziala ingurune irekian, moldagabezia sozialean dauden pertsonentzat: diru-laguntza, baliabide ekonomikoak eman eta baliabide pertsonalen garapena bultzatzea ingurune irekiko akonpainamendu sozialaren bitartez, ingurune normalizatuan gelditzea ziurtatzeko eta instituzio baten babespean zentro batean sartzea saihesteko.

**69. taula:** Akonpainamenduko diru-laguntzak jaso dituzten pertsonak

| | 2006 | 2007 |
|---|---|---|
| Gizonezkoak | 18 | 19 |
| Emakumezkoak | 6 | 6 |
| **Guztira** | **24** | **25** |

Iturria: Gizarte Gaietako Departamentuaren memoria. 2007, egileek prestatua.

*Egoitzako laguntza.*

Egoitzako arreta zerbitzua:

**70. taula:** Arreta jaso duten pertsonen kopurua

| | 2005 | 2006 | 2007 |
|---|---|---|---|
| Arreta jaso duten pertsonak, urte amaieran | 12 | 15 | 15 |

Iturria: Gizarte Gaietako Departamentuaren memoria. 2007, egileek prestatua.

Diru-laguntzak, nahi erara erabiltzekoak, komunitate terapeutikoan tratamendua jasotzen dutenentzat: diru-laguntza, nahi erara erabili beharrekoa, norberaren higienerako produktuak, jantziak, garraioa etab. ordaintzeko komunitate terapeutikoan tratamendua jasotzen ari diren eta baliabide pertsonalik nahiz familiakorik ez duten pertsonentzat.

**71. taula:** Diru-laguntza, nahi erara erabili beharreko gastuetarako

| | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 |
|---|---|---|---|---|
| Arreta jaso duten pertsonen kopurua | 35 | 38 | 43 | 42 |
| Emandako zenbatekoa | 21.104,48€ | 24.101,30€ | 29.029,92€ | 29.216,18€ |

Iturria: Gizarteratze Zerbitzua.

**Babes gabeziako edo gatazka sozialeko egoeran edo horrela gertatzeko arriskuan dauden adingabeentzako arreta.**

Nafarroako Foru Komunitatean, haurren babesaren arloko eskumenen banaketa Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legean aurreikusitakoaren arabera antolatua dago; lege horren xedea da adingabeentzako arreta integrala bermatzea arlo honetan, eta horretarako ezartzen ditu adingabearen babes juridikorako esparrua, prebentzio eta sustapen jarduketa administratiboak eta, azkenik, orientazio eta gizarteratzeko esku-hartzea erreformaren sistemaren menpe dauden adingabeei dagokienez, organo jurisdizkionalek ezarritako neurriak betetzeko garaian, haien eskubideez baliatzea eta interesak defenditzea bermatzeko, bai eta garapen integrala izatea bizikidetzaren esparru guztietan.

Nafarroako Foru Komunitateko administrazioa da lurralde horretan adingabeen prebentzio eta babesaren eta organo jurisdikzionalek hartutako neurriak betetzearen arloko eskumena duen entitate publikoa, foru lege horretan ezarritako moduan eta legeria zibilean eta arlo honetan aplikatzekoak diren estatuko gainerako legeetan xedatutakoarekin bat.

*Prebentzioa eta Sustapena*

Haur eta nerabeentzako arreta taldeak (HNAT): ingurune irekiko esku-hartze zerbitzua, oinarrizko gizarte zerbitzuei laguntza ematekoa, zeinaren xedea baita babes gabezia arin edo moderatuan dauden adingabeekin esku hartzea, familiarengandik bereizi gabe.

Gure erkidegoan zerbitzu honek Lizarrako barrutiari ematen dio arreta.

**72. taula: HNATren arreta jasotzen duten familiak eta adingabeak**

| Lizarrako Barrutia | 2006 | 2007 |
|---|---|---|
| Arreta jaso duten familiak | 55 | 54 |
| Arreta jaso duten adingabeak | 102 | 105 |

Iturria: Familia Zuzendaritza Nagusia, 2007.

Familiako esku-hartze zerbitzua: ingurune ireki-ko esku-hartze zerbitzua, gurasoei laguntzeko eraginkorragoak izaten adingabeekiko elkarreraginean, etxean familia-hezitzaile bat sartuz, informazioa, laguntza, aholkularitza eta prestakuntza baliatuz zaintzarako behar diren gaitasunak eta trebetasunak aldatu, areagotu eta eman ditzan, zentro batean sartzeak eraginen lukeen deserrotzerik gerta ez dadin.

**73. taula:** Familiak eta adingabeak familiako esku-hartze zerbitzuan

| | 2006 | 2007 |
|---|---|---|
| Arreta jaso duten familiak | 46 | 48 |
| Arreta jaso duten adingabeak | 105 | 111 |

Iturria: Familia Zuzendaritza Nagusia, 2007.

Familia orientazioko zerbitzua: laguntza eta aholkularitza ematen duen zerbitzua, bere kargura adingabeak dituen familiako kideen artean sortzen diren arazoak konpontzeko.

**74. taula.** Familia orientazioko zerbitzuan arreta jaso duten familiak

| Arreta jaso duten familiak | Kasu berriak | Urte amaieran | Eskaera kop. guztira |
|---|---|---|---|
| 2006 | 95 | 189 | 210 |
| 2007 | 176 | 244 | 244 |

Iturria: Familia Zuzendaritza Nagusia, 2007.

Familia bitartekotzarako zerbitzua: gatazkan dauden familientzako laguntza zerbitzua, borondatezko prozesu baten bidez, familia hausteko prozesuan edo bizikidetzari utzita, bereizten edo dibortzio gatazkatsuan dauden alderdien arteko komunikazioa ahalbidetzeko, profesional kualifikatu eta neutralen esku-hartzeari esker negoziazioa eta adostasuna bermatzen duena.

**75. taula:** Familia bitartekotzarako zerbitzuan arreta jaso duten familiak

| | 2006 | 2007 |
|---|---|---|
| Aurkeztutako eskaerak | 131 | 132 |
| Epaitegiak igorritako eskaerak | 38 | 32 |
| Entitate bideratzaileen eskaerak | 93 | 100 |
| **Guztira** | **262** | **264** |

Iturria: Familia Zuzendaritza Nagusia, 2007.

Familiako elkargune zerbitzua: toki edo espazio egoki eta neutrala emateko zerbitzua, adingabeak familiari bisitak egin edo harekin elkartzeko, seme-alabek amarekin nahiz aitarekin eta haien familiekin harremana izateko duten eskubidea, adingabearen segurtasuna eta ongizatea, bai eta guraso ahulenarenak ere bermatuz.

**76. taula:** Elkartzeko gunean arreta jaso duten familiak eta adingabeak

| | 2006 | 2007 |
|---|---|---|
| Arreta jaso duten familiak | 147 | 209 |
| Arreta jaso duten adingabeak | 264 | 296 |

Iturria: Familia Zuzendaritza Nagusia, 2007.

Entitateentzako diru-laguntzak, funtzionamendurako eta jarduerak sustatzeko: Haurren artean prebentzio, aisia eta eskolako laguntza jarduerak egiteko, irabazi-asmorik gabeko elkarteen bidez.

2007an, familiaren arloan lan egiten duten zazpi elkarteri eman zitzaien diru-laguntza eta adingabearen babesaren arloan lan egiten duten bederatzi elkarteri; era berean, hitzarmen bat izenpetu zen 4 entitaterekin, lanbide hastapen egokituko programak gauzatzeko.

*Etxean edo/eta ingurunean gelditzea*

Familiako harrera zerbitzua: adingabeari familia ingurunea etxebizitza normalizatu batean emateko zerbitzua, adingabea babesteko, haren zaintza bere gain hartuta eta familia batean sartuz, babes espazio bat emateko, haren garapen afektiboa, psikologikoa, prestakuntza eta lan arlokoa, intelektuala eta soziala egokiak izan daitezen.

2007an adingabeak hartu zituzten 225 familiarekin eta 262 adingaberekin lan egin genuen.

Eguneko Zentroaren zerbitzua: Adingabeen eguneko arretarako baliabidea, haien familiek ezin dituztenean bere gain hartu haien beharrak eta zainketak, gainbegiratzea eta heziketa, agerikoak diren arrazoi desberdinengatik, arlo pertsonalean, sozialean eta familiakoan, eskolaz kanpoko ordutegian eta oporraldietan.

**77. taula:** 2007an, eguneko zentroko zerbitzuan dagoen plaza kopurua eta arreta hartu duten adingabeena

| Eguneko zentroa | 2006 | 2007 |
|---|---|---|
| Plaza kopurua | 18 | 18 |
| Arreta jaso duten adingabeak | 22 | 23 |

Iturria: Familia Zuzendaritza Nagusia, 2007.

Harrerako familientzako laguntzak: diru-laguntza, harrerako familiei harrerak dakartzan gastu arruntei eta bereziei aurre egiten laguntzeko.

• 2007an, 125 familiak eta 155 adingabek jaso zituzten mota honetako diru-laguntzak.

Adingabea bere familia ingurunean gelditzeko laguntzak: aldi baterako diru-laguntza, adingabeak zentro batean sartzea saihesteko xedearekin.

• 2007an, 8 familiak eta 13 adingabek jaso zituzten mota honetako laguntzak.

Nerabeen heziketarako zerbitzua: Ingurune irekiko esku-hartze zerbitzua, nerabeei eta haien familiei laguntzeko eraginkorragoak izaten adingabeekiko elkarreraginean, etxean familia-hezitzaile baten presentziaren bidez, erreferente egokia izan dadin nerabearentzat eta heziketa ekintzak gauza ditzan, bere familia eta gizarte ingurunearekin etena sortzen duten portaerei eta jarrerei aurrea hartzeko eta/edo tratamendua emateko.

• 2007an 30 adingaberekin lan egin zen.

Autonomia prozesuan dauden gazteentzako laguntzak: aldizkako diru-laguntzak, arazo sozialak dituzten adingabeentzat, zentroa uzten dutenean, adinez nagusiak izatera iritsi direlako, jatorriko familian berregokitu direlako edo neurri judiziala amaitu delako.

• 7 adingabek jaso zuten aldizkako prestazio hau 2007an.

Aparteko laguntzak: adingabeentzako diru-laguntzak, haien ingurunean gelditzen laguntzeko behar diren gastu berezietarako.

• 8 familiak jaso zituzten laguntza hauek 2007an.

Arlo penaleko neurri judizialak ingurune irekian betetzea programatu eta haren segimendua eta kontrola egitea: Kode Pedalean jasotako faltaren bat egin, eta Adingabeen Epaitegiak aginduta Adingabeen erantzukizun penalari buruzko 5/2000 Legean aurreikusitako neurrietako bat bete behar duten 14 urtetik 18 urtera bitarteko adingabeentzat.

**78. taula** Neurri judizialen programan dauden adingabeen kopuruaren bilakaera

| **Ingurune irekiko neurriak** | **2006** | **2007** |
|---|---|---|
| Zaintzapeko askatasuna | 69 | 79 |
| Tratamendu anbulatorioa | 6 | 5 |
| Asteburua etxean | 14 | 10 |
| Komunitatearentzako oinarrizko zerbitzuak | 41 | 67 |
| Eguneko zentroa | 1 | 1 |
| Gizarte eta hezkuntza arloko zereginak | 10 | 13 |
| Etenduren jarraipena | 4 | 6 |
| **GUZTIRA** | **145** | **181** |
| **GUZTIRA** Betetako neurriak | | 263 |

Iturria: Familia Zuzendaritza Nagusia, 2007.

*Egoitzako arreta*

Behaketa eta harrera zerbitzua: babes gabezia larrian dauden adingabeentzako egoitza zerbitzua, denbora-epe mugaturako harrera, balorazio eta esku-hartze urgenteak emateko eta beharra duenak babesa eta arreta jaso ditzan berehalakoan.

**79. taula:** Behaketa eta harrera zentroetako plazak

| | **2006** | **2007** |
|---|---|---|
| Behaketa eta harrera zentroen kopurua | 2 | 2 |
| Plaza kopurua 0tik 12 urte bitartekoentzat | 12 | 12 |
| BHZetan izan diren adingabeak, 0tik 12 urtera bitartekoak | | 60 |
| Plaza kopurua 12tik 18 urte bitartekoentzat | 10 | 10 |
| BHZetan izan diren adingabeak, 12tik 18 urtera bitartekoak | | 83 |

Iturria: Familia Zuzendaritza Nagusia, 2007.

Egoitzako harrera zerbitzua: egoitzan emandako zerbitzua, adingabea babesteko, haren zaintza eta/edo tutoretza bere gain hartuta, babes gune bat emateko, haren garapen afektiboa, psikologikoa, prestakuntza eta lan arlokoa, intelektuala eta soziala egokiak izan daitezen.

**80. taula:** Egoitzako harrera zerbitzuan dauden plazen kopurua eta arreta jasotako adingabeena

| | **2006** | **2007** |
|---|---|---|
| Babes eta gatazkako plaza kopurua | 169 | 169 |
| Plaza judizialen kopurua | 10 | 10 |
| Plaza kopurua guztira | 179 | 179 |
| Arreta jaso duten adingabeak, guztira | 378 | 386 |

Iturria: Familia Zuzendaritza Nagusia, 2007.

Zentro batean sartzea dakarten arlo penaleko neurri judizialak betetzea programatu eta haien segimendua eta kontrola egiteko zerbitzua: Kode Penalean jasotako faltaren bat egin eta Adingabeen Epaitegiak aginduta Adingabeen erantzukizun penalari buruzko Legean aurreikusitako neurrietako bat bete behar duten 14 urtetik 18 urtera bitarteko adingabeentzat.

**81. taula:** Neurri judizialen programan dauden plazen eta adingabeen kopuruen bilakaera

| | 2006 | | 2007 | |
|---|---|---|---|---|
| **Neurri mota** | **Plaza kopurua** | **Adingabeen kopurua** | **Plaza kopurua** | **Adingabeen kopurua** |
| Araubide itxia, erdi irekia eta irekia | 10 | 28 | 10 | 28 |
| Zentro terapeutikoan sartzea (drogak) | 4 | 1 | 4 | 2 |
| **Guztira** | **14** | **29** | **14** | **30** |

Iturria: Familia Zuzendaritza Nagusia, 2007.

Bakarrik bizi diren atzerriko adingabeen arretarako zerbitzua: egoitzan emandako zerbitzua, adingabea babesteko, haren zaintza bere gain hartuta, babes gune bat emateko, haren garapen afektiboa, psikologikoa, intelektuala eta soziala egokiak izan daitezen, bereziki lan orientabideak emanez.

Zerbitzu hau betetzeko hitzarmena egin behar da Nafarroako Gobernuaren eta Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren artean, hartu beharreko adingabeen kopuruaz eta tutoretza besterik gabe bere gain hartzeaz.

• 2007an 10 plaza hitzartu ziren eta 10 adingaberi eman zitzaien arreta.

Hezkuntza egoitzetako egonaldietarako laguntzak: hezkuntza egoitzetako egonaldiak ordaintzeko diru-laguntza, babes gabezia moderatuan edo larrian dauden eta, horren ondorioz, ikasturte osoa ikastetxe normalizatuetan barnetegiko araubidean eman behar duten adingabeentzat.

• 2007an arazo sozialak zituzten 20 adingaberi eman zitzaizkien laguntzak.

**Genero indarkeriaren biktimentzako arreta.**

Genero indarkeriak arriskuan jartzen ditu egunero pertsona askoren eskubide oinarrizkoak, batez ere emakumeenak -bizitzeko eskubidea, kalte fisiko eta psikikorik ez izatekoa, osasunerako, duintasunerako, askatasunerako eskubideak-, hau da, pertsonaren balio urraezinak.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, haren eskumen osoez baliatuz, indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea onetsi zuen, jabeturik-eta indarkeria mota honek dakartzan arazo sozialez.

Jarduketa esparru horretan, arlo honetan erantzukizuna eta eskumena dituzten erakundeek, gizarte zerbitzuek, besteak beste, genero indarkeria jasaten duten pertsona guztiei arreta, babesa, laguntza eta aholkularitza emateko baliabideak ezarri dituzte.

Era berean, Nafarroako Berdintasunaren Institutuak emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasunaren inguruko politikak betetzen ditu, bai eta jarduketak ere emakumeen kontrako indarkeriaren arloan: “Emakumearen sustapena” gaiari buruzko ikerketa eta dokumentazio zentroa; “Profesionalentzako gida. Genero indarkeriaren biktimentzako jarduketa koordinaturako protokoloa” delako argitalpena eta entitate laguntzaileentzako diru-laguntzak, indarkeria desagerrarazteko plan integralak prestatzeko.

Gaur arte, gizarte zerbitzuetan gizartea sentsibilizatzeko eta prebentziorako ekintzak gauzatu dira, eta ostatu emateko aukerak (larrialdi sozialekoak) eta prestazio ekonomikoak eskaintzen dira.

*Etxean edo/eta ingurunean gelditzea*

Genero indarkeriaren biktimentzako diru-laguntzak, baliabide ekonomikorik eza eta lanpostu bat erdiesteko zailtasun bereziak dituztela frogatuz gero.

2007an 25 eskaera tramitatu ziren, eta horietatik 9 eman eta 16 ukatu ziren. Prestazio horren batez besteko zenbatekoa 5.858,39 eurokoa izan zen urtean, eta guztira 52.725,52 euroko gastua ekarri zuen.

Egoitzako arreta

Larrialdietarako zentroa: egoitza zerbitzua, genero indarkeriaren biktimei, bakarrik daudenei nahiz seme-alaba adingabeekin edo haien kargura dituzten beste senide batzuekin daudenei, urgentziako ostatua emateko, tratu txarren edo sexu erasoaren biktima izan eta beste baliabide egokiagorik ez dutenean.

**82. taula:** Urgentzietarako Zentroaren erabilera datuak

| Zentroaren erabilera | 2007 |
|---|---|
| Plaza kopurua | 12,00 |
| Erabileraren % | 47,70 |
| Harrera emandako emakumeen kopurua | 96,00 |
| Biktimen kargura dauden adingabeak, harrera emandakoak | 79,00 |
| Batez besteko egonaldia, egunetan | 17,50 |

Iturria: Toki Entitateentzako Koordinazio eta Lankidetza Zerbitzua, 2007.

Abegi Etxea: egoitza zerbitzua, genero indarkeriaren biktimei harrera egitekoa, bakarrik edo haien seme-alabekin edo haien kargura dituzten beste senide batzuekin daudenei, haien egoerari heltzeko bide emanen dien laguntza psikologikoa, soziala eta juridikoa emateko.

**83. taula:** Abegi Etxearen erabilera datuak

| Erabilera/urtea | 2007 |
|---|---|
| Plaza kopurua | 12 |
| Batez besteko erabileraren % | 69,7 |
| Harrera emandako emakumeen kopurua | 13 |
| Biktimen kargura dauden adingabeak, harrera emandakoak | 19 |
| Batez besteko egonaldia, egunetan | 95,3 |

Iturria: Toki Entitateentzako Koordinazio eta Lankidetza Zerbitzua, 2007.

Harrera Egoitzako etxebizitzak: egoitzako zerbitzua, genero indarkeriaren biktimei, bakarrik edo haien seme-alaba adingabeekin, harrera egitekoa, Abegi Etxean egon ondoren, babes gabezian daudenean indarkeria fisiko edo psikologikoaren ondorioz, bizitza bideratu dezaten, gizarteratzen lagunduko dieten bitartekoak eta baliabideak emanez.

**84. taula:** Harrera Egoitzako etxebizitzen erabilera datuak

| Erabilera/urtea | 2007 |
|---|---|
| Erabilitako etxebizitzen kopurua | 5 |
| Batez besteko erabileraren % | 75,0 |
| Harrera emandako emakumeen kopurua | 9 |
| Biktimen kargura dauden adingabeak, harrera emandakoak | 12 |

Iturria: Toki Entitateentzako Koordinazio eta Lankidetza Zerbitzua, 2007.

**85. taula:** Arreta jaso duten pertsonen kopuruaren bilakaera. Datu orokorrak.

| | Arreta jaso duten emakumeen kopurua | | | Arreta jaso duten adingabeen kopurua | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Urtea | Larrialdietarako zentroa | Abegi Etxea | Egoitzako etxebizitza | Larrialdietarako zentroa | Abegi Etxea | Egoitzako etxebizitza |
| 2003 | 117 | 17 | 4 | 120 | 19 | 7 |
| 2004 | 126 | 15 | 5 | 124 | 18 | 9 |
| 2005 | 112 | 20 | 6 | 86 | 18 | 12 |
| 2006 | 88 | 16 | 8 | 90 | 22 | 9 |
| 2007 | 96 | 13 | 9 | 79 | 19 | 12 |

Iturria: Toki Entitateentzako Koordinazio eta Lankidetza Zerbitzua, 2007.

II.7. GIZARTE ZERBITZUEN SISTEMA PUBLIKOAREN EREDU BERRIA: GIZARTE ZERBITZUEI BURUZKO MARTXOAREN 30eko 14/1983 FORU LEGEA. GIZARTE ZERBITZU OROKORREN ZORROA

Gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legeak Nafarroako Foru Komunitateko gizarte zerbitzuen garapen berria taiutu du, izan ere, lehengo sistema, zerbitzuak emateko garaian, asistentziara zuzendua zen, eta bertan administrazioa familien subsidiarioa zen, haiek ematen baitzuten arreta; sistema berria, ordea, bermean oinarritua da, eta bertan pertsonek gizarte zerbitzuen zenbait prestaziotarako eskubidea dute, eta zerbitzuak bete behar dituzten administrazioei eskatu ahal diote eskubide subjektibo hori, bai eta, azken instantzia gisa, auzitegietan ere. Halatan, gizarte zerbitzuen sistema publikoa eratzen da, Nafarroako administrazio publikoek ematen dituzten prestazio tekniko eta ekonomiko, plan, programa eta talde tekniko guztiek osatua, herritarrek eskatu ahal dituzten prestazioak dituena.

Foru legeak aurreikusitakoaren arabera, Foru Komunitateko lurralde osoan aplikatuko diren sistema publikoko prestazioak jasotzeko tresna gizarte zerbitzu orokorren zorroa da (19. artikulua). Beraz, zorro horretan bilduta daude Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren erantzukizunekoak diren sistema publikoaren prestazioak eta, haiekin batera, toki entitateen eskumenekoak diren oinarrizko arretako prestazioak, foru legearen zioen azalpenean aipatzen den gutxieneko homogeneoa, arauaren 20. artikuluan ezarritakoa, osatzen baitute, Nafarroako herritar guztientzat bermatu beharrekoa.

Ildo horretan, gizarte zerbitzu orokorren zorroak zerbitzuak emateko sistema unibertsal bat finkatzen du, helburu hori lortzeko behar diren baliabide publikoak sendotuz eta hedatuz.

Bestalde, zorroak, legeak agindutakoa betez, prestazio bermatuak eta bermatu gabekoak bereizten ditu, hau da, eskubide subjektibo diren aldetik eskatu ahalko direnak eta aurrekontuko diruaren arabera baizik emanen ez direnak.

Zorroan sartutako prestazioei dagokionez, zorroak bakoitzaren helburua ezartzen du. Beraz, gizarte zerbitzu orokorren zorroak antolatu, definitu eta egituratuko du gizarte zerbitzuen sistema publikoaren eredu berria eta erabiltzaileen azterketan jorratu beharko den bidea ezarriko du. Horrela baizik ez gara gai izanen zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak bermatzeko, prestazio bakoitza betetzeko baldintzak, prestazioan ezarritako epean, betetzen dituzten pertsonen beharretara egokituta.

## III. BALIZKO ESKAERAREN AZTERKETA

### III.1. BALIZKO ESKAERA

Ondoren, Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoak indarra izanen duen epean (2008-2012) gizarte zerbitzuen sistemak erantzun beharreko balizko eskaerari buruzko zenbait datu emanen ditugu.

Kasu batzuetan arreta eman beharreko populazioari buruzko kalkuluak dira eta, beste batzuetan, genero indarkeriaren eta buru-nahaste larriaren kasuetan, 2007an arreta jaso duten bizilagunen kopuruari buruzkoak. Gizartean bazterturik daudenen datuetan bizi baldintzei buruzko inkestaren inguruko informazio garrantzitsua jaso da, aipatutako gertaera zehatzago ikusteko.

MENDEKOTASUNA

**86. taula:** Mendekotasuna duten pertsonei buruzko proiekzioak, graduaren eta adinaren arabera

| | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 |
|---|---|---|---|---|---|
| | **6tik 64ra bitarte** | | | | |
| **Handia** | 577 | 578 | 578 | 575 | 572 |
| **Larria** | 541 | 546 | 551 | 552 | 552 |
| **Moderatua** | 365 | 369 | 372 | 374 | 375 |
| **Guztira** | 1.483 | 1.492 | 1.501 | 1.500 | 1.498 |
| | **65etik 79ra bitarte** | | | | |
| **Handia** | 744 | 744 | 743 | 736 | 729 |
| **Larria** | 607 | 607 | 606 | 602 | 599 |
| **Moderatua** | 468 | 466 | 464 | 462 | 460 |
| **Guztira** | 1.819 | 1.816 | 1.814 | 1.801 | 1.788 |
| | **>80** | | | | |
| **Handia** | 2.649 | 2.771 | 2.898 | 3.000 | 3.105 |
| **Larria** | 1.552 | 1.624 | 1.700 | 1.763 | 1.829 |
| **Moderatua** | 1.089 | 1.134 | 1.180 | 1.217 | 1.254 |
| **Guztira** | 5.290 | 5.529 | 5.778 | 5.980 | 6.188 |
| | **Guztira** | | | | |
| **Handia** | 3.970 | 4.092 | 4.219 | 4.310 | 4.405 |
| **Larria** | 2.700 | 2.777 | 2.857 | 2.917 | 2.980 |
| **Moderatua** | 1.922 | 1.968 | 2.017 | 2.053 | 2.089 |
| **Guztira** | 8.592 | 8.837 | 9.093 | 9.280 | 9.474 |

Iturria: egileek prestatua Mendekotasunaren Liburu Zuriaren eta NMAren datuetan oinarriturik.

1. Mendekotasuna duten pertsonen kopuruak izanen lukeen igoera, 2005etik 2010era eta 2010etik 2015era, Espainiako lurralde osorako mendekotasunari buruzko liburu zuriaren arabera.

2. Igoera hori zati 5 egin da urteko igoera lortzeko.

3. Portzentaje hori Nafarroan 2008ko urtarrilaren 1era arte mendekotasunaren balorazioa jaso dutenen kopuruari aplikatu zaio.

ADINEKO PERTSONAK

**87. taula:** Adinekoen eta adin handikoen kopuruen joera Nafarroan (2007-2012)

| Urtea | Nafarroako populazio osoa | Adinekoak, guztira | | 65etik 79ra bitarte | | 80 urtetik gora | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Absolutua | Populazio osoaren % | Absolutua | Populazio osoaren % | Absolutua | Populazio osoaren % |
| **2007** | 605.876 | 105.720 | 17,45 | 73.459 | 12,12 | 32.261 | 5,32 |
| **2008** | 611.848 | 109.398 | 17,88 | 74.951 | 12,25 | 34.447 | 5,63 |
| **2009** | 617.448 | 111.325 | 18,03 | 75.637 | 12,25 | 35.688 | 5,78 |
| **2010** | 622.659 | 113.448 | 18,22 | 76.524 | 12,29 | 36.923 | 5,93 |
| **2011** | 627.640 | 11.567 | 18,43 | 77.576 | 12,36 | 38.097 | 6,07 |
| **2012** | 632.515 | 118.027 | 18,66 | 78.748 | 12,45 | 39.215 | 6,20 |

*Iturria: Egileek prestatua Estatistikako Institutu Nazionalaren datuetan oinarriturik. Populazioaren proiekzioak Oinarria 2001eko errolda.*

Adinekoen tasaren igoera handia proiektaturik dago, eta batez ere adin handikoena, Estatistikako Institutu Nazionalaren proiekzioak kontuan harturik.

EZGAITASUNA DUTEN PERTSONAK.

**88. taula:** 207-2011 urteetan ezgaitasuna izanen duten pertsonen proiekzioa

| Urtea | Nafarroako populazio osoa | Guztira | |
|---|---|---|---|
| | | Absolutua | Populazio osoaren % |
| **2007** | 605.876 | 30.760 | %5,07 |
| **2008** | 611.848 | 31.020 | %5,07 |
| **2009** | 617.448 | 31.304 | %5,07 |
| **2010** | 622.659 | 31.568 | %5,07 |
| **2011** | 627.640 | 31.812 | %5,07 |
| **2012** | 632.515 | 32.068 | %5,07 |

(*) Ezgaitasuna duten pertsonen kopurutik mendekotasun handiaren eta larriaren balorazioa jaso dutenak kendu dira.
Iturria: Plangintza eta Azpiegituren Zerbitzuak egina.

BURU-NAHASTE LARRIA

Buru eritasun larriek eta iraunkorrek erasandako bizilagunen errolda osatuak ditugunez, kalkuluak zeharkako kalkuluen bitartez egin behar dira.

Kontuan harturik Nafarroako Estatistika Institutuak 2007ko urtarrilaren 1ari dagokionez emandako populazio datuak, Nafarroak 605.876 biztanle ditu, horietatik 395.198 18tik 65 urtera bitartekoak.

Halaber, DSM IV-R.k (Buru-eritasunaren Diagnostikorako Esku-liburua, IV, bertsio berrikusia) onartzen duen portzentajea hartzen badugu, hau da, populazioaren %1ek dituela buru-nahaste larriak, 3.952 pertsona inguruko kopurua izanen genuke.

Nolanahi ere, badugu datu askoz zehatzago bat, lehenago aipatutako diagnostikoetako bat bete eta Adimen Osasunaren Sarean arreta jasotzen duten pertsonen kopurua alegia. Adimen Osasuneko Zuzendariordetzaren memoriaren arabera **3.123 pertsona** dira.

Bibliografiak eta beste autonomia erkidego batzuetako esperientziek erakusten dutenez, pertsona horien %40k erabiliko luke programan proposatutako baliabideetakoren bat, beraz esan genezake **jomugako populazioa 1.250 pertsonak** osatuko luketela.

**89. taula:** Buru-nahaste larria duten pertsonen kopuruaren proiekzioak

| **Jatorria** | **Adimen osasunaren sarean Buru-nahaste larriko programan arreta jaso duten gaixoak** | ***Programako baliabideen erabiltzaileen jomugako populazioa (%40)*** |
|---|---|---|
| Iruña eta Nafarroako gainerako eskualdeak | 2.319 | *928* |
| Tutera | 350 | *140* |
| Lizarra | 269 | *108* |
| Tafalla | 185 | *74* |
| ***GUZTIRA*** | ***3.123*** | ***1.250*** |

Iturria: Adimen Osasuneko Zuzendariordetza eta Nafarroako Mendekotasun Agentzia.

GIZARTE BAZTERKETA

**90. taula:** Pobreziaren arriskuko adierazleak bizi-baldintzei buruzko inkestaren arabera

| **2006. urtea** | **Lehen mailako adierazleak** | |
|---|---|---|
| **Definizioa** | **UE PRIM-1**<br>**Pobrezia arriskuaren tasa transferentziak egin ondoren** | **UE PRIM-2**<br>**Pobrezia arriskuaren atalasea (€)** |
| Andaluzia | 18,2 | 5.528,4 |
| Aragoi | 17,2 | 7.568,0 |
| Asturias | 16,8 | 7.289,4 |
| Balearrak | 18,7 | 8.039,6 |
| Kanariak | 20,3 | 6.269,2 |
| Kantabria | 14,2 | 7.266,7 |
| Gaztela-Mantxa | 19,5 | 5.840,0 |
| Gaztela eta Leon | 21,0 | 6.272,9 |
| Katalunia | 19,0 | 8.276,4 |
| Extremadura | 17,4 | 4.756,4 |
| Galizia | 18,5 | 6.253,0 |
| Errioxa | 20,4 | 6.953,8 |
| Madril | 19,3 | 7.984,0 |
| Murtzia | 21,2 | 6.098,7 |
| **Nafarroa** | **18,0** | **9.140,5** |
| Euskal Autonomia Erkidegoa | 18,4 | 8.633,6 |
| Valentziako E. | 16,8 | 6.810,0 |
| **Estatuko batez bestekoa** | **19,9** | **6860,0** |

Iturria: Nafarroako Gobernua

**91. taula:** Pobrezia arriskua

| | **2004** | | | **2005** | | | **2006** | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Denak** | **Gizona** | **Emakumea** | **Denak** | **Gizona** | **Emakumea** | **Denak** | **Gizona** | **Emakumea** |
| | 17,3 | 16,20 | 18,40 | 22,9 | 21,12 | 24,40 | 18,00 | 17,80 | 18,30 |
| -16 | 20,40 | | | 29,00 | | | 19,00 | | |
| 16-24 | 7,10 | | | 22,60 | | | 21,00 | | |
| 25-49 | 14,30 | | | 16,00 | | | 13,10 | | |
| 50-64 | 17,40 | | | 18,20 | | | 14,20 | | |
| 65 eta gehiago | 27,90 | | | 38,30 | | | 31,10 | | |

Iturria: Bizi-baldintzei buruzko inkesta. Egileek prestatua

ADINGABEAK

Ondokoak dira Plan Estrategikoaren indarraldirako kalkulatu diren adingabeen kopuruak, kontuan hartuta adingabeen %3 Haurren Babeserako sistemaren esku-hartzearen xede dela.

**92. taula:** 18 urtetik beherako populazioaren proiekzioa

| Urtea | Nafarroako populazio osoa | 18 urtetik beherakoak | Igoeraren portzentajea | Esku-hartzearen xede litzatekeen populazioa |
|---|---|---|---|---|
| **2007** | 605.876 | 104.560 | %1,99 | 3.300 |
| **2008** | 611.848 | 106.637 | %2,08 | 3.309 |
| **2009** | 617.448 | 108.859 | %2,17 | 3.332 |
| **2010** | 622.659 | 111.217 | %2,23 | 3.355 |
| **2011** | 627.640 | 113.694 | %2,24 | 3.378 |
| **2012** | 632.515 | 116.236 | | 3.402 |

Iturria:

GENERO INDARKERIAREN BIKTIMAK

Genero indarkeriari neurria hartzeko erreferentzia gisa 2007an aurkeztutako salaketa kopurua erabili dugu, 989, eta urte horretan eman ziren 383 babes-aginduak, emakumeen kontrako indarkeriari buruzko Nafarroako Foru Komunitateko 2007ko txostenaren datuen arabera.

Aintzat hartzekoa da, halaber, oinarrizko gizarte zerbitzuak erabili eta “tratu txarren” egoeren berri eman zituzten pertsonen kopurua (arreta falta, tratu txar fisikoak, tratu umiliagarriak eta sexu abusuak). 2007an 490 pertsonak hartu zuten arreta.

## IV. ESKAERA ERREALAREN AZTERKETA

Gizarte zerbitzuen hartzaile diren pertsonen eskaera aztertzean ez dira ahantzi behar abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legea eta, batez ere, Gizarte zerbitzu orokorren zorroa. Arau horiek, eskubide subjektiboa aitortu ez ezik zehaztu ere egiten dute prestazio bermatuen kasuan -gizarte zerbitzu orokorren zorroan, hain zuzen-, eta ezarri Foru Komunitateko Administrazioak eskubidea emateko duen epea.

Beraz, itxaron zerrendak aztertzean kontuan hartu beharreko aldagaiak hauek dira:

- Zorroaren jarduketa eremua.
- 65 urtetik gorako edo beherako pertsonak.
- Eskatutako zerbitzu mota.
- Balorazioak eginik dauden.
- Prestazio bermatuetarako ezarritako baldintzak betetzen diren.
- Prestazioa emateko epea.
- Prestazioak gehitzeko beharra, eskubideen bermatzea betetzeko.

Ondotik ageri dira Gizarte Gaietako Departamentuak arlo guztietan kudeatzen dituen baliabideetako itxaron zerrendei buruzko datuak: ezgaitasuna, mendekotasuna, buru nahaste larria, gizarte bazterketa, adingabeak eta genero indarkeria.

### IV.1. MENDEKOTASUNA DUTEN ADINEKO PERTSONAK.

Gizarte zerbitzuei buruzko 15/2006 Foru Legean eta zorroan xedatutakoari jarraikiz zerbitzuak bermatu behar zaizkien eskatzaileei erantzuteko, egungo itxaron zerrendaren eta balizko eskaeraren arabera, plaza publiko hauek beharko lirateke:

- Nafarroako Mendekotasun Agentziak emandako datuen arabera, mendekotasun handiaren eta larriaren balorazioa jaso duten 2.600 pertsonak (arreta jasotzen dutenak barne) beharko lukete egoitzako plaza; gaur egun, ezaugarri horiek betetzen dituzten plazen eskaintza publikoa 883koa da, eta departamentua pixkanaka joanen da pertsona horiei erantzuteko behar diren plazak hitzartzen, kopuru absolututan 1.717.
- Eguneko arretari dagokionez, Nafarroako Gobernuaren asmoa da %0,75eko estaldura lortzea, hau da, 793 plaza; zerbitzu honetako eskaintza 619 plazakoa da, eta horietatik 91 publikoak dira.

Alde batetik, plaza horiek ituntzen joan beharko lirateke gutxika, Iruña eta Iruñerriko Barrutian dagoen eskaerari erantzuteko, eta bestetik itun horiek zabaldu gizarte zerbitzuen beste esparru batzuetara.

Ondoko datuak espedientea itxaron zerrendan duten pertsonenak dira soilik.

**93. taula:** Itxaron zerrendan dauden pertsonak, barrutiaren eta plaza motaren arabera

| Plaza psikogeriatrikoak | Mendekotasuna dutenen plazak | | Egoitzako plazak, guztira | Eguneko zentroa |
|---|---|---|---|---|
| Iruña eta Iruñerria | 174 | 44 | 218 | 21 |
| Ipar-ekialdea | 4 | 0 | 4 | |
| Ipar-mendebaldea | 19 | 6 | 25 | |
| Lizarra | 14 | 4 | 18 | |
| Tafalla | 6 | 0 | 6 | |
| Tutera | 6 | 1 | 7 | 4 |
| GUZTIRA | 223 | 55 | 278 | 25 |

Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia

**94. taula:** Itxaron zerrendan dauden pertsonen kopurua, bermatu beharreko arrazoiengatik, gizarte zerbitzuen barrutien arabera

| ESKUALDEAK | Mendekotasun graduaren arabera | Arazo sozial larriagatik (4) | GUZTIRA |
|---|---|---|---|
| Iruña eta Iruñerria | 153 | 21 | 174 |
| Ipar-ekialdea | 3 | 1 | 4 |
| Ipar-mendebaldea | 15 | 4 | 19 |
| Lizarra | 11 | 4 | 14 |
| Tafalla | 5 | 1 | 6 |
| Tutera | 6 | 0 | 6 |
| **Guztira** | **193** | **31** | **224** |

Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia

**95. taula:** Plaza psikogeriatrikoen kopurua, patologiaren eta arazo sozialen arabera, barrutiz barruti.

| ESKUALDEAK | Eritasun degeneratiboa | | Buru-eritasuna | | Toxikoen kontsumoa | | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Mend. gradua | Arazo sozialak | Mend. gradua | Arazo sozialak | Mend. gradua | Arazo sozialak | |
| Iruña eta Iruñerria | 28 | 1 | 3 | 11 | 0 | 1 | 44 |
| Ipar-ekialdea | 0 | | 1 | 1 | | 0 | 2 |
| Ipar-mendebaldea | 4 | | 0 | | 0 | 1 | 5 |
| Lizarra | 1 | 1 | 1 | 1 | | 1 | 5 |
| Tafalla | 0 | | | | | | 0 |
| Tutera | 1 | | | | | | 1 |
| **Guztira** | **34** | **2** | **5** | **13** | **0** | **3** | **57** |

Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia

Datu hauek gutxi gorabeherakoak badira ere, PIA eta balorazio ekonomikoa egiteko duten kasu guztiak falta baitira, haien azterketatik ateratzen den ondorioa da 150 plaza gehiago beharko liratekeela itxaron zerrendan dauden eta mendekotasun handia edo larria duten pertsonei tokia bermatzeko. Eskaera handiena Iruñean eta Iruñerrian dago. Horretarako, egoitzako plazen berrantolaketa egin beharko litzateke, bai eta mendekotasun handia nahiz larria duten pertsonei arreta emateko behar direnak itundu ere.

*(4) Itxaron zerrendan arazo sozial larriagatik edo/eta mendekotasun sozialagatik dauden pertsonak ezin dira aintzat hartu azterketa harik eta onartu arte baremo berariazko bat familia gatazka larriak edo familiako sostengu egokiaren falta baloratzeko.*

IV.2. EZGAITASUNA

**96. taula:** Itxaron zerrendan dauden pertsonak, zerbitzu motaren eta gizarte zerbitzuen barrutien arabera

| Plaza mota | Iruña | Tutera | Tafalla | Lizarra | Ipar-mendebaldea | Ipar-ekialdea | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Eguneko A. | 3 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | **3** |
| Egoitza | 27 | 6 | 1 | 2 | 3 | 1 | **40** |
| E. Funtzionala | 22 | 4 | 2 | 4 | 3 | 4 | **39** |
| **Guztira** | **52** | **10** | **3** | **6** | **6** | **5** | **82** |

Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia

82 pertsona horietatik, 41k BVDren balorazioa dute:

**97. taula:** Itxaron zerrendan dauden pertsonak, mendekotasun mailaren arabera

| Plaza mota | Mend. Handia 2 | Mend. Handia 1 | Mend. Larria 2 | Mend. Larria 1 | Mend. Mod. 2 | Mend. Mod. 1 | Mend. ez | Baloratutakoak, guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Eguneko A. | 1 | 1 | 1 | | | | | **3** |
| Egoitza | 9 | 4 | 5 | 3 | 1 | 7 | 1 | **30** |
| E. funtzionala | | | | 1 | 3 | 0 | 4 | **8** |
| **Guztira** | **10** | **5** | **6** | **4** | **4** | **7** | **5** | **41** |

Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia

**Eguneko Arretan** 3 pertsona daude Iruñean. Hiruen mendekotasun graduek eta mailek jaso duten balorazioa bermatu beharrekoena da. Eguneko arreta Foru Komunitatearen esparruko baliabidea da. Eguneko arretarako 76 plaza eskaintzen dira, eta horietatik 9 libre daude, eta beraz mendekotasun handiaren edo larriaren balorazioa jaso duten pertsonei zerbitzu hau bermatzeko ez litzateke beharrezkoa izanen plaza kopurua handitzea.

**Egoitzako arretan** 40 pertsona daude itxaron zerrendan, eta horietatik 21 bermatu beharrekoak dira, hau da, mendekotasun handiaren eta larriaren balorazioa jaso dutenak. Eskaera horri erabateko erantzuna emanen zaio ezgaitasuna dutenen arreta integralerako zentro berriarekin, Sarrigurengo “Las Hayas” zentroarekin alegia.

**Etxebizitza Funtzionale**rako itxaron zerrendari dagokionez, berriz, bertan dauden 39 pertsonetatik 18k %55eko elbarritasuna edo handiagoa dute. Kasu horietan sei hilabeteko epean bermatu beharko litzaieke baliabide hau gizarte zerbitzuen zorroa onartzen denetik hasita. Foru Komunitatearen esparruko baliabidea denez, etxebizitza bat edo bi abian jarri beharko lirateke, bakoitzeko plaza kopuruaren arabera. Kontuan hartu behar da, gainera, ezgaitasun fisikoa duten pertsonek ere eska dezaketela etxebizitza mota hau, baliabide honetarako baldintza egokiak betetzen dituztenak badirelako, ofizialki horren berri ez badugu ere.

**Zentro okupazional**en kasuan 10 pertsona daude itxaron zerrendan, eta erantzuna eman ahal zaie zentro horiek kudeatzen dituzten entitateekiko lankidetza hitzarmenetan plaza kopurua handituz, baina zerbitzua ez da bermatua gizarte zerbitzu orokorren zorroaren arabera.

ADIMENEKO EZGAITASUNA ETA JOKABIDE-AREN NAHASTEA

**98. taula:** Adimeneko ezgaitasuna eta jokabidearen nahastea dutenen itxaron zerrendan pertsona hauek daude, zerbitzu motaren arabera

| Plaza mota | Iruña | Tutera | Tafalla | Lizarra | Ipar-mendebaldea | Ipar-ekialdea | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Egoitza | 6 | 4 | 1 | 1 | 1 | 0 | **13** |
| **Guztira** | **6** | **4** | **1** | **1** | **1** | **0** | **13** |

Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia

13 pertsona horietatik, hauek dute BVDren balorazioa. 3.

**99. taula:** Itxaron zerrendan dauden pertsonak, mendekotasuna baloratua dutenak

| Plaza mota | Mend. Handia 2 | Mend. Handia 1 | Mend. Larria 2 | Mend. Larria 1 | Mend. Larria 2 | Mend. Mod. 1 | Mend. ez | Baloratuak, guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Egoitza | 0 | 0 | 1 | 1 | 0 | 1 | 0 | **3** |
| **Guztira** | | | **1** | **1** | | **1** | | **3** |

Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia

Foru Komunitatearen esparruko zerbitzua denez, eskaerari erantzuna emanen litzaioke ezaugarri horiek dituen modulu batekin: 15 plazakoa da eta Tuterako La Atalaya zentroan inauguratu da.

IV.3. BURU-NAHASTE LARRIA

• Tutoretzapeko etxebizitzetako plazetarako itxaron zerrendan dauden pertsonak: 48.

48 pertsonetatik 39k duten elbarritasuna %55ekoa edo handiagoa da, eta 39 horietatik batek baizik ez du elbarritasun gradu hori. Gainerakoek %65etik gorakoa dute. Ezaugarri horietarako zerbitzu egokia, gizarte zerbitzuen zorroaren arabera, etxe-egoitza bat izanen litzateke, beraz, kontuan harturik 2011rako bi etxe-egoitza eraikiko direla Iruña eta Iruñerriko Barrutian, zerbitzuaz baliatzea gizarte zerbitzuen zorroan aipatzen diren epeetan bermatuko litzaieke pertsona horiei.

• BELEko (Buru-eritasunerako laguntzarekiko egoitza) plazetarako itxaron zerrendan dauden pertsonak: 81 pertsona.

• Mendekotasunaren balorazioa egina duten pertsonak: 23.

**100. taula:** Mendekotasunaren balorazioa jaso dutenak

| **Mendekotasun graduak** | **Pertsona kopurua** |
|---|---|
| Mendekotasunik ez dutenak | 11 |
| Mendekotasun moderatua 1. maila | 8 |
| Mendekotasun moderatua 2. maila | 2 |
| Mendekotasun larria 1. maila | 1 |
| Mendekotasun larria 2. maila | 1 |
| Mendekotasun handia, 1. maila: | 0 |
| Mendekotasun handia, 2. maila | 0 |
| **Guztira** | **23** |

Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia

Itxaron zerrendan 81 pertsona daude, eta horietatik 23k baizik ez dute mendekotasunaren balorazioa, zeinetatik bi babesaren xedea izanen liratekeen plan estrategiko hau ezartzean. proportzio hori itxaron zerrendan dauden eta baloraziorik ez duten gainerakoekin aplikatuz gero, kalkulua 10 plazakoa izanen litzateke, hau da, buru-nahaste larria eta mendekotasuna duten pertsonentzako babesa bermatzeko behar direnak.

Zentro okupazionalerako itxaron zerrendan dauden pertsonen kopurua. Iruña eta Iruñerriko barrutian dago itxaron zerrenda, 21 pertsonarekin.

**101. taula:** Zentro okupazionaletarako itxaron zerrendan dauden pertsonak, gizarte zerbitzuen barrutien arabera

| **Gizarte zerbitzuen barrutiak** | **Iruña eta Iruñerria** |
|---|---|
| Itxaron zerrendan dauden pertsonak | 21 |
| Guztira | 21 |

Iturria: Nafarroako Mendekotasun Agentzia

IV.4. GIZARTE BAZTERKETA

Bizi baldintzei buruzko inkestak emandako datuen arabera, pobrezia arriskuan dauden pertsonen portzentajea %18koa da, eta beraz arlo sozialeko politikaren lehentasunezko jarduketetako bat gizarteratzeko neurri aktiboak sustatzea izan beharko da; horietako bat izanen da, garrantzitsuenetakoa, pertsona batentzako oinarrizko errenta hiru urtez parekatzea lansarien arteko gutxieneko soldatarekin, akonpainamendu sozialaren sustapenarekin batera, ingurune irekian esku hartzeko taldeen bitartez, bai gizarteratze eta laneratzean (GLT) bai etxebizitzaren bidezko gizarteratzean (EG).

IV.5. ADINGABEAK

**Behaketa eta harrera zentroa**

Familia, Haur eta Kontsumoaren Zuzendaritza Nagusiaren datuen arabera, une honetan 7 pertsona daude itxaron zerrendan, eta COAn 12 urtetik beherakoentzat baimentzen duen plaza kopurua baino 5 pertsona gehiago; kontuan hartzen badugu prestazio hau emateko gizarte zerbitzuen zorroan ezarritako epea berehalakoa dela, 5 plaza gehitu beharko lirateke eskubidea bermatzeko.

12 urtetik gorakoentzako COAri dagokionez, 9 pertsona daude itxaron zerrendan eta baimendutako plaza kopurua baino 7 gehiago; beraz, lehen aipatutako irizpideekin bat, zortzi plaza gehitu beharko lirateke.

**Familiako esku-hartze zerbitzua.**

Programa honetan 12 familia daude itxaron zerrendan, beraz zuzeneko esku-hartzeko profesionalen kopurua handitu beharko litzateke.

**Egoitzako harrera zerbitzua**

Iturri horren beraren arabera eta kontuan hartuta 12 pertsona daudela itxaron zerrendan, 11 plaza berri sortu beharko lirateke zerbitzu honetarako.

IV.6. GENERO INDARKERIAREN BIKTIMAK.

**102. taula:** Genero indarkeriaren biktimentzako arretaren baliabideetako batez besteko erabilera

| **Baliabideak** | **Erabilera datuen portzentajea** |
|---|---|
| Larrialdietarako zentroa | %47,7 |
| Abegi Etxea | %69,70 |
| Harrera etxebizitza | %75,0 |

Iturria: Toki Entitateentzako Koordinazio eta Lankidetza Zerbitzua.

Genero indarkeriaren biktimentzako egoitza-baliabideen erabilera aztertuta, ondorioa da egungo plaza eskaintzarekin balizko eskaerari eta eskaera errealari aurre egiten zaiola. Halere, aurkeztutako salaketak eta oinarrizko gizarte zerbitzuetan jasotako eskaerak ikusita, beharrezkoa da genero indarkeriaren biktimei arreta emateko talde integralak sortzea.

## V. DIAGNOSTIKO ESTRATEGIKOA

V.1. INDARRAK/AUKERAK, MEHATXUAK/AHULEZIAK

AMIA DIAGNOSTIKOA

Balorazio diagnostikorako metodologia hau erabiliz, Nafarroako gizarte zerbitzuen sistemaren indarrak eta ahultasunak barnetik aztertu dira eta aukerak eta mehatxuak, berriz, kanpotik.

Ekitaldiko helburua izan da Nafarroako gizarte zerbitzuen egungo egoeraren diagnostikoa egitea, estrategia errealistak diseinatzeko eta helburuak ezartzeko, batetik indarrak eta aukerak sendotu eta, bestetik, ahultasun eta mehatxuei aurre egiteko.

Plangintza eta Azpiegitura Zerbitzuak galdetegi bat prestatu zuen gizarte zerbitzuen sistemari buruz jendeak duen iritziaren berri izateko; galdera horiek batzorde tekniko eta zuzendaritza batzordeko kideei helarazi zitzaizkien, bai eta departamentuko teknikariei ere, bete eta talde eragileari bidaltzeko. Talde honek 20 galdetegi jaso zituen, 1.000 ideia-iritzi ingururekin.

Ideia-iritziak aztertu, antolatu eta sailkatu ziren agiri berri batean, eta hura aurreko fasean parte hartu zutenei bidali zitzaien; partaide horiek, zeinek bere aldetik, indar, ahultasun, aukera eta mehatxu nabarmenenak identifikatu eta lehentasunaren arabera ordenatu zituzten.

Bigarren fase honen azterketa egin ondoren, departamentuak balorazio altuena jasotako 3 indar, ahultasun, aukera eta mehatxuak identifikatu zituen, bai eta bilatu ere indarrek aukerekin eta mehatxuekin zuten korrelazioa, eta ahultasunek aukerekin eta mehatxuekin. Lortutako emaitzak bide emanen digu estrategia errealistak diseinatu eta helburuak ezartzeko, zeinak, batetik, kanpoko aukerez baliatuko baitira barneko indarren bidez eta, bestetik, ahultasunak gaindituko, aukerez profitatzeko eta mehatxuei aurre egiteko.

| INDARRAK | | AUKERAK | |
|---|---|---|---|
| F1. | Gizarte zerbitzuei buruzko legeak gizarte zerbitzuei buruzko kontzepzio berria ekarri du, eta gizarte ongizatearen Estatuaren laugarren zutabe gisa finkatzen ditu, osasunarekin, hezkuntzarekin eta pentsioekin batera. | O1. | Honakoak hobetzeko bide ematen duten tresnak izatea: kudeaketa ekonomikoa, eskura dagoen informazioa, ezagutza, irudi korporatiboa, emaitzen neurketa, hartzaileen asetze-maila… |
| F2: | Gizarte zerbitzuen sistemak baliabide eta itun sare dibertsifikatua du (irabazi asmorik gabeko entitateak, kudeaketa entitateak, enpresak, sareko lanaren esperientziak...), herritarrengandik eta esku hartzen duen ehun sozialetik hurbil dagoena. | O2. | Gizarte zerbitzuen esku-hartzean profesionalizazio eta espezializazio handiagoa lortzera bideratutako joera sozial finkatua. |
| F3. | Bitarteko gizarte zerbitzuak ezartzearen aldeko apustua oinarrizko arreta osatzeko: Gizarte zerbitzuetako zentroak. | O3. | Adostasun soziala herritarren eta erakundeen partaidetza erraztu beharraren inguruan, gizarte zerbitzuetatik erantzuten diren beharrei soluzioak bilatzen. |
| **AHULTASUNAK** | | **MEHATXUAK** | |
| D1. | Ez dago plangintza estrategikorik. Egindako plangintza sektorekoa izan da eta batzuetan epe laburreko erantzunak eman beharrak baldintzatua; zenbaitetan asmoen adierazpena baizik ez da izan. | A1. | Babes sozialeko sistemen arteko koordinaziorako eta eskumen banaketarako arazoak. |
| D2. | Koordinazio falta eta bikoizteak sistemaren mailen artean (planifikazioa/kudeaketa, oinarrizko arreta eta espezializatua…) eta beste departamentu batzuekin (Osasuna, Etxebizitza, Hezkuntza, Enplegua…). | A2. | Aldaketa azkarrak errealitate sozialean, behar sozial berriak dakartzatenak. |
| D3. | Ez dago irizpide bateraturik gizarte zerbitzuetako kalitateari buruz. Kalitate planik ez dago. | A3 | Lurralde sakabanatua eta zatitua, eskualdeen arabera bereizitako populazio taldeekin. |

## VI. NAFARROAKO GIZARTE ZERBITZUEN PLAN ESTRATEGIKOA 2008-2012

VI.1. IKUSPEGIA, EGINKIZUNA, PRINTZIPIOAK ETA HELBURUAK

IKUSPEGIA:

• Gizarte zerbitzuen sistemaren egitura halako moldekoa izanen da non ekitate irizpideekin arreta eman ahal izanen baitzaie administrazio publikoetatik arreta soziala jasotzeko eskubidea duten pertsona guztiei.

EGINKIZUNA:

• Gizarte zerbitzuen sare unibertsal, bermatzaile eta kalitatekoa garatzea lurralde osoan modu harmonikoan, pertsonen oinarrizko beharrei, eta lehentasunez ahulenei, erantzuteko.

PRINTZIPIOAK:

A) Gizarte zerbitzuen sistema publikoak, epe horretan, Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legearen 5. artikuluan jasotako printzipioen arabera funtzionatu beharko du. Hauek dira printzipio horiek:

• Unibertsaltasuna.

• Erantzukizun publikoa.

• Berdintasuna.

• Elkartasuna.

• Hurbiltasuna eta dezentralizazioa

• Herritarren partaidetza.

• Arreta pertsonalizatua eta integrala.

• Normalizazioa.

• Prebentzioa.

• Autonomia pertsonala sustatzea.

• Administrazioen arteko koordinazioa eta lankidetza.

• Kalitatea.

• Boluntario lanaren sustapena.

B) Horiez gain, plan honetan aurreikusitako neurri eta ekintzak printzipio hauetara bideratuta bete beharko dira:

• Pertsonengana bideratua: plan honetan aurreikusitako neurri eta ekintzak pertsonengan eta haien bizi kalitatean oinarritutako plangintzara bideratuta beteko dira.

• Lehentasunez pertsona ahulenei arreta ematea: plan honetan aurreikusitako neurri eta ekintzak betetzean lehentasuna emanen zaie, haien artetik, pertsona ahulenei arreta emateko xedea dutenei.

• Genero berdintasuna: plan honetan aurreikusitako neurri eta ekintzak emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatu eta bermatzera bideratuta beteko dira.

• Hautatzeko askatasuna: plan honetan aurreikusitako neurri eta ekintzak betetzean erabiltzaileek jaso ditzaketen prestazioen artean hautatzeko askatasunaren errespetua sustatuko da.

• Zerbitzua emateko lehentasuna: plan honetan aurreikusitako neurri eta jarduketen artean, lehentasuna emanen zaio behar adinako baliabide eta zerbitzu sarea garatzera eta zerbitzuak ematean oinarritutako arreta sozialeko eredua sendotzera bideratuta daudenak betetzeari.

• Etxean edo/eta ingurunean gelditzeko laguntza: norbere etxean eta/edo ingurunean gelditzeko aukera errazteko neurriak eta ekintzak bultzatuko dira, familiarengandik eta gizartetik deserrotzea saihesteko; horretarako garrantzi berezia emanen zaie prebentzioari eta autonomia pertsonalaren sustapenari.

• Zerbitzuarekin lotutako prestazioaren salbuespeneko izaera: plan honetan aurreikusitako neurriak eta ekintzak betetzean bermatu beharko da ordezko prestazio ekonomikoak, zerbitzurik ez dagoenean ematen direnak, salbuespenekoak direla.

• Enpleguaren kalitatea: Plan honetan aurreikusitako neurriak eta ekintzak gizarte zerbitzuen profesionalen enpleguaren kalitatea hobetzeko helburuarekin beteko dira.

• Eskaera berdintasuna eta kontrol etengabea: Plan honetan aurreikusitako neurri eta ekintzak beti araudi berari eta kalitate estandar berberei jarraikiz beteko direla bermatuko da, zein den ere zerbitzua ematen duena.

HELBURU OROKORRAK:

AMIA azterketaren ikuspegia, eginkizuna eta analisia kontuan harturik, Plan Estrategiko honekin abian jarriko den gizarte zerbitzuen sistema publiko berriak helburu hauek bete behar ditu:

1. Nafarroako herritarrek jakinen dute zer diren gizarte zerbitzuak eta nola funtzionatzen duen sistemak.

2. Nafarroako herritarrek, edozein dela ere bizi diren udalerria, berdintasunez jaso ahal izanen dituzte gutxieneko prestazio homogeneo batzuk, pertsona ahulenen kasuan eskubide izanen direnak.

3. Pertsonek libreki hautatu ahal izanen dute nolako arreta nahi duten, eta gizarte zerbitzuen

sistema publikoak behar adinako zerbitzu sarea izanen du, horretarako.

4. Pertsonek bere ingurunean gelditu eta erabateko integrazioa lortu ahal izanen dute.

5. Gizarte Zerbitzuen sistema publikoak zerbitzuen kalitatea bermatu eta etengabeko hobekuntza bultzatuko du.

6. Gizarte Zerbitzuen Sistema Publikoak sektoreko profesionalen enpleguaren kalitatea hobetuko du, profesionalizatuago eta espezializatuago egon daitezen.

7. Gizarte zerbitzuen sistema publikoa eraginkorragoa, ekitatiboagoa, malguagoa eta eragimen handiagokoa izanen da pertsonen beharrei erantzuteko garaian.

8. Gizarte Zerbitzuen sistema publikoak babes sozialeko beste sistemekiko koordinazioa hobetuko du.

ILDO ESTRATEGIKOAK:

Ildo estrategikoak Nafarroako Foru Komunitateko Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoan ezarritako helburuak lortzeko bideak dira.

Horiek zehazteko, abiapuntuak izan dira AMIA Diagnostikoa, Nafarroako Gobernuak onetsitako "Gobernu ekintza. Herritarrekiko konpromisoa", Nafarroa Plana 2012 eta ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsitako gizarte zerbitzu orokorren zorroaren edukia, bai eta plan hau egiteko erabili den partaidetza prozesuaren emaitza ere.

Hauek dira ildo estrategikoak:

1. ildo estrategikoa. Arau garapena.

2. ildo estrategikoa. Lehentasunezko arreta beharrak.

3. ildo estrategikoa. Gizarte zerbitzuen banaketa lurraldean eta eskualdeak.

4. ildo estrategikoa. Plangintza, kontrola eta ikuskapena.

5. ildo estrategikoa. Antolaketa eta kudeaketa.

6. ildo estrategikoa. Prestakuntza eta ikerketa.

7. ildo estrategikoa. Gizarte zerbitzuen kalitatea.

Haietako bakoitza, berriz, neurri eta jarduketa hauetan gauzatzen da:

**1. ildo estrategikoa: Arau garapena**

**1.1 neurria.** Gizarte zerbitzuei buruzko Foru Legea garatzea

Nafarroako Foru Komunitateko Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legeak, aurrekoa, 1983koa, ordezkatu duenak, gizarte zerbitzuen sistema publikoa garatzeko esparru orokorra ezarri du.

Haren aplikazio zehatzerako maila apalagoko kasuan kasuko arauen bidezko garapena behar da. Garapen horri pixkanaka eta modu antolatuan heldu behar zaio, herritarren eskubideak bermatzeari eta emandako arretaren kalitateari begira eragin handiena izan dezaketen arauei lehentasuna emanez. Horrela, Plan Estrategiko honen indarraldian honako alderdi hauei buruzko erregelamenduak onetsiko dira, **jarduketa hauekin**:

| | |
|---|---|
| **JARDUKETAK** | **1.1.1. jarduketa.** Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoetako programetako prestazioen garapena, finantzaketa eta kudeaketa, aukeran publikoa eta zuzena izanen baita. Garapenerako, etxeko arreta zerbitzua sustatuko da baliabide estrategiko gisa, udal autonomia errespetatuz; horretarako, zerbitzurako eredu egokiena zein den aztertuko da, erabiltzaileen beharretara moldatzeko.<br>Programak garatzean, ondoko langile-ratioa ezarriko da gutxienez ere.<br>5.000 biztanletik beherako osasun eskualde oinarrizkoetan:<br>▪ 1 Gizarte langile<br>▪ 1 Administrari<br>▪ 2 Familia langile<br>▪ 0,5 Gizarte hezitzaile<br>5.000 eta 7.499 biztanle bitarteko osasun eskualde oinarrizkoetan:<br>▪ 1,5 Gizarte langile<br>▪ 1 Administrari<br>▪ 3 Familia langile<br>▪ 1 Gizarte hezitzaile<br>7.500 eta 9.999 biztanle bitarteko osasun eskualde oinarrizkoetan:<br>▪ 1,75 Gizarte langile<br>▪ 1 Administrari<br>▪ 3 Familia langile<br>▪ 1 Gizarte hezitzaile<br>10.000 eta 14.999 biztanle bitarteko osasun eskualde oinarrizkoetan:<br>▪ 2,25 Gizarte langile<br>▪ 1 Administrari<br>▪ 3,5 Familia langile<br>▪ 1,5 Gizarte hezitzaile<br>15.000 eta 19.999 biztanle bitarteko osasun eskualde oinarrizkoetan:<br>▪ 3 Gizarte langile<br>▪ 1,5 Administrari<br>▪ 4 Familia langile<br>▪ 1,5 Gizarte hezitzaile<br>20.000 eta 30.000 biztanle bitarteko osasun eskualde oinarrizkoetan:<br>▪ 3 Gizarte langile<br>▪ 1,5 Administrari<br>▪ 4,5 Familia langile<br>▪ 2 Gizarte hezitzaile<br>30.000 biztanletik gorako osasun eskualde oinarrizkoetan:<br>▪ 4 Gizarte langile<br>▪ 1,5 Administrari<br>▪ 5 Familia langile<br>2 Gizarte hezitzaile |
| | **1.1.2. jarduketa** Oinarrizko gizarte zerbitzu, zerbitzu espezializatu eta gizarte zerbitzuetako zentroetako profesional anitzeko taldeen osaketa eta eginkizunak garatzea. |
| | **1.1.3. jarduketa**. Erreferentziako profesionala garatzea eta, zehazki, sistemak hura atxikitzeko modua eta erabiltzaileek hura hautatzeko modua. |

| | |
|---|---|
| JARDUKETAK | **1.1.4. jarduketa**. Gizarte zerbitzuen erabiltzaileen ahalmen ekonomikoa eta ordainketan parte hartzeko modua zehazteko irizpideak garatzea. Garapen horrek ziurtatuko du bi baremo baizik ez direla egonen talde bakoitzaren ahalmen ekonomikoa neurtzeko, prestazio motaren arabera, dela egoitzako zerbitzua, dela eguneko arreta. |
| | **1.1.5. jarduketa**<br>a) Kalitate-eskakizunen garapena, gutxieneko estandarrak eta kalitate-adierazleak, beharrezkoak baitira administrazio-baimenak, berariazko baimenak eta administrazio-homologazioak lortzeko eta Kalitate Planean ezarritakoarekin bat etorri beharko baitute.<br>b) b) Enpleguaren kalitateari buruzko irizpideen garapena, beharrezkoak baitira administrazio-baimenak, berariazko baimenak eta administrazio-homologazioak lortzeko eta Kalitate Planean ezarritakoarekin bat etorri beharko baitute eta lansari-baterakuntzarantz eta maila profesionalen homologaziorantz eta homogeneizaziorantz jo beharko baitute. Hori lortze aldera, mendekotasun egoeran dauden pertsonei laguntza emateko prestakuntza egokia bermatuko duten titulazioak garatuko dira, batez ere osasunaren narriadura gertatzen den egoeratan, eta berariazko titulazio arautuen homologazioa sustatuko da, baldin eta urte kopuru jakin batzuetako esperientzia egiaztatzen ahal bada mendekotasuna duten pertsonei laguntza ematen, bereziki egoitzetan,. |
| | **1.1.6. jarduketa**. Gizarte Zerbitzuen Erregistroa eta Baimen Berariazkoen Erregistroa garatzea. |
| | **1.1.7. jarduketa.** Etika Batzordea eta etika batzorde sektorialak edo zentrokoak garatzea, eta haien osaketa, eginkizunak eta jarduteko esparruak ezartzea. |
| | **1.1.8. jarduketa**. Gizarte zerbitzuen eta zerbitzu soziosanitarioen erabiltzaileen immobilizaziorako kasuak garatzea eta hala egiteko prozedurak. |
| | **1.1.9. jarduketa**<br>a) Egoitzako arretarako eta eguneko arretarako zentroetako –itunpekoak nahiz itunpekoak ez direnetako– partaidetza kontseiluak garatzea, eta haien osaketa eta eginkizunak ezartzea. Horretarako, kontuan hartuko dira zentroaren ezaugarriak, bai eta erabiltzaileenak ere, eta, kasuan-kasuan, egokitasun-suposizioak garatuko dira eragingarria izan dadin.<br>b) Egoiliarren ahaideek parte hartzeko aukera aztertuko da.<br>c) Kasuan kasuko toki entitateko zinegotzi baten parte-hartzea arautuko da, erakunde publikoek, itunpekoek edo irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuek kudeatutako zentroetan.<br>d) Ukitutako taldeek ordezkaritza izateko modurik egokiena bilatuko da. |
| | **1.1.10. jarduketa**<br>a) Mendekotasuna baloratu eta aitortzeko eta mendekotasuna duten pertsonen arretarako banakako programa prestatzeko prozedura garatzea.<br>b) Prozedura hau berria denez, esperientziak aginduko du horren aplikazioa egokitu behar den, bilatzen diren helburuei modurik ahalik eta objektiboenenan etengabe erantzun nahian.<br>c) Kontuan hartuko da baloratutako pertsonen egoera psikikoa eta soziala, eta mendekotasuna duen pertsona egoitza zentro batean ingresatuta baldin badago, zentro-baliabide hori, bere osotasunean, prozesuaren partetzat hartuko da, azken ebazpenera arte.<br>d) Erreklamazioak ebazteko, tresna zalu, seguru eta eraginkorrak garatuko dira. |

**1.2. neurria.** Gizarte zerbitzuen sistema publikoaren esparruko beste arau batzuk garatzea.

Gizarte Zerbitzuen sistema publikoari eragiten dioten heinean, honako foru lege hauek garatzeko erregelamenduak ere onetsiko dira:

| | |
|---|---|
| JARDU-KETAK | **1.2.1. Jarduketa**. Abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea, haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzkoa, erregelamenduz garatzea eta, berariaz, Haur eta Nerabeen arretarako kontseiluak eta Nafarroako Adopzioen Erregistroa. |
| | **1.2.2. jarduketa**. Bolondres lanari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legea erregelamenduz garatzea. |

**1.3. neurria.** Gizarte zerbitzu orokorren zorroko prestazioak garatzea.

Gizarte zerbitzu orokorren zorroa pertsonek gizarte zerbitzuez baliatzeko duten eskubidea zehazten duen araua da eta, beraz, gizarte zerbitzuen sistemaren aldaketarako erreferentziako tresna, laguntzan oinarritutako sistema izatetik eskubide zehatz aitortuak bermatzen dituen sistema izatera pasatu dela islatzen duena.

Hortaz, zorro horretan sartuta daude Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren erantzukizunekoak diren prestazio guztiak, bai eta, toki entitateen erantzukizunekoak diren arren, Foru Komunitateko lurralde osoan gutxienez bermatu behar direnak; prestazio bermatuak eta bermatu gabekoak bereizten dira, hau da, zorroak definitzen duten moduan, eskubide subjektibo gisa eskatu beharrekoak eta aurrekontuan dirua dagoenean eskatu ahalko direnak.

Zorroak bertan sartutako prestazio guztien alderdi hauek ezartzen ditu: xedea, izaera -bermatua edo bermatu gabekoa-, onuradunak, haietako bakoitzaz baliatzeko bete beharreko baldintza berariazkoak, zerbitzua edo arreta noiz eta nola eman, hartzaileei ordainketan parte hartzea eskatzeko aukera, bidezkoa denean, eta jarduketa esparrua. Horrez gain, prestazio bermatuen kasuan, administrazio eskudunak zerbitzua emateko epea ezartzen da –epe horretatik aurrera eskubideaz auzitegietan galde egin daiteke, Gizarte Zerbitzuen Foru Legearen 19.3 artikuluari jarraikiz-.

Aurrekoa gorabehera, zenbait prestaziok garapena beharko dute aurrerago, modu egokian aplikatzeko, aipatutako alderdi guztiak osotara zehaztu daitezen. Oinarrizko Arretako prestazioen kasuan, garapen hori Oinarrizko Arretako lau programak arautzen dituen foru dekretuaren bidez gauzatuko da eta, gainerako prestazioen kasuan, arau garapen hauek eginen dira:

| | |
|---|---|
| JARDUKETAK | **1.3.1. jarduketa**. Ezgaitasuna baloratzeko prozedura arautzen duen foru agindu bat onestea. |
| | **1.3.2. jarduketa**. Larrialdietako Telefono Zerbitzua arautzen duen foru agindu bat onestea. |
| | **1.3.3. jarduketa**<br>a) Egoitza zentroetan aldi baterako ingresatzeari buruzko foru agindu bat onestea, Foru Komunitateko esparruetako bakoitzean behar adina leku sortuta aldez aurretik.<br>b) Psikogeriatriako lekuak aldi baterako sortzeko aukera aztertuko da. |
| | **1.3.4. jarduketa.** Egoitzetan sartzeko, familia-gatazka larria edo familia-sostengu egokirik eza baloratzeko baremoa arautzen duen foru agindu bat onestea. |
| | **1.3.5. jarduketa.** Oinarrizko errenta arautzen duen apirilaren 19ko 120/1999 Foru Dekretua indargabetzea eta oinarrizko errenta arautzen duen foru agindu bat onestea. |
| | **1.3.6. jarduketa**. Larrialdi sozialetarako laguntza bereziak arautzen dituen foru agindu bat onestea. |
| | **1.3.7. jarduketa**. Familian eta gizartean integratzeko laguntzak arautzen dituen foru agindu bat onestea. |
| | **1.3.8. jarduketa**. Genero indarkeriaren biktimentzako larrialdiko laguntzak arautzen dituen foru agindu bat onestea. |
| | **1.3.9. jarduketa**. Genero indarkeriaren biktimei, baliabide falta eta zailtasun bereziak dituztela frogatzen badute, ematen zaizkien laguntzak arautzen dituen foru agindu bat onestea. |
| | **1.3.10. jarduketa**. Mendekotasuna duten pertsonak etxean gelditu eta haien zaintzaileei laguntzeko diru-laguntzak arautzen dituen foru agindu bat onestea. |
| | **1.3.11. jarduketa**. Mendekotasuna duten pertsonek laguntzaile pertsonala izateko diru-laguntzak arautzen dituen foru agindu bat onestea. |
| | **1.3.12. jarduketa**. Mendekotasuna duten pertsonek etxeko arreta jasotzeko gutxieneko laguntzak arautzen dituen foru agindu bat onestea. |
| | **1.3.13. jarduketa**. Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa eta haren salbuespen izaera arautzen dituen foru agindu bat onestea. |
| | **1.3.14. jarduketa.** Foru agindu bat onestea, gutxieneko laguntza-kalitatearen baldintzak eta etxeko laguntza zerbitzuetako arduradunen eta profesionalen prestakuntza arautzeko. |

**1.4 neurria.** Lanerako ikastegiei buruzko araudia.

Arau bat onestea, esker-saria jaso ahal izan dadin lanerako eginkizun horren pizgarri gisa. Bateragarriak izanen dira, ondorio guztietarako, esker-sari horiek eta aldizkako laguntza ekonomikoak nahiz etorkizunean horren ordez egon daitekeen beste edozein.

Arau hori beste araudi orokorrago baten parte izan ahalko da, esate baterako lanerako ikastegien jarduna eta baldintzak arautzeko etorkizunean onesten den foru agindu edo dekretu baten parte.

**1.5 neurria.** Zaharren eguneko zentroetarako eta zahar-etxeetarako probintziako hitzarmen-markoa.

Aldeen arteko negoziazio autonomo baten bidez, probintziako hitzarmen-markoa sustatzea zaharren eguneko zentroetako eta zahar-etxeetako langileen sektorearentzat.

**1.6 neurria.** Arauen hedapena eta zabalkundea egitea.

Gizarte zerbitzuen eskumena duen departamentuak erraztu eta sustatu beharko du profesionalek, gizarte eragileek, ekimen pribatuko entitateek eta herritarrek oro har gizarte zerbitzuen sistema publikoaren funtzionamendua arautzen duten arauen eta haren jarduketen berri izatea. Horretarako, ondoko jarduketa hau egin beharko du:

| | |
|---|---|
| JARDUKETAK | **1.6.1. jarduketa.** Komunikazio plan integral bat diseinatu eta abian jartzea, araudia jasoko duen argitalpena, departamentuaren web orrialdearen diseinu berria eta hedapen eta informaziorako beste ekintza batzuk barne hartuko dituena. |
| | **1.6.2. jarduketa.** Gizarte zerbitzuen eta zerbitzu soziosanitarioen erabiltzaileak immobilizatzeari buruzko lege eta erregelamendu arauak eta esku hartzeko protokoloak bilduko dituen argitalpen bat. |

**2. ildo estrategikoa: Lehentasunezko arreta beharrak.**

Erantzun beharreko premietan lehentasunak jartzeko, lehenengo eta behin bermatu beharra dago geroz eta ahalegin handiagoa eta proportziozkoa eginen dela gizarte zerbitzuen arloan esku hartzeak dituen lau eremuetan hartzaile diren talde guztientzat (mendekotasuna duten edo izateko arriskuan diren pertsonentzako arreta -adineko pertsonak, ezgaitasuna duten pertsonak eta, berariaz, buru-eritasuna dutenak hartzen ditu bere baitan-, gizartean bazterturik edo hala gertatzeko arriskuan dauden pertsonentzako arreta, babes gabeziako edo gatazka sozialeko egoeran dauden adingabeentzako arreta eta genero indarkeriaren biktimentzako arreta). Lehentasunak ezarri behar dira, halaber, talde horietako bakoitzarentzat, plan honetan adierazitako printzipioak eta, berariaz, gizarte zerbitzu orokorren zorroak ezarritako betebeharrak kontuan hartuta.

**2.1 neurria.** Lehentasunezko beharrak talde hauentzako arretaren arloan: mendekotasuna duten pertsonak, adinekoak, ezgaitasuna duten pertsonak eta buru-eritasuna dutenak.

| | |
|---|---|
| JARDUKETAK | **2.1.1 Jarduketa**. Gizarte zerbitzuen sistema publikoko zerbitzu guztiek arreta pertsonala emateko eta mendekotasun egoera larriagotzeari aurrea hartzeko programak eduki beharko dituzte, eta horretarako behar diren neurriak ezarriko dituzte Mendekotasunaren Prebentziorako Programaren barruan. |
| | **2.1.2. jarduketa**. Behar adinako zerbitzu sarea garatzea eta zerbitzuak ematean oinarritutako arreta sozialeko eredua sustatzea azpiegitura hauek eraikiz: |
| | ▪ "Las Hayas", Adimeneko Ezgaitasuna dutenen Arreta Integralerako Zentroa, Sarrigurenen. |
| | ▪ Mendekotasuna duten Pertsonen Arretarako Funtzio anitzeko Zentroa, Iruñerrian. |
| | ▪ Egoitza-etxea eta EPZ, buru-nahaste larria duten pertsonentzat, Iruñean. |
| | ▪ Egoitza-etxea eta Errehabilitazio Psikosozialerako Zentroa, buru-nahaste larria duten pertsonentzat, Sarrigurenen. |
| | ▪ Egoitza-etxea eta Errehabilitazio Psikosozialerako Zentroa, buru-nahaste larria duten pertsonentzat, Tuteran. |
| | ▪ Buru-nahaste larria duten pertsonentzako egoitzarako eta arretarako eraikina, Lizarran. |
| | ▪ Zentro okupazionala, errehabilitazio sozialeko plazekin, buru-nahaste larria duten pertsonentzat, Tafallan. |
| | ▪ Oncineda, adimeneko ezgaitasuna duten pertsonentzako egoitza handitzea, Lizarran. |
| | ▪ Baliabide eta Laguntza Teknikoen Zentroa Iruñean eta Tuteran. |
| | ▪ Monjardin, adimeneko ezgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentro berria, Iruñean. |

| | |
|---|---|
| JARDUKETAK | **2.1.3. jarduketa**<br>a) Behar adinako zerbitzu sarea garatzea eta zerbitzuak ematean oinarritutako arreta sozialeko eredua sustatzea, mendekotasuna duten adineko pertsonentzako eguneko arretarako zentroak eraiki daitezen bultzatuz, barruti bakoitzean %0,90eko estaldura eta Iruña eta Iruñerriko barrutian %1ekoa lortzeko, eta ezgaitasuna eta buru-eritasuna duten pertsonentzako lojamendu alternatiboko zentroak sustatuz, gizarte zerbitzu orokorren zorroko zerbitzu bermatuen eskaerari erantzuteko.<br>b) Tutoretzako eta gainbegiratutako pisuen sarea –ezgaitasuna edo buru-eritasuna duten pertsonentzako etxebizitza nahikoz osatua– garatzea, gutxienez ere 49 leku (18 2009an eta 31 2010ean) dituena, Gizarte zerbitzu orokorren zorroak ziurtatzen duen eskaera osoa bete arte.<br>c) Aintzat hartuko da landa eremu sakabanatuetan eguneko laguntza zentroak sortzeko zailtasun berezia. Horretarako, eskualdeko kontzentrazio taldekatua sustatuko da, zerbitzuen arrazoizkotasuna ahalbidetzeko, eta kasuan-kasuan egokia den garraiobidea sustatu, erraztu eta erabiliko da.<br>d) Arlo bakoitzak, gutxienez ere, eguneko laguntza zentro bat izanen du, balizko eskaera betetzeko. |
| | **2.1.4. jarduketa.**<br>a) Egoitzetako plaza itunduen kopurua handitzea mendekotasun handia eta larria duten adineko pertsonentzat, eskaera osoari erantzuteko behar adina, eta beharrezko estalduraren kontrola, jarraipena eta aurreikuspena egitea, zentro behar bezala kreditatu eta homologatuetan kontzentrazio egokia egin ahal izateko, mendekotasuna duten pertsonentzako laguntza kalitatezkoa ziurtatze aldera.<br>b) Itunek, zeinahi motatakoak direla ere, zentroen bideragarritasuna ahalbidetzeko behar adinako finantzaketa ziurtatuko dute, denbora-jarraitutasun handia emanez. |
| | **2.1.5. jarduketa.** Laguntzako neurriak ezartzea (informazioa, prestakuntza eta aholkularitza) mendekotasuna duten pertsonen familia zaintzaileentzat, bereziki emakumeentzat, Mendekotasunaren Prebentziorako Programan horretarako beharrezkoak diren neurriak hartuz. |
| | **2.1.6. jarduketa**. Buru-nahaste Larria duten pertsonen Arretarako Programan abian jarritako zerbitzuen azterketa eta ebaluazioa egitea, eta aldatu beharrekoak berrantolatzea, Ezgaitasuna duten Pertsonen Arretarako Plan Integralaren barruan. |
| | **2.1.7. jarduketa.** Ezgaitasuna eta buru-eritasuna duten pertsonentzako zentro okupazionalaren zerbitzua ezartzea prestazio bermatu gisa, Ezgaitasuna duten Pertsonen Arretarako Plan Integralaren barruan beharrezkoa den berrantolaketa eginen da. |
| | **2.1.8. jarduketa.** Buru-eritasunerako egoitza laguntzaduneko 60 plaza gehiago paratzea, familiei erantzun bat emate aldera eta Foru Komunitatetik urrun dauden zentroetako pertsonei itzultzeko aukera emate aldera. |
| | **2.1.9. jarduketa.** Egin beharreko jarduketak egitea, gizarte zerbitzu orokorren zorroan ezarritako zerbitzu ziurtatuak ez daitezen diruz lagundu eta zuzeneko nahiz zeharkako kudeaketa publikokoak izan daitezen. |
| | **2.1.10. jarduketa.** Arian-arian handitzea “Zahartze goiztiarreko laneratzeko unitatea” programa, Nafarroako eskualde bakoitzean gisa horretako programa bat egon dadin 2012 bukatu baino lehen. |

**2.2 neurria.** Gizartean bazterturik edo horrela gertatzeko arriskuan dauden pertsonentzako arretaren arloan dauden lehentasunezko beharrak.

| | |
|---|---|
| JARDUKETAK | **2.2.1. jarduketa**. Etxerik gabekoei lojamendu alternatiboa emateko zerbitzuak sustatzea, pasadizokoentzako aterpeak eraiki edo berritzea lagunduz, Iruñean, Altsasun, Tuteran eta Lizarran. |
| | **2.2.2 jarduketa**. Gizartean bazterturik dauden pertsonentzako zentro okupazionalaren zerbitzua ezartzea prestazio bermatu gisa, Bazterketa Sozialaren kontrako II. Planaren barruan beharrezkoa den berrantolaketa eginen da. |
| | **2.2.3. jarduketa**. Gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko neurriak hobetu, eta oinarrizko errenta lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzea, horretarako Bazterketa Sozialaren kontrako II. Planaren barruan beharrezkoa den berrantolaketa eginen da. |
| | **2.2.4. jarduketa**. Gizarteratzeko Etxebizitzaren Programaren aldaketa, horretarako Bazterketa Sozialaren kontrako II. Planaren barruan beharrezkoa den berrantolaketa eginen da. |
| | **2.2.5. jarduketa**. Gizarte zerbitzuen sistema publikoko zerbitzu guztiek autonomia pertsonala sustatu eta bazterketa soziala larriagotzeari aurrea hartzeko programak eduki beharko dituzte, eta horretarako behar diren neurriak ezarriko dituzte Bazterketa Sozialaren kontrako II. Planaren barruan. |
| | **2.2.6. jarduketa.** Bazterketa sozialaren kontrako politika guztien xedea izanen da pertsona horiek baliabide orokorrez balia daitezen sustatzea, eta ez talde bakoitzerako baliabide berariazkoez; horretarako, behar diren neurriak ezarriko dira Bazterketa Sozialaren kontrako II. Planean. |
| | **2.2.7. jarduketa**. Bazterketa sozialaren kontrako politika guztiekin bultzatuko den arreta sozialeko eredua akonpainamendu sozialean eta banakako ibilbideak egitean oinarriturik egonen da gehienbat. |
| | **2.2.8. jarduketa.** Koordinazio soziosanitariotik abiatuta, apopilo-etxeetan edo ostatuetan ostatu hartzeko laguntza jasotzen duten pertsonen beharrizan integralak aztertzea, erabiltzaile bakoitzaren beharrizanak zein diren jakite aldera. |
| | **2.2.9. jarduketa.** Pentsioen egokitasunak banan-banan aztertzea, eta arduradunaren figura ezartzea, pertsona horien medikazioa, higienea, elikadura eta gizarteratzean eragina duten bestelako faktoreak kontrolatzeko. |

**2.3. neurria.** Babes gabeziako edo gatazka sozialeko egoeran edo horrela gertatzeko arriskuan dauden adingabeentzako arretaren arloko lehentasunezko beharrak.

| | |
|---|---|
| JARDUKETAK | **2.3.1. jarduketa**. Behar adinako zerbitzu sarea garatzea honako azpiegitura hauek eraikiz:<br>▪ Adingabeak zentro batean sartzea dakarten neurri judizialak betetzeko zentroa Arangurenen.<br>▪ Adingabeak egoitzetan hartzeko zentroak handitzea, Iruñean edo Iruñerrian. |
| | **2.3.2. jarduketa**. Plaza itunduen kopurua handitzea egoitzako arreta emateko zentroetan eta behaketa eta harrerakoetan, dauden behar guztiak asetzeko.<br>Administrazioak ezartzen dituen itunek zerbitzuaren kalitate ezinhobea –laginle/erabiltzaile ratioa, profesionalen prestakuntza, lan egonkortasuna nahiz zerbitzua emateko azpiegiturak– ziurtatzeko behar adina diru jasoko dute.<br>Behaketa eta harrera programak hedapenari eta helburuei dagokienez beteko direla ziurtatuko da kasu guztietan. |
| | **2.3.3. jarduketa**. Atzeman eta esku-hartzeko ekintzak bultzatzea adingabeen ingurune komunitarioan.<br>▪ Haurren babes gabeziaren arloko sentsibilizazioa eta prestakuntza oinarrizko gizarte zerbitzuetako profesionalei, hezkuntza eta osasun langileei eta familiei. |
| | **2.3.4. jarduketa**. Sentsibilizazio kanpainak egitea familietan hartzea sustatzeko, adingabea etxean eta/edo ingurunean gelditu dadin, ahal dela, zentro batean sartu gabe. |
| | **2.3.5. jarduketa.** Profesionalen kopurua handitzea familiako esku-hartze zerbitzuan eta neurri judizialak ingurune irekian betearazteko zerbitzuan. |
| | **2.3.6.** jarduketa. Haur eta nerabeentzako arreta taldeen ezarpena eta kudeaketa publikoa, Nafarroako gizarte zerbitzuen arlo guztiei estaldura emanen dietena. |

**2.4. neurria.** Genero indarkeriaren biktimentzako arretaren arloko lehentasunezko beharrak.

| | |
|---|---|
| JARDU-KETA | **2.4.1. jarduketa.** Genero indarkeriaren biktimei arreta integrala emateko talde berri bi sortzea, estaldura ematearren gizarte zerbitzuen arlo guztiei. |

**2.5 neurria.** Gazteentzako laguntzaren arloko lehentasunezko beharrak.

| | |
|---|---|
| JARDU-KETA | **2.5.1. jarduketa.** Gazteen kontsultetarako erreferentzia-zentroa eraikitzea. |

**3. ildo estrategikoa: Gizarte zerbitzuen lurralde banaketa eta eremuak.**

**3.1. neurria.** Zerbitzuen eremuak eta lurralde erreferentziak erregelamenduz garatzea.

**JARDUKETAK**

**3.1.1. jarduketa**. Eremuen erregelamenduzko banaketa

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legeak, 41. eta 42. artikuluetan, adierazten du oinarrizko eskualdeen, gizarte zerbitzuen barrutien eta jarduketa bereziko oinarrizko eskualdeen lurralde mugaketa erregelamenduz onetsiko dela. Erregelamenduzko zehaztapen horretarako, Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan aurreikusitakoa izanen da abiapuntua, foru lege horren 29. artikuluan xedatu bezala. Hori dela eta, I. Plan honen eranskinean jaso dira gizarte zerbitzuen etorkizuneko eskualdeak, irizpide hauetan oinarriturik egindakoa:

a) Gizarte zerbitzuen oinarrizko eskualdeak, oinarrizko gizarte zerbitzuen esparrua, bat datoz funtsean osasun eskualdeekin.

b) Oinarrizko eskualdeen eta barrutien mugaketa geografikorako, irizpide hauek ere hartuko dira kontuan: populazioa, homogeneitate demografikoa eta arrisku sozialaren adierazleak, hala nola adinekoen kopurua, adin handikoena, mendekotasuna, ezgaitasuna, etxe kopurua, bakarrik bizi diren pertsonen kopurua, adingabeen proportzioa, lan merkatutik kanpo dauden elbarriak, etxean arreta jasotzen dutenak, egoitzetan daudenak eta eguneko zentroetara joaten direnak, atzerritarrak eta oinarrizko errenten kopurua.

c) Gizarte zerbitzuen barrutiek, gizarte zerbitzuen oinarrizko eskualdeen elkarketa diren aldetik, gizarte zerbitzuen zentro bana izanen dute.

Sakabanaketa geografikoaren eta eskuragarritasunaren irizpideak oinarritzat hartuta, Lizarrako eta ipar-mendebaldeko barrutiek tarteko banaketa ere izanen dute, azpibarrutiarena alegia.

Iruñerrian gizarte zerbitzuen bi zentro egonen dira: bata Iruñean eta bestea eskualdean.

**3.1.2. jarduketa**. Zerbitzuen lurralde-erreferentziak.

Gizarte zerbitzuen sistema publikoko zerbitzuen banaketa egitean, ahalik eta gehien bermatu beharko dira deszentralizazioa eta pertsonek sistema eskura izatea. Horretarako, haietako bakoitza eskatzea gizarte zerbitzu orokorren zorroan aurreikusitako jarduketa esparruaren araberakoa izanik ere, zerbitzuen erreferentziak hauek izanen dira:

- Oinarrizko eskualdearen edo jarduketa bereziko eskualdearen mailan:
  - Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako lau programak. Halere, Gizarte zerbitzuei buruzko Foru Legearen 31.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, lau programak garatzeko foru dekretuan horiek pixkanaka ezartzeko modua zehaztuko da, eta, ezartzerik ez dagoenean, zein kasutan bermatu beharko den zerbitzua barrutietan ematea eta berme horretarako prozedura.
- Barrutietan:
  - Adinekoei egoitzako arreta emateko zerbitzuak.
  - Gizarte zerbitzuetako zentroetako taldeak.
  - Adinekoei eguneroko arreta emateko zerbitzuak.
  - Adimeneko ezgaitasuna duten pertsonentzako zentro okupazionaleko zerbitzuak.
  - Arreta Goiztiarreko zerbitzuak.
  - Buru-nahaste larria duten pertsonentzako errehabilitazio psikosozialeko zerbitzuak Iruñean eta Iruñerrian, Tuteran, Lizarran eta Ipar-mendebaldean.
  - Ipar-ekialdean, kontuan hartuta barrutiaren ezaugarri bereziak, etxeko arreta sustatuko da oinarrizko gizarte zerbitzuetako lau programak garatzen dituen foru dekretuan.
- Azpibarrutietan:
  - Adinekoei egoitzako arreta emateko zerbitzuak.
  - Adinekoei eguneroko arreta emateko zerbitzuak.
- Nafarroako Foru Komunitatean: gainerako zerbitzuak.

**3.2. neurria.** Gizarte zerbitzuetako zentroak sortzea.

| | |
|---|---|
| JARDU-KETAK | **3.2.1. jarduketa**. Azpiegiturak egokitzea gizarte zerbitzuetako zentroak ezartzeko Tutera, Lizarra, Tafalla, Ipar-mendebalde eta Ipar-ekialdeko barrutietan eta gizarte zerbitzuetako zentro bat finantzatzea Iruña eta Iruñerriko barrutian.<br>Lizarra eta Ipar-mendebaldeko barrutietan ezarritako azpibarrutietan barruti bakoitzari atxikitako gizarte zerbitzuetako zentroaren menpeko egoitza bat jarri ahalko da. |

**3.3. neurria.** Gizarte zerbitzuen tokiko zorroak egiteko bultzada.

| | |
|---|---|
| JARDU-KETAK | **3.3.1. jarduketa.** Toki entitateei informazioa, laguntza eta aholkularitza ematea gizarte zerbitzuen tokiko zorroak egiteko. |

**4. ildo estrategikoa: Plangintza, kontrola eta ikuskapena.**

Plangintza sektoriala beharrak atzeman ahala sortzen joan da, eta jarduketa arlo zehatz batean egoera aldatzeko aukera emanen zuten epe ertaineko ekintzak programatzeko borondate politikoaren menpe. Prozedura horrek gizarte zerbitzuen sistemako arreta zatikatzeko arriskua dakar berarekin, eta elkarren artean komunikazio eskasa duten ataletan antolatzea. Hori dela eta, nahitaezkoa da Plan Estrategikoen bidez baliabideak eta sistemaren osagaiak harmonizatzea eta haien etekina ahal den onena izan dadin lortzea. Horretarako, zenbait neurri hartu behar dira, bai plangintza egiteko moduari dagokionez bai sistemaren funtzionamendua kontrolatu eta ikuskatzeko moduari dagokionez.

**4.1 neurria.** Plan sektorialak egin eta egokitzea, plangintzarako eredu homogeneoa aplikatzea eta planen berri ematea.

| | |
|---|---|
| JARDUKETAK | **4.1.1. jarduketa**. Ondoko plan sektorial eta programa hauek egitea.<br>▪ Nafarroako Bazterketa Sozialaren kontrako II. Plana.<br>▪ Adinekoen Sustapen eta Arretarako Plana (II. Plan Gerontologikoa).<br>▪ Ijitoen Arreta Integralerako Plana[5].<br>▪ Mendekotasunaren Prebentziorako Programa. |
| | **4.1.2. jarduketa**. Ondoko plan eta programa hauek egokitzea:<br>▪ Ezgaitasuna duten Pertsonen Arreta Integralerako Plana.<br>▪ Buru-nahaste larria duten pertsonen Arretarako Programa. |
| | **4.1.3. jarduketa**. Etxean gelditu eta familia zaintzaileei laguntzeko prestazio ekonomikoek epe laburrera, ertainera eta luzera duten bideragarritasuna eta arreta sozialean duten eragina aztertuko duen ikerketa bat egitea. |
| | **4.1.4. jarduketa**. Kudeaketarako tresna bat diseinatzea, Nafarroan dauden gizarte zerbitzuen mapa bat barne, pertsonen behar errealak eta, bereziki, aldaketa sozialek eragindakoak identifikatuko dituena, plangintza ahalik eta onena izan dadin. |
| | **4.1.5. jarduketa**. Gizarteari planen berri emateko programak diseinatu eta abian jartzea. |
| | **4.1.6. jarduketa.** Adineko pertsonentzako beste egoitza-eredu batzuk garatzea aztertuko da. |

*(5) Plan hori, duen izaera integrala gorabehera, aipatzen dugu bakarrik bertan neurriak jaso daitezen etnia horretakoak diren eta gizarte zerbitzuek arretagai dituzten egoeraren batean dauden pertsonentzat..*

**4.2 neurria.** Kontrola eta ikuskapena.

| | |
|---|---|
| **JARDUKETAK** | **4.2.1. jarduketa**. Honakoak betetzen direla etengabe kontrolatzeko prozedurak ezartzea: itunak, gizarte zerbitzu orokorren zorroan aurreikusitako zerbitzuen intentsitatea, ekimen pribatuko entitateek funts publikoak erabiltzeko modua, eta erabiltzaileek gizarte zerbitzu orokorren zorroan aurreikusitako prestazioak ezarriak dituzten helburuetarako erabiltzen dituztela. |
| | **4.2.2. jarduketa.**<br>a) Gizarte zerbitzuen eta zerbitzu soziosanitarioen ikuskatzaile talde bat sortzea, eta talde horren ezaugarri profesionalak eta eginkizunak zehaztea. Horren araubidean zehaztuko dira ikuskaritza-jarduketen independentzia, osotasunae ta profesionaltasuna ahalbidetuko duten formulak. Titulazio eta kualifikazio egokia duten pertsonek osotuko dute ikuskaritza. Araubidean orobat hartuko da kontuan ikuskaritza-kidegoan sartzeko bermatu egin beharko dela ezaguera handia eduki izana ikuskari izan aurretik eta eginkizunak bete aurretik,<br>b) Ikuskaritzaren eginkizunen artean bereziki garrantzitsua izanen da aholkua eta informazioa ematea arauak betetze aldera eta zerbitzua hobeki emate aldera, eta zainduko da zehapenen helburua ez izatea dirua biltzea, ezpada zerbitzuek behar bezala funtzionatzen dutela ziurtatzea. |
| | **4.2.3. jarduketa**. Ikuskapenerako urteko planak egin eta gauzatzea, aldez aurretik ezarritako eta zerbitzuak ematen dituztenentzat ezagunak diren prozedura eta protokoloekin, eta egindako ikuskapenen jakinarazpen publikoa. |
| | **4.2.4. jarduketa.** Ikuskaritzako urteko plan guztietan sartzea pertsonei laguntza etxean bertan emateko zerbitzuekin jarduteko ildo berariazko bat. |
| | **4.2.5. jarduketa.** Ikuskaritzen emaitzak argitaratu ahalko dira arau-haustea berriro egiten denetan eta ez-betetze frogatu eta kreditatuak zuzentzen ez direnetan edo larritasun edo garrantzi berezikoetan. |

**5. ildo estrategikoa: Antolaketa eta kudeaketa.**

Gizarte zerbitzuetan, arretak maiz eskatzen du babes sozialeko sistema batek baino gehiagok esku hartzea, zeinek bere eskumenen esparruan. Horretan oinarritzen da Nafarroako Gobernuaren beste departamentu batzuekin eta Nafarroako toki entitateekin koordinatu beharra. Bestalde, gizarte zerbitzuen sistema publiko berria ezartzeak, eskubideak bermatzen dituen sistema, kudeaketarako prozedurak eta tresnak berrantolatzea eskatzen du, eskubide berri horiek benetan bermatzeko helburuarekin.

**5.1 neurria.** Koordinaziorako tresnak ezartzea.

| | |
|---|---|
| JARDUKETAK | **5.1.1. jarduketa.** Beste departamentuekin edo erakunde autonomoekin koordinatzeko egiturak eta batera esku hartzeko protokoloak ezartzea: Osasuna, Hezkuntza, Nafarroako Enplegu Zerbitzua, Etxebizitza eta Lurraldearen Antolamendua, Lehendakaritza, Justizia eta Barne. |
| | **5.1.2. jarduketa**. Oinarrizko gizarte zerbitzuekin koordinatzeko egitura bat ezartzea Gizarte Zerbitzuen Administrazioen arteko Kontseiluaren baitan. |
| | **5.1.3. jarduketa**. Oinarrizko gizarte zerbitzuekiko baterako informazio sistema hobetu eta jarduketarako protokoloen eta kudeaketarako prozeduren ereduak eskuratzea, oinarrizko gizarte zerbitzuen titular diren toki entitateekiko koordinazioa eta lankidetza hobetze aldera. |
| | **5.1.4. jarduketa.** Oinarrizko osasun laguntzako osasun-etxeekin eta, premia bereziko kasuetan, osasun laguntza espezializatuko osasun zerbitzuekin koordinatzeko egitura berariazko bat ezartzea. |
| | **5.1.5. jarduketa.** Osasun Departamentuarekin beharrezkoak diren akordioak sustatuko dira, egoitza-zentroetako osasun arloko langileek erabiltzaileei buruzko informazioa lortzeko modua izan dezaten, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen baldintza beretan hain zuzen ere. |
| | **5.1.6. jarduketa.** Administrazio gutztiek –estatukoak, forukoak eta tokikoak– parte hartuko dute genero indarkeriaren biktimei arreta integrala emateko taldeetan, bai eta genero indarkeriaren biktimei laguntza emateko prozesuan esku hartzen duten entitateek ere, egoera horiei emandako erantzunean ahalik eta koordinaziorik eta eragingarritasunik handiena lortze aldera. |
| | **5.1.7. jarduketa.** Hezkuntza Departamentua eta Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Departamentua koordinatzeko tresnak ezartzea, garun-perlesia edo/eta gisako eritasunak dituzten adingabeen eskolatzearen egoera aztertzeko, hala ikastetexe publikoetan nola itunpekoetan edo pribatuetan jasotzen duten hezkuntzaren jarraipena eta kontrola hobetzea. |
| | **5.1.8. jarduketa.** Errehabilitazio psikosozialeko zentroak Osasun Departamentuan, Buru Osasunaren Arloan, kokatzearen egokitasuna aztertzea. |

**5.2 neurria.** Kudeaketarako tresnak eta prozedura homogeneoak ezartzea.

| | |
|---|---|
| JARDUKETA | **5.2.1. jarduketa**. Informazioa oinarrizko gizarte zerbitzuekin partekatu eta kudeaketa erraztu eta hobetzeko bide emanen duen tresna informatiko bat sortzea. |
| | **5.2.2. jarduketa**. jarduketa protokoloak eta kudeaketarako prozedurak diseinatu eta abian jartzea, gizarte zerbitzu orokorren zorroko prestazio bakoitzak bereak izan ditzan. |
| | **5.2.3. jarduketa**.<br>a) Itunetarako baldintza-agiri homogeneoak diseinatu eta abian jartzea, zerbitzu motaren eta arreta jaso beharreko pertsonen ezaugarrien arabera.<br>b) Itunek ziurtatuko dute itundutako prestazioarako diru nahiko dagoela, kontuan hartuta egoitza zentro bakoitzaren adierazleak, helburuak eta ezaugarri bereziak. |
| | **5.2.4. jarduketa**.<br>a) Lantalde bat sortzea Gizarte Zerbitzuen Arloko Administrazio arteko Kontseiluan, udaletako egoitza zerbitzuak antolatzeko sistema berri bat aztertu eta abian jartzeko, bideragarriak izan daitezen eta dagoen eskaerari erantzun dakion.<br>b) Lantalde hori adituek osatuko dute, eta gizarte eta osasun zerbitzuetako profesional kualifikatuek ere parte hartuko dute. |
| | **5.2.5. jarduketa.** Esku hartzeko protokolo bat taxutzea, zeinetan zehaztuko baitira, egungo arauditik abiatuta, immobilizazio eta euste kasuak, hala mekanikoak eta fisikoak nola farmakologikoak eta kimikoak, horiek gauzatzeko modua eta kasu bakoitzean esku har dezaketen langileak. Protokolo hori taxutzean parte hartuko dute medikuntzako eta erizaintzako espezialistek, abokatuek, epaileek, fiskalek eta gizarte zerbitzuetako teknikariek, bai eta kaltetutako ahaideen elkarteek ere. |
| | **5.2.6. jarduketa.**<br>a) Informatikako oinarrizko tresnak sortuko dira egoitza zentroetan, barneko nahiz kanpoko informazio eta kudeaketa sistema errazteko.<br>b) Jarduteko prozedura komun homologatuak prestatuko dira, beharrezkotzat jotzen diren egoeretarako, bai kudeaketa errazte aldera, bai datu konparagarriak lortze aldera, baliagarriak izan baitatitezke erabakiak –administrazio nahiz laguntz arlokoak– hartzeko eta plangintza egiteko prozesuan zehar.<br>c) Osasun etxeetan dauden sistema informatiko berberak jarriko dira, erabiltzaileei laguntza ematearren osasunaren ikuspegitik. |
| | **5.2.7. jarduketa.** Toki entitateentzako laguntza teknikoa, baldin eta halakorik eskatzen badute, bere egoitza zentroen kudekatea edo zaharren eguneko zentroena berreskuratzeko. |

**5.3 neurria.** Informaziorako egiturak hobetzea.

| | |
|---|---|
| JARDU-KETAK | **5.3.1. jarduketa**. Adinekoen Arretarako Bulegoa sortzea. |
| | **5.3.2. jarduketa**. Ezgaitasuna duten Pertsonen Arretarako Bulegoa sortzea. |
| | **5.3.3. jarduketa**. Telefonoz informazioa emateko zerbitzu bat diseinatu eta abian jartzea. |
| | **5.3.4. jarduketa**. Herritarrentzako informazio plan bat diseinatu eta abian jartzea, oinarrizko gizarte zerbitzuak sisteman sartzeko ohiko bidea direla jakinarazteko, eta oinarri orokor hori arau bidez ezartzea, oinarrizko arreta zerbitzuen izaera hori sendotzeko. |

**6. ildo estrategikoa: Prestakuntza eta Ikerketa.**

**6.1 neurria.** Prestakuntza hobetzea.

| | |
|---|---|
| JARDUKETAK | **6.1.1. jarduketa**.<br>a) Prestakuntza programa bat prestatzea profesionalentzat, profilak lanbide kualifikazioen sistema nazionalera egokitzen joateko aurreikuspena barne.<br>b) Helburua izanen da gizarte zerbitzuetan lan egiten duten profesional guztiek izatea bere kualifikazio profesionala kreditatzen duen titulazio behar bezala homologatua. |
| | **6.1.2. jarduketa**. Zaintzaile ez-profesionalen prestakuntzarako programa bat prestatzea. |
| | **6.1.3. jarduketa**. Boluntarioen prestakuntzarako programa bat prestatzea. |

**6.2 neurria.** Ikerketa sustatzea.

| | |
|---|---|
| JARDUKETAK | **6.2.1. jarduketa**. Informazio eta komunikazioaren arloko teknologia berriei (IKT) buruzko ikerketara eta esku hartzeko arloen araberako populazio proiekzioetara zuzendutako ildoak ezartzea. |
| | **6.2.2. jarduketa.** Adituen diziplina anitzeko kontseilu bat sortzea, biztanleriaren zahartzea aztertzeko, egon litezkeen premiak eta gabeziak ezartzea helburu; hartara, plangintza taktiko eta estrategiko bat eginen da, laguntza arloko politikak eta taldearen ogizatearen arlokokak betetzen direla ziurtatzeko. |
| | **6.2.3. jarduketa.** Gizarte zerbitzuen arloko ikerketa aplikatu eta jarraiturako ildoak ezartzea. |

**7. ildo estrategikoa: Gizarte zerbitzuen kalitatea.**

**7.1 neurria.** Kalitatearen arloko plangintza egitea.

| JARDU-KETAK | |
|---|---|
| | **7.1.1. jarduketa.** Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Kalitate Plana egitea eta aurkeztea 2009an, zeinetan zehaztuko baita zer den kalitatea zerbitzu bakoitzean, zein kasuko adierazleak eta horien ponderazioa eta kuantifikazioa. |

**7.2 neurria.** Kalitatearen kontrola.

| JARDUKETAK | |
|---|---|
| | **7.2.1. jarduketa**. Diru-laguntzen lerro bat ezartzea urtero zerbitzuek homologazio administratiboa lortzeko aukera izan dezaten. |
| | **7.2.2. jarduketa**. Aldizkako kalitate ebaluazioak egitea. |
| | **7.2.3. jarduketa**. Homologatutako zerbitzuen zerrenda diseinatu eta argitaratzea, lortutako puntuazioekin. |

**7.3 neurria.** Zerbitzuen etengabeko hobekuntza sustatzea.

| JARDUKETAK | |
|---|---|
| | **7.3.1. jarduketa**. Egoitzako arreta kalitatezkoa izateko, azpiegitura zaharrak hobetzea eta/edo beharrezkoak diren espazioak egokitzea. |
| | **7.3.2. jarduketa**. Gizarte zerbitzuen kalitatearen urteroko saria ezartzea. |
| | **7.3.3. jarduketa.** Zerbitzuetako jardunbide onak, beste batzuetan ere erabiltzeko modukoak, atzeman eta hedatzeko sistema bat ezartzea. |
| | **7.3.4. jarduketa**. Zerbitzu zorroak ezartzea. |

VI.2. JARDUKETAK ETA EBALUAZIO ADIERAZLEAK EZARTZEKO KRONOGRAMA. **1.1. NEURRIA. Gizarte Zerbitzuen Foru Legearen garatzea**

| JARDUKETAK | EPEA | | | | | ARDURADUNA | PARTAIDEAK | KOSTUA | | ADIERAZLEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | | | BAI | EZ | |
| 1.1.1. Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoetako programetako prestazioen garapena eta finantzaketa. Garapenerako, etxeko arreta zerbitzua sustatuko da baliabide estrategiko gisa, udal autonomia errespetatuz; horretarako, zerbitzurako eredu egokiena zein den aztertuko da, erabiltzaileen beharretara moldatzeko. | | | | | | Idazkaritza Tekniko Nagusia | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | •Araudia onestea. |
| 1.1.2. Oinarrizko gizarte zerbitzu, zerbitzu espezializatu eta gizarte zerbitzuetako zentroetako profesional anitzeko taldeen osaketa eta eginkizunak garatzea. | | | | | | Idazkaritza Tekniko Nagusia | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | •Araudia onestea. |
| 1.1.3. Erreferentziako profesionala garatzea eta, zehazki, sistemak hura atxikitzeko modua eta erabiltzaileek hura hautatzeko modua. | | | | | | Idazkaritza Tekniko Nagusia | NMA | | | •Araudia onestea. |
| 1.1.4. Gizarte zerbitzuen erabiltzaileen ahalmen ekonomikoa eta ordainketan parte hartzeko modua zehazteko irizpideak garatzea. Garapen horrek ziurtatuko du bi baremo baizik ez direla egonen talde bakoitzaren ahalmen ekonomikoa neurtzeko, prestazio motaren arabera, dela egoitzako zerbitzua dela eguneko arretarako. | | | | | | Idazkaritza Tekniko Nagusia | NMA | | | •Araudia onestea. |
| 1.1.5. Honakoak garatzea: betebeharrak, kalitateko gutxieneko estandarrak, enpleguaren kalitatea eta baimen administratiboak, baimen berariazkoak eta homologazio administratiboak lortzeko prozedura. | | | | | | Idazkaritza Tekniko Nagusia | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | •Araudia onestea. |
| 1.1.6. Gizarte Zerbitzuen Erregistroa eta Baimen Berariazkoen Erregistroa garatzea. | | | | | | Idazkaritza Tekniko Nagusia | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | •Araudia onestea.<br>•Erregistroak sortzea.<br>•Inskribatutako zerbitzuen kop. |
| 1.1.7. Etika Batzordea eta Etika Batzorde sektorialak edo zentrokoak garatzea, eta haien osaketa, eginkizunak eta jarduteko esparruak ezartzea. | | | | | | Idazkaritza Tekniko Nagusia | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | •Araudia onestea.<br>•Eratutako batzorde kop.<br>•Batzordeetara aurkeztutako kasu kop. |
| 1.1.8. Gizarte zerbitzuen erabiltzaileen immobilizaziorako kasuak zehaztea, bai eta hala egiteko prozedurak ere. | | | | | | Idazkaritza Tekniko Nagusia | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | •Araudia onestea. |
| 1.1.9. Egoitzako arretarako eta eguneko arretarako zentroetako partaidetza kontseiluak garatzea, eta haien osaketa eta eginkizunak ezartzea. | | Lehen hiruhi-lekoan | | | | Idazkaritza Tekniko Nagusia | NMA | | | •Araudia onestea. |
| 1.1.10. Mendekotasuna baloratu eta aitortzeko eta mendekotasuna duten pertsonen arretarako banakako programa prestatzeko prozedura garatzea. | | | | | | Idazkaritza Tekniko Nagusia | NMA | | | •Araudia onestea. |

**1.2. NEURRIA. Gizarte zerbitzuen sistema publikoaren esparruko beste arau batzuk garatzea.**

| JARDUKETAK | EPEA | | | | | ARDURADUNA | PARTAIDEAK | KOSTUA | | ADIERAZLEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | | | SI | NO | |
| 1.2.1. Abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea, haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzkoa, erregelamenduz garatzea eta, berariaz, Haur eta Nerabeen arretarako kontseiluak eta Nafarroako Adopzioen Erregistroa | | | | | | Idazkaritza Tekniko Nagusia | Familia eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusia | | | •Araudia onestea.<br>•Kontseiluak eratzea.<br>•Adopzioen erregistroa sortzea.<br>•Erregistratutako adopzio kop. |
| 1.2.2. Bolondres lanari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legea erregelamenduz garatzea. | | | | | | Idazkaritza Tekniko Nagusia | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | •Araudia onestea.<br>•Erregelamendu garapenen kop. |

**1.3. NEURRIA. Gizarte zerbitzu orokorren zorroaren prestazioak garatzea.**

| JARDUKETAK | EPEA | | | | | ARDURADUNA | PARTAIDEAK | KOSTUA | | ADIERAZLEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | | | BAI | EZ | |
| 1.3.1. Ezgaitasuna baloratzeko prozedura arautzen duen foru agindu bat onestea | | | | | | Idazkaritza Tekniko Nagusia | NMA | | | •Foru agindua onestea. |
| 1.3.2. Larrialdietako Telefono Zerbitzua arautzen duen foru agindu bat onestea | | | | | | Idazkaritza Tekniko Nagusia | NMA | | | •Foru agindua onestea. |
| 1.3.3. Egoitzetako aldi baterako egonaldiak arautzen dituen foru agindu bat onestea. | | | | | | Idazkaritza Tekniko Nagusia | NMA | | | •Foru agindua onestea. |
| 1.3.4. Egoitzetan sartzeko, familia-gatazka larria edo familia-sostengu egokirik eza baloratzeko baremoa arautzen duen foru agindu bat onestea. | | | | | | Idazkaritza Tekniko Nagusia | NMA | | | •Foru agindua onestea. |
| 1.3.5. Oinarrizko errenta arautzen duen apirilaren 19ko 120/1999 Foru Dekretua indargabetu eta foru agindu bat onestea. | | | | | | Idazkaritza Tekniko Nagusia | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | •Foru agindua onestea. |
| 1.3.6. Larrialdi sozialeko laguntza bereziak arautzen dituen foru agindu bat onestea. | | | | | | Idazkaritza Tekniko Nagusia | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | •Foru agindua onestea. |
| 1.3.7. Familian eta gizartean integratzeko laguntzak arautzen dituen foru agindu bat onestea. | | | | | | Idazkaritza Tekniko Nagusia | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | •Foru agindua onestea. |
| 1.3.8. Genero indarkeriaren biktimentzako larrialdiko laguntzak arautzen dituen foru agindu bat onestea. | | | | | | Idazkaritza Tekniko Nagusia | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | •Foru agindua onestea. |
| 1.3.9. Genero indarkeriaren biktimei, baliabide falta eta zailtasun bereziak dituztela frogatzen badute, ematen zaizkien laguntzak arautzen dituen foru agindu bat onestea. | | | | | | Idazkaritza Tekniko Nagusia | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | •Foru agindua onestea. |
| 1.3.10. Mendekotasuna duten pertsonak etxean gelditu eta haien zaintzaileei laguntzeko diru-laguntzak arautzen dituen •Foru agindua onestea. | | | | | | Idazkaritza Tekniko Nagusia | NMA | | | •Foru agindua onestea. |
| 1.3.11. Mendekotasuna duten pertsonek laguntzaile pertsonala izateko diru-laguntzak arautzen dituen foru agindu bat onestea. | | | | | | Idazkaritza Tekniko Nagusia | NMA | | | •Foru agindua onestea. |
| 1.3.12 Mendekotasuna duten pertsonek etxeko arreta jasotzeko gutxieneko laguntzak arautzen dituen foru agindu bat onestea. | | | | | | Idazkaritza Tekniko Nagusia | NMA | | | •Foru agindua onestea. |
| 1.3.13 Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa eta haren salbuespen izaera arautzen dituen foru agindu bat onestea. | | | | | | Idazkaritza Tekniko Nagusia | NMA | | | •Foru agindua onestea. |

**1.4 NEURRIA Arauen hedapena eta zabalkundea egitea**

| JARDUKETAK | EPEA | | | | | ARDURADUNA | PARTAIDEAK | KOSTUA | | ADIERAZLEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | | | SI | NO | |
| 1.4.1. Komunikazio Plan Integral bat diseinatu eta abian jartzea, araudia jasoko duen argitalpena, departamentuaren web orrialdearen diseinu berria eta hedapen eta informaziorako beste ekintza batzuk barne hartuko dituena. | | | | | | Idazkaritza Tekniko Nagusia | Gizarte Gaietako Z. Nagusia<br>NMA | | | •Argitalpenen kop.<br>•Web araudiko atalera egindako bisita kop.<br>•Zabalkunderako ekintza kop.<br>•Informazio saioen eta parte-hartzaileen kopurua. |

**2. ildo estrategikoa: Lehentasunezko arreta beharrak**

**2.1 NEURRIA Lehentasunezko beharrak mendekotasuna duten pertsonei, adinekoei, ezgaitasuna dutenei, buru-eritasuna dutenei eman beharreko arretaren arloan.**

| JARDUKETAK | EPEA | | | | | ARDURADUNA | PARTAIDEAK | KOSTUA | | ADIERAZLEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | | | BAI | EZ | |
| 2.1.1. Gizarte zerbitzuen sistema publikoko zerbitzu guztiek autonomia pertsonala sustatu eta mendekotasun egoera larriagotzeari aurrea hartzeko programak eduki beharko dituzte, eta horretarako behar diren neurriak ezarriko dituzte Mendekotasunaren Prebentziorako Programaren barruan | | | | | | NMA | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | •Prebentzio programak dituzten zentro eta zerbitzuen kop.<br>•Parte-hartzaileen kop.<br>•Prebentzio programetan osotara egindako gastua.<br>•Programa kop. |
| 2.1.2. Behar adinako zerbitzu sarea garatzea eta zerbitzuak ematean oinarritutako arreta sozialeko eredua sustatzea azpiegitura hauek eraikiz: | | | | | | NMA | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | •Abian jarritako azpiegitura kop.<br>•Sortutako plaza kop. |
| "Las Hayas", Adimeneko Ezgaitasuna dutenen Arreta Integralerako Zentroa, Sarrigurenen. | | | | | | | | | | |
| Mendekotasuna duten Pertsonen Arretarako Funtzio anitzeko Zentroa, Iruñerrian. | | | | | | | | | | |
| Egoitza-etxea eta CRPS, buru-nahaste larria duten pertsonentzat, Iruñean. | | | | | | | | | | |
| Egoitza-etxea eta Errehabilitazio Psikosozialeko Zentroa, buru-nahaste larria duten pertsonentzat, Sarrigurenen. | | | | | | | | | | |
| Egoitza-etxea eta Errehabilitazio Psikosozialeko Zentroa, buru-nahaste larria duten pertsonentzat, Tuteran. | | | | | | | | | | |
| Buru-nahaste larria duten pertsonentzako egoitza eta arreta emateko zentroa, Lizarran. | | | | | | | | | | |
| Zentro okupazionala, Errehabilitazio Psikosozialeko plazekin, buru-nahaste larria duten pertsonentzat, Tafallan. | | | | | | | | | | |
| Oncineda, adimeneko ezgaitasuna duten pertsonentzako egoitza handitzea, Lizarran. | | | | | | | | | | |
| Baliabide eta Laguntza Teknikoen Zentroa Iruñean. | | | | | | | | | | |
| Monjardin, adimeneko ezgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentro berria. | | | | | | | | | | |

| JARDUKETAK | EPEA | | | | | ARDURADUNA | PARTAIDEAK | KOSTUA | | ADIERAZLEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | | | SI | NO | |
| 2.1.3. Behar adinako zerbitzu sarea garatzea eta zerbitzuak ematean oinarritutako arreta sozialeko eredua sustatzea, mendekotasuna duten adineko pertsonentzako eguneko arretarako zentroak eraiki daitezen bultzatuz, barruti bakoitzean %0,75eko estaldura eta Iruña eta Iruñerriko barrutian %0,80koa lortzeko, eta ezgaitasuna eta buru-eritasuna duten pertsonentzako lojamendu alternatiboko zentroak sustatuz, gizarte zerbitzu orokorren zorroko zerbitzu bermatuen eskaerari erantzuteko. | | | | | | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | •Eraikitako zentroen kop., gizarte zerbitzuen barrutien arabera.<br>•Lortutako estaldura portzentajea, gizarte zerbitzuen barrutien arabera (ipar-ekialdea kenduta). |
| 2.1.4 Egoitzetako plaza itunduen kopurua handitzea mendekotasun handia eta larria duten adineko pertsonentzat, eskaera osoari erantzuteko behar adina. | | | | | | NMA | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | •Gehitu diren plaza itunduen kop.<br>•Itxaron zerrendan dauden pertsonen kop. |
| 2.1.5. Laguntzako neurriak ezartzea (informazioa, prestakuntza eta aholkularitza) mendekotasuna duten pertsonen familia zaintzaileentzat, bereziki emakumeentzat, Mendekotasunaren Prebentziorako Programan horretarako beharrezkoak diren neurriak hartuz. | | | | | | NMA | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | •Sistemaren informazioa jaso duten zaintzaileen kop.<br>•Prestakuntzan parte hartu duten zaintzaileen kop.<br>•Antolatutako laguntza ekintzen kop., gizarte zerbitzuen barrutien arabera.<br>•Ezarritako neurri kop. eta motak. |
| 2.1.6. Buru-eritasun Larria duten pertsonen Arretarako Programan abian jarritako zerbitzuen azterketa eta ebaluazioa eta aldatu beharrekoak berrantolatzea, Ezgaitasuna duten Pertsonen Arretarako Plan Integralaren barruan. | | | | | | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | Adimen Osasuneko Zuzendariordetza | | | •Ebaluatutako zerbitzuen eta ezarritako neurri zuzentzaileen kop.<br>•Berriz definitutako zerbitzu mota |
| 2.1.7. Ezgaitasuna eta buru eritasuna duten pertsonentzako zentro okupazionalaren zerbitzua ezartzea prestazio bermatu gisa, Ezgaitasuna duten Pertsonen Arretarako Plan Integralaren barruan beharrezkoa den berrantolaketa eginen da. | | | | | | NMA | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | •Itundutako plaza kop. barrutien arabera.<br>•Erabiltzaile kop. |

**2.2 NEURRIA Lehentasunezko beharrak, gizartean bazterturik edo horrela gertatzeko arriskuan dauden pertsonentzako arretaren arloan.**

| JARDUKETAK | EPEA | | | | | ARDURADUNA | PARTAIDEAK | KOSTUA | | ADIERAZLEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | | | SI | NO | |
| 2.2.1. Etxerik gabekoei lojamendu alternatiboa emateko zerbitzuak sustatzea, pasadizokoentzako aterpeak eraiki edo berritzea lagunduz, Iruñean eta Altsasun. | | | | | | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | Toki entitateak | | | .zentro kop.<br>.plaza kop.<br>.erabiltzaile kop. |
| 2.2.2. Gizartean bazterturik dauden pertsonentzako zentro okupazionalaren zerbitzua ezartzea prestazio bermatu gisa, Bazterketa Sozialaren kontrako II. Planaren barruan beharrezkoa den berrantolaketa eginen da. | | | | | | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | | Sortutako plaza kop.<br>Arreta jaso duten erabiltzaileen kop. |
| 2.2.3. Gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko neurriak hobetu, etaoinarrizko errenta lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzea, horretarako Bazterketa Sozialaren kontrako II. Planaren barruan beharrezkoa den berrantolaketa eginen da. | | | | | | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | | .Urteko igoeraren portzentajea<br>.Gastua, guztira. |
| 2.2.4. Gizarteratzeko Etxebizitzaren Programaren aldaketa, horretarako Bazterketa Sozialaren kontrako II. Planaren barruan beharrezkoa den berrantolaketa eginen da. | | | | | | | | | | Aldatutako neurriak eta neurri berriak |
| 2.2.5. Gizarte zerbitzuen sistema publikoko zerbitzu guztiek autonomia pertsonala sustatu eta bazterketa soziala larriagotzeari aurrea hartzeko programak eduki beharko dituzte, eta horretarako behar diren neurriak ezarriko dituzte Bazterketa Sozialaren kontrako II. Planaren barruan. | | | | | | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | | .Prebentzio programak dituzten zerbitzuen kop.<br>.Parte hartu duten pertsonen kop. |
| 2.2.6. Bazterketa sozialaren kontrako politika guztien xedea izanen da pertsona horiek baliabide orokorrez balia daitezen sustatzea, eta ez talde bakoitzerako baliabide berariazkoez; horretarako, behar diren neurriak ezarriko dira Bazterketa Sozialaren kontrako II. Planean. | | | | | | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | | .Erabilitako baliabide orokorren kop.<br>.Baliabide motak. |
| 2.2.7. Bazterketa sozialaren kontrako politika guztiekin bultzatuko den arreta sozialeko eredua akonpainamendu sozialean eta banakako ibilbideak egitean oinarriturik egonen da gehienbat. | | | | | | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | | .Erabilitako baliabide orokorren kop.<br>.Baliabide motak. |

**2.3 NEURRIA Lehentasunezko beharrak, babes gabezian edo gatazka sozialean edo horrela gertatzeko arriskuan dauden adingabeentzako arretaren arloan.**

| JARDUKETAK | EPEA | | | | | ARDURADUNA | PARTAIDEAK | KOSTUA | | ADIERAZLEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | | | BAI | EZ | |
| 2.3.1. Behar adinako zerbitzu sarea garatzea honako azpiegitura hauek eraikiz: | | | | | | Familia, Haur eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusia | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | |
| -Adingabeak zentro batean sartzea dakarten neurri judizialak betetzeko zentroa Arangurenen. | | | | | | Familia, Haur eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusia | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | •Gehitutako plaza kop. |
| -Adingabeak egoitzetan hartzeko zentroak handitzea, Iruñean edo Iruñerrian. | | | | | | Familia, Haur eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusia | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | •Gehitutako plaza kop. |
| 2.3.2 Plaza itunduen kopurua handitzea egoitzako arreta emateko zentroetan eta behaketa eta harrerakoetan, dauden behar guztiak asetzeko. | | | | | | Familia, Haur eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusia | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | •BHZetan itundutako plazen kop.<br>•Egoitza berrietan itundutako plaza kop. .arreta jaso duten adingabeen kop.<br>•Barrutien araberako banaketa. |
| 2.3.3. Atzeman eta esku-hartzeko ekintzak bultzatzea adingabeen ingurune komunitarioan.<br><br>-Haurren babes gabeziaren arloko sentsibilizazioa eta prestakuntza oinarrizko gizarte zerbitzuetako profesionalei, hezkuntza eta osasun langileei eta familiei. | | | | | | Familia, Haur eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusia | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | •Lehen delitua egin duten adingabeen kop.<br>•Profesionalak sentsibilizatzeko ekintzak. |
| 2.3.4. Sentsibilizazio kanpainak egitea familian hartzea sustatzeko, adingabea etxean eta/edo ingurunean gelditu dadin, ahal dela, zentro batean sartu gabe. | | | | | | Familia, Haur eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusia | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | •Harrerako familien kop.<br>•Egindako sentsibilizazio ekintzen kop.<br>•Harreran dauden adingabeen kop. |
| 2.3.5. Profesionalen kopurua handitzea familiako esku-hartze zerbitzuan eta neurri judizialak ingurune irekian betearazteko zerbitzuan. | | | | | | Familia, Haur eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusia | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | •Arreta jaso duten adingabeen kop.<br>•Kontratatutako profesionalen kop.<br>•Batez besteko intentsitatea adingabe bakoitzeko. |

**2.4 NEURRIA Genero indarkeriaren biktimentzako arretaren arloko lehentasunezko beharrak.**

| JARDUKETAK | EPEA | | | | | ARDURADUNA | PARTAIDEAK | KOSTUA | | ADIERAZLEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | | | BAI | EZ | |
| 2.4.1. Genero indarkeriaren biktimei arreta integrala emateko taldea sortzea. | | | | | | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | Toki entitateak | | | •Sortutako talde kop.<br>•Arreta jaso duten emakumeen |

**3. ildo estrategikoa: Gizarte zerbitzuen lurralde banaketa eta eremuak**

**3.1 NEURRIA Zerbitzuen eremuak eta lurralde erreferentziak erregelamenduz garatzea.**

| JARDUKETAK | EPEA | | | | | ARDURADUNA | PARTAIDEAK | KOSTUA | | ADIERAZLEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | | | BAI | EZ | |
| 3.1.1. Eremuen erregelamenduzko garapena<br>Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legeak, 41. eta 42. artikuluetan, adierazten du oinarrizko eskualdeen, gizarte zerbitzuen barrutien eta jarduketa bereziko oinarrizko eskualdeen lurralde mugaketa erregelamenduz onetsiko dela.<br>Erregelamenduzko zehaztapen horretarako, Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan aurreikusitakoa izanen da abiapuntua, foru lege horren 29. artikuluan xedatu bezala. Hori dela eta, I. Plan honen eranskinean jaso dira gizarte zerbitzuen etorkizuneko eskualdeak. | | | | | | Idazkaritza Tekniko Nagusia | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | •Araudia onestea. |
| 3.1.2. Zerbitzuen lurralde-erreferentziak: | | | | | | Gizarte G. Z. Nagusia | | | | |
| -Oinarrizko eskualdearen edo jarduketa bereziko eskualdearen mailan. | | | | | | Gizarte G. Z. Nagusia | | | | •Lau programak dituzten oinarrizko gizarte zerbitzuen kop. |
| - Barrutietan | | | | | | | | | | |
| - Azpibarrutietan: | | | | | | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | | •Ezarritako talde kop.<br>•Lurraldean banatutako zerbitzuetako plazen kop., gizarte zerbitzuen barrutien arabera. |
| - Nafarroako Foru Komunitatean: gainerako zerbitzuak. | | | | | | Gizarte G. Z. Nagusia | | | | |

**3.2 NEURRIA Gizarte zerbitzuetako zentroak sortzea.**

| JARDUKETAK | EPEA | | | | | ARDURADUNA | PARTAIDEAK | KOSTUA | | ADIERAZLEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | | | BAI | EZ | |
| 3.2.1. Azpiegiturak egokitzea gizarte zerbitzuetako zentroak ezartzeko Tutera, Lizarra, Tafalla, Ipar-mendebalde eta Ipar-ekialdeko barrutietan eta gizarte zerbitzuetako zentro bat finantzatzea Iruña eta Iruñerriko barrutian. | | | | | | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | | -Abian jarritako zentro kop.<br>-Gizarte zerbitzuetako zentroetako profesionalen kop.<br>-Gizarte zerbitzuetako zentroetan arreta jaso duten pertsonen kop. |

**3.3 NEURRIA Gizarte zerbitzuen tokiko zorroak egiteko bultzada.**

| JARDUKETAK | EPEA | | | | | ARDURADUNA | PARTAIDEAK | KOSTUA | | ADIERAZLEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | | | BAI | EZ | |
| 3.3.1. Toki entitateei informazioa, laguntza eta aholkularitza ematea gizarte zerbitzuen tokiko zorroak egiteko. | | | | | | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | Toki entitateak | | | •Toki entitateei aholkularitza emateko ekintzen kop.<br>•Gizarte zerbitzuen zorroa duten toki entitateen kop. |

**4. ildo estrategikoa:** **Plangintza, kontrola eta ikuskapena**

**4.1 NEURRIA Plan sektorialak egin eta egokitzea, plangintzarako eredu homogeneoa aplikatzea eta planen berri ematea**

| JARDUKETAK | EPEA | | | | | ARDURADUNA | PARTAIDEAK | KOSTUA | | ADIERAZLEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | | | BAI | EZ | |
| 4.1.1. Ondoko plan eta programa sektorial hauek egitea:<br>Nafarroako Bazterketa Sozialaren kontrako II. Plana.<br>-Adinekoen Sustapen eta Arretarako Plana (II. Plan Gerontologikoa).<br>-Ijitoen Arreta Integralerako Plana.<br>-Mendekotasunaren Prebentziorako Programa. | | | | | | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | NMA | | | •Onetsitako plan eta programa kop. |
| 4.1.2. Ondoko plan eta programa hauek egokitzea:<br>-Ezgaitasuna duten Pertsonen Arreta Integralerako Plana.<br>-Buru-nahaste larria duten pertsonen Arretarako Programa. | | | | | | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | NMA | | | -Onetsitako plan kop. |
| 4.1.3. Etxean gelditu eta familia zaintzaileei laguntzeko prestazio ekonomikoek epe laburrera, ertainera eta luzera duten bideragarritasuna eta arreta sozialean duten eragina aztertuko duen ikerketa bat egitea. | | | | | | NMA | | | | •Ikerketa egitea. |
| 4.1.4. Kudeaketarako tresna bat diseinatzea, Nafarroan dauden gizarte zerbitzuen mapa bat barne, pertsonen behar errealak eta, bereziki, aldaketa sozialek eragindakoak identifikatuko dituena, plangintza ahalik eta onena izan dadin. | | | | | | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | | •Tresna diseinatzea eta abian jartzea. |
| 4.1.5. Gizarteari planen berri emateko programak diseinatu eta abian jartzea. | | | | | | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | | •Abian jarritako komunikazio planen kop. |

**4.2 NEURRIA Kontrola eta ikuskapena.**

| JARDUKETAK | EPEA | | | | | ARDURADUNA | PARTAIDEAK | KOSTUA | | ADIERAZLEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | | | BAI | EZ | |
| Honakoak betetzen direla etengabe kontrolatzeko prozedurak ezartzea: itunak, gizarte zerbitzu orokorren zorroan aurreikusitako zerbitzuen intentsitatea, ekimen pribatuko entitateek funts publikoak erabiltzeko modua, eta erabiltzaileek gizarte zerbitzu orokorren zorroan aurreikusitako prestazioak ezarriak dituzten helburuetarako erabiltzen dituztela. | | | | | | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | | •Zentroetan eta etxeetan egindako ikuskapenen kop.<br>•Betetze maila eta okerreko erabileraren portzentajea. |
| 4.2.2. Gizarte zerbitzuen ikuskatzaile talde bat sortzea, eta talde horren ezaugarri profesionalak eta eginkizunak zehaztea. | | | | | | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | | •Ikuskapeneko profesionalen kop.<br>•Profesional bakoitzaren ikuskapen kop.<br>Ikuskapen portzentajea zerbitzu guztiekiko. |
| 4.2.3. Ikuskapenerako urteko planak egin eta gauzatzea, aldez aurretik ezarritako eta zerbitzuak ematen dituztenentzat ezagunak diren prozedura eta protokoloekin, eta egindako ikuskapenen jakinarazpen publikoa. | | | | | | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | | -Urteko planen kop.<br>•Jakinarazi edo argitaratutako txostenen kop. |

**5. ildo estrategikoa: Antolaketa eta kudeaketa**

**5.1 NEURRIA Koordinaziorako tresnak ezartzea.**

| JARDUKETAK | EPEA | | | | | ARDURADUNA | PARTAIDEAK | KOSTUA | | ADIERAZLEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | | | BAI | EZ | |
| 5.1.1. Erakunde autonomo edo departamentu hauekin koordinatzeko egiturak eta batera esku hartzeko protokoloak ezartzea: Osasuna, Hezkuntza, Nafarroako Enplegu Zerbitzua, Etxebizitza eta Lurraldearen Antolamendua, Lehendakaritza, Justizia eta Barne. | | | | | | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | Hezkuntza, Osasun, Lan, Etxebizitza, Justizia eta Erakunde Harremanetako Departamentuak | | | •Sortutako batzorde kop.<br>•Partaide diren departamentuen kop. |
| 5.1.2. Oinarrizko gizarte zerbitzuekin koordinatzeko egitura bat ezartzea Gizarte Zerbitzuen Administrazioen arteko Kontseiluaren baitan. | | | | | | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | Oinarrizko gizarte zerbitzuak. | | | •Batzordea sortzea. |
| 5.1.3. Oinarrizko gizarte zerbitzuekiko baterako informazio sistema hobetu eta jarduketarako protokoloen eta kudeaketarako prozeduren ereduak eskuratzea, oinarrizko gizarte zerbitzuen titular diren toki entitateekiko koordinazioa eta lankidetza hobetze aldera. | | | | | | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | Oinarrizko gizarte zerbitzuak. | | | •Protokolo berrien kop.<br>•Ezarritako kudeaketa prozeduren kop. |

**5.2 NEURRIA Kudeaketarako tresnak eta prozedura homogeneoak ezartzea.**

| JARDUKETAK | EPEA | | | | | ARDURADUNA | PARTAIDEAK | KOSTUA | | ADIERAZLEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | | | BAI | EZ | |
| 5.2.1. Informazioa Oinarrizko gizarte zerbitzuekin partekatzeko bide emanen duen tresna informatiko bat sortzea. | | ■ | ■ | | | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | Oinarrizko gizarte zerbitzuak. | ■ | | •Tresna diseinatzea eta abian jartzea. |
| 5.2.2. Jarduketa prozedurak eta kudeaketarako prozedurak diseinatu eta abian jartzea, gizarte zerbitzu orokorren zorroko prestazio bakoitzak bereak izan ditzan. | | ■ | | | | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | ■ | •Protokolo berrien kop.<br>•Ezarritako kudeaketa prozeduren kop. |
| 5.2.3. Itunetarako baldintza-agiri homogeneoak diseinatu eta abian jartzea, zerbitzu motaren eta arreta jaso beharreko pertsonen ezaugarrien arabera. | ■ | ■ | | | | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | ■ | •Egindako pleguen kop. |
| 5.2.4. Lantalde bat sortzea Gizarte Zerbitzuen Administrazioen arteko Kontseiluan, udaletako egoitza zerbitzuak antolatzeko sistema berri bat aztertu eta abian jartzeko, bideragarriak izan daitezen eta dagoen eskaerari erantzun dakion. | ■ | | | | | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | Administrazioen arteko Kontseilua | | ■ | •Lantaldea sortzea.<br>•Ikerketa egitea.<br>•Proposatutako neurriak ezartzea. |

**5.3 NEURRIA Informaziorako egiturak hobetzea.**

| JARDUKETAK | EPEA | | | | | ARDURADUNA | PARTAIDEAK | KOSTUA | | ADIERAZLEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | | | BAI | EZ | |
| 5.3.1. Adinekoen Arretarako Bulegoa sortzea. | ■ | | | | | NMA | | ■ | | •Bulegoa sortzea.<br>•Erabiltzaileen kop. |
| 5.3.2. Ezgaitasuna duten Pertsonen Arretarako Bulegoa sortzea. | ■ | | | | | NMA | | ■ | | •Bulegoa sortzea.<br>•Erabiltzaileen kop. |
| 5.3.3. Telefonoz informazioa emateko zerbitzu bat diseinatu eta abian jartzea. | ■ | | | | | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | ■ | •Zerbitzua sortzea.<br>•Erabiltzaile kop. |
| 5.3.4. Herritarrentzako informazio plan bat diseinatu eta abian jartzea, oinarrizko gizarte zerbitzuak sisteman sartzeko ohiko bidea direla jakinarazteko, eta oinarri orokor hori arau bidez ezartzea, oinarrizko arreta zerbitzuen izaera hori sendotzeko. | | ■ | | | | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | ■ | •Egindako ekintzen kop. |

**6. ildo estrategikoa: Prestakuntza eta Ikerketa**

**6.1 NEURRIA Prestakuntza hobetzea.**

| JARDUKETAK | EPEA | | | | | ARDURADUNA | PARTAIDEAK | KOSTUA | | ADIERAZLEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | | | BAI | EZ | |
| 6.1.1. Prestakuntza programa bat prestatzea profesionalentzat, profesionalen profilak lanbide kualifikazioen sistema nazionalera egokitzen joateko aurreikuspena barne. | | | | | | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | | •Prestakuntza ekintzen kop.<br>•Parte hartu duten irakasleen kop. |
| 6.1.2. Zaintzaile ez-profesionalen prestakuntzarako programa bat prestatzea. | | | | | | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | | •Sortutako talde kop.<br>•Prestakuntza jaso duten zaintzaileen kop. |
| 6.1.3. Boluntarioen prestakuntzarako programa bat prestatzea. | | | | | | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | | •Egindako ekintzen kop.<br>•Parte hartu duten boluntarioen kop. |

**6.2 NEURRIA Ikerketa sustatzea.**

| JARDUKETAK | EPEA | | | | | ARDURADUNA | PARTAIDEAK | KOSTUA | | ADIERAZLEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | | | BAI | EZ | |
| 6.2.1. Informazio eta Komunikazioaren arloko teknologia berriei (IKT) buruzko ikerketara eta esku hartzeko arloen araberako populazio proiekzioetara zuzendutako ildoak ezartzea. | | | | | | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | | •Egindako ikerketen kop.<br>•Gizarte zerbitzuetan teknologia berriak ezartzea. |
| 6.2.2. Adituen Batzorde bat sortzea, populazioa zahartzeak ekarriko dituen beharrak aztertzeko. | | | | | | NMA | | | | •Adituen lantaldea sortzea.<br>•Egindako txosten edo gomendio kop. |
| 6.2.3. Gizarte zerbitzuen arloko ikerketa aplikatu eta jarraiturako ildoak ezartzea. | | | | | | NMA | | | | •Adituen lantaldea sortzea.<br>•Egindako txosten edo gomendio kop. |

**7. ildo estrategikoa: Gizarte zerbitzuen kalitatea**

**7.1 NEURRIA Kalitatearen arloko plangintza.**

| JARDUKETAK | EPEA | | | | | ARDURADUNA | PARTAIDEAK | KOSTUA | | ADIERAZLEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | | | BAI | EZ | |
| 7.1.1. Nafarroako Gizarte Zerbitzuen I. Kalitate Plana egitea. | | | | | | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | | •Planaren onespena. |

**7.2 NEURRIA Kalitatearen kontrola**

| JARDUKETAK | EPEA | | | | | ARDURADUNA | PARTAIDEAK | KOSTUA | | ADIERAZLEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | | | BAI | EZ | |
| 7.2.1. Diru-laguntzen lerro bat ezartzea urtero zerbitzuak homologazio administratiboaz balia daitezen. | | | | | | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | | •Homologatutako zerbitzuen kop.<br>•Diru-laguntza kop.<br>•Diru-laguntzen zenbatekoa |
| 7.2.2. Aldizkako kalitate ebaluazioak egitea. | | | | | | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | | •Egindako ebaluazioen kop. |
| 7.2.3. Homologatutako zerbitzuen zerrenda diseinatu eta argitaratzea, lortutako puntuazioekin. | | | | | | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | | •Jardunbide onen esperientziak dituzten zerbitzuen kop. |

**7.3 NEURRIA Zerbitzuen etengabeko hobekuntza sustatzea.**

| JARDUKETAK | EPEA | | | | | ARDURADUNA | PARTAIDEAK | KOSTUA | | ADIERAZLEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | | | BAI | EZ | |
| 7.3.1. Egoitzako arreta kalitatezkoa izateko, azpiegitura zaharrak hobetzea eta/edo beharrezkoak diren espazioak egokitzea. | | | | | | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | | •Azpiegiturak hobetzeko emandako diru-laguntza kopurua. |
| 7.3.2. Gizarte Zerbitzuaren Kalitatearen urteroko saria ezartzea. | | | | | | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | | •Urteko saria ematea.<br>•Aurkeztutako entitateen kop. |
| 7.3.3. Zerbitzuetako jardunbide onak, beste batzuetan ere erabiltzeko modukoak, atzeman eta hedatzeko sistema bat ezartzea. | | | | | | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | | •Jardunbide onen inguruan zabaldutako esperientzien kop. |
| 7.3.4. Zerbitzu zorroak ezartzea. | | | | | | Gizarte Gaietako Z. Nagusia | | | | •erbitzu zorroen kop. |

**ERANSKINA. GIZARTE ZERBITZUEN SISTEMA PUBLIKOAREN LURRALDE ANTOLAKETA.**

Gizarte zerbitzuei buruzko 15/2006 Foru Legeak gizarte zerbitzuen lurralde antolaketa arautzen du, III. tituluko II. kapituluan, 40., 41., 42. eta 43. artikuluetan. Aurreikusten duen lurralde antolaketa horretan banaketa hau ezartzen da:

• **Gizarte zerbitzuen oinarrizko eskualdeak:** gizarte zerbitzuen oinarrizko laguntzari lurralde markoa ematen dioten geografia- eta populazio-zedarriak dira, kasuan kasuko lurraldean populazioa gizarte laguntzaz baliatzea bermatzen dutenak, oinarrizko gizarte zerbitzuaren bitartez". Legeak adierazten du, halaber, eskualdeen ezaugarriak erregelamenduz ezarriko direla, populazio ratioak eta premia sozialekoak kontuan harturik, eta osasun arloko eta administrazio-jardueretarako beste arlo batzuetako eremu banaketarekin bat etortzen saiatuz. Jarduketa bereziko eskualdeak sortzea aurreikusiko da, ezaugarri demografiko, geografiko edo bestelakoak kontuan hartuta.

• **Gizarte zerbitzuen barrutiak:** "gizarte zerbitzuen oinarrizko eskualde batzuek osatzen dituzte, hurbiltasun irizpideetan oinarriturik eta ezaugarri soziodemografikoen arabera elkartuta, oinarrizko laguntzako programak partekatzeko eskuragarritasunaren, eraginkortasunaren eta efizientziaren ikuspuntuetatik".

Legean aurreikusitakoa erregelamenduz garatzeko, lantalde bat eratu da Gizarte Gaietako eta Toki Administrazioko Departamentuetako eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko profesionalekin. Lantalde honen lanerako abiapuntua Plangintza eta Azpiegituren Zerbitzuaren txosten bat izan da. Dokumentuak gizarte zerbitzuen eta Foru Administrazioak emandako beste zerbitzu batzuen lurralde erakundeen egungo antolaketa aztertzen zuen, zehazki honako departamentu hauena: Osasuna eta Hezkuntza. Nafarroako Lurralde Estrategia ere aztertu da, eta zehazkiago LAP direlakoek lurraldea antolatzeko moduaren inguruan etorkizunari begira ematen dituzten orientabideak. Era berean, garrantzi berezikoa izan da azken hogei urte hauetan gizarte zerbitzuen funtzionamenduko esperientzia.

Gizarte zerbitzuen sistema publikoaren lurralde antolaketa printzipio hauetan oinarritzen da, Gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legearen 4. artikuluaren arabera:

a) Deszentralizazioa.

b) Herritarrengandiko hurbiltasuna.

c) Behar sozialak asetzeko eraginkortasuna.

d) Lurralde oreka eta homogeneitatea.

e) Informazio eta zerbitzuen eskuragarritasuna.

f) Koordinazioa eta sarean lan egitea.

Aipatutako printzipioekin bat, hauxe da gizarte zerbitzuen lurralde antolaketa:

**A. Gizarte Zerbitzuen Oinarrizko Eskualdeak**, oinarrizko gizarte zerbitzuen antolaketarako. Haien lurralde mugaketa bat etorriko da osasunaren arloko oinarrizko laguntzako eskualdeekin.

Bi eremu-banaketaren artean, osasun arlokoaren eta gizarte zerbitzuetakoaren artean, gerta daitezkeen desadostasunak ebazteko, bi departamentu horiek eta partaide diren toki entitateak etengabeko mintzaide izanen dira, bi eremu-banaketak bat etor daitezen ahalik eta gehien, etorkizunean gerta daitezkeen egoera bereziak aintzat hartzea inola ere baztertu gabe.

Ondotik ematen dira gizarte zerbitzuen oinarrizko eskualdeak eta haietako bakoitzaren barruan dauden udalerriak:

1. **Allo**: Allo, Arellano, Arroitz, Barbarin, Deikaztelu, Iguzkitza, Lerin, Lukin, Villamayor.

2. **Altsasu**: Altsasu, Olazti, Ziordia.

3. **Antzin-Ameskoa**: Abaigar, Allin, Ameskoabarren, Antzin, Aranaratxe, Etaio, Eulate, Lana, Larragoa, Legaria, Mendaza, Metauten, Mirafuentes, Murieta, Nazar, Oko, Olexua, Piedramillera, Sorlada, Zuñiga.

4. **Agoitz**: Artzibar, Agoitz, Itzagaondoa, Lizoain, Longida, Orotz-Betelu, Untziti ibarra, Urrotz.

5. **Aranguren**: Aranguren.

6. **Artaxoa**: Artaxoa, Berbintzana, Larraga, Miranda Arga.

7. **Auritz**: Abaurregaina, Abaurrepea, Aria, Aribe, Auritz, Erroibar, Garaioa, Garralda, Hiriberri Aezkoa, Luzaide, Orbaitzeta, Orbara, Orreaga.

8. **Barañain**: Barañain.

9. **Berriozar**: Antsoain, Berriobeiti, Berriozar, Itza, Txulapain.

10. **Buñuel**: Buñuel, Cabanillas, Cortes, Fontellas, Fustiñana, Ribaforada.

11. **Burlata**: Burlata.

12. **Zarrakaztelu**: Zarrakaztelu, Mélida, Murillo el Fruto, Santakara.

13. **Cascante**: Ablitas, Barillas, Cascante, Monteagudo, Murchante, Tulebras.

14. **Cintruénigo**: Cintruénigo eta Fitero.

15. **Zizur**: Zizur Txikia, Zizur Nagusia.

16. **Corella**: Corella, Castejón.

17. **Doneztebe**: Bertizarana, Donamaria, Doneztebe, Elgorriaga, Eratsun, Ezkurra, Ituren, Labaien, Oitz, Saldias, Sunbilla, Urrotz, Zubieta.

18. **Egues**: Eguesibar.

19. **Elizondo**: Baztan, Urdazubi, Zugarramurdi.

20. **Lizarra**: Aberin, Aiegi, Lizarra, Morentin.

21. **Etxarri Aranatz**: Arbizu, Bakaiku, Ergoiena, Etxarri Aranatz, Iturmendi, Lakuntza, Urdiain.

22. **Uharte**: Esteribar, Uharte.

23. **Irurtzun**: Araitz, Arakil, Arruazu, Betelu, Imotz, Irañeta, Irurtzun, Larraun, Lekunberri, Uharte Arakil.

24. **Izaba**: Burgi, Bidankoze, Gazteluberri, Erronkari, Garde, Izaba, Urzainki, Uztarroze.

25. **Leitza**: Arano, Areso, Goizueta, Leitza.

26. **Lesaka**: Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi, Lesaka.

27. **Lodosa**: Elizagorria, Lodosa, Mendabia, Sartaguda, Sesma.

28. **Los Arcos**: Aguilar Kodeskoa, Armañantzas, Azuelo, Bargota, El Busto, Desojo, Esprontzeda, Los Arcos, Mues, Santsol, Torralba del Río, Torres del Río.

29. **Noain**: Beriain, Biurrun-Olkotz, Noain (Elortzibar), Galar, Ibargoiti, Elo, Tiebas, Muru Artederreta, Untzue.

30. **Erriberri**: Beire, Caparroso, Murillo el Cuende, Erriberri, Pitillas, San Martín Unx, Uxue.

31. **Orkoien**: Beraskoain, Bidaurre, Ziritza, Etxarri, Etxauri, Goñibar, Ollaran, Oltza, Orkoien, Zabaltza.

32. **Iruña**: Iruña.

33. **Azkoien**: Faltzes, Funes, Martzilla, Azkoien.

34. **Gares**: Adios, Añorbe, Artazu, Zirauki, Eneritz, Girgillao, Legarda, Mañeru, Mendigorria, Muruzabal, Obanos, Gares, Tirapu, Ukar, Uterga.

35. **Zaraitzu**. Espartza, Ezkaroze, Galoze, Gorza, Itzaltzu, Jaurrieta, Nabaskoze, Otsagabia, Orontze, Sartze.

36. **San Adrian**: Andosilla, Azagra, Cárcar, San Adrian.

37. **Zangoza**: Oibar, Kaseda, Eslaba, Ezporogi, Galipentzu, Xabier, Leatxe, Lerga, Ledea, Irunberri, Petilla de Aragón, Erromantzatua, Zare, Zangoza, Urraulgoiti, Urraulbeiti, Esa.

38. **Tafalla**: Barasoain, Garinoain, Leotz, Oloritz, Orisoain, Puiu, Tafalla.

39. **Tutera**: Tutera.

40. **Ultzama**: Anue, Atetz, Basaburua, Lantz, Odieta, Ultzama.

41. **Valtierra**: Arguedas, Cadreita, Milagro, Valtierra, Villafranca.

42. **Viana**: Aras, Cabrero, Genevilla, Lapoblación, Marañon, Viana.

43. **Villatuerta**: Abartzuza, Gesalatz, Lezaun, Oteitza, Jaitz, Villatuerta, Deierri.

44. **Atarrabia**: Ezkabarte, Olaibar, Atarrabia.

**Jarduketa bereziko eskualde**ei dagokienez, oinarrizko gizarte zerbitzuetako programetako prestazioak eta haien finantzaketa arautzen duen arau-garapenean zehaztuko dira.

**B. Gizarte zerbitzuen barrutiak**, gizarte zerbitzuen oinarrizko eskualdeen elkarketa, hurbiltasunaren eta ezaugarri soziodemografikoen irizpideetan oinarrituta. Irizpide horien arabera, sei barrutiko egitura eratzen da, eta haietako bakoitzean gizarte zerbitzuen oinarrizko eskualdeak elkartzen dira:

1. IPAR-MENDEBALDEKO BARRUTIA: Honako oinarrizko eskualde hauek biltzen ditu: Altsasu, Elizondo, Doneztebe, Etxarri Aranatz, Irurtzun, Leitza, Lesaka.

2. IPAR-EKIALDEKO BARRUTIA. Honako oinarrizko eskualde hauek biltzen ditu: Agoitz, Auritz, Izaba, Zaraitzu, Zangoza.

3. IRUÑA ETA IRUÑERRIKO BARRUTIA: Honakoak biltzen ditu: Iruña (11 auzo-unitaterekin), Barañain, Burlata, Berriozar, Zizur, Uharte, Noain, Orkoien, Ultzama, Atarrabia.

4. LIZARRAKO BARRUTIA. Honako oinarrizko eskualde hauek biltzen ditu: Allo, Antzin-Ameskoa, Los Arcos, Lizarra, Lodosa, Gares, San Adrián, Viana, Villatuerta.

5. TAFALLAKO BARRUTIA. Honako oinarrizko eskualde hauek biltzen ditu: Artaxoa, Zarrakaztelu, Erriberri eta Azkoien, Tafalla.

6. TUTERAKO BARRUTIA. Honako oinarrizko eskualde hauek biltzen ditu: Buñuel, Cascante, Cintruénigo, Corella, Valtierra, Tutera

Sakabanaketa geografikoa dela eta, zerbitzuen hurbiltasun eta eskuragarritasunaren printzipioak aintzat harturik, gizarte zerbitzuen oinarrizko esku-

aldearen eta barrutiaren arteko maila bat proposatzen da, **azpibarrutia**, barrutiko zenbait oinarrizko eskualde elkartzen dituena eskualdekoa baino goragokoa den esparruko zerbitzuak batera emateko. Beraz, azpibarruti hauek ezarri dira barrutien barnean:

**1. Lizarrako Barrutia:**

• Lizarrako azpibarrutia: Oinarrizko eskualdeak: Lizarra, Los Arcos, Villatuerta, Viana, Antzin, Ameskoa.

• Ebroko Ardatzaren azpibarrutia: Oinarrizko eskualdeak: Lodosa eta San Adrian.

**2. Ipar-mendebaldeko barrutia:**

• Mendebaldeko azpibarrutia: Oinarrizko eskualdeak: Altsasu, Etxarri Aranatz, Irurtzun, Leitza.

• Iparraldeko azpibarrutia: Oinarrizko eskualdeak: Lesaka, Doneztebe eta Elizondo.

**1. mapa: Gizarte zerbitzuen barrutiak**



**2. mapa: Gizarte zerbitzuen barrutiak eta azpibarrutiak**



Inprimatzailea: Ulzama Digital (Iruña).
Lege Gordailua: NA – 363-1995
Paper ekologiko birziklatua